

Berrigara

BERGARA / Egubakoitza / 2005eko abenduaren 30a / 653. zenbakia

2005

urteari begiratu

Kontuola
31. orrialdean
Goibekokale
45. orrialdean

BERGARA

MARKIEGI autoak

FIAT

Alfa Romeo



Gabon zoriontsuak!

Leizeaga 1 • San Lorentzo industrialdea
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 35 09 • Faxa: 943 76 56 76

Fiat grande
punto berria



Etxerako ederrena, Zanguitun

deco-tex ZANGUITU alfonbrak

Herri lagunak 4 BERGARA • Tel.: 943 76 08 69

- Alfonbrak
- Alfonbrak neurrira
- Funda nordikoak
- Edredoia
- Kortinak
- Toailak
- Izarak

ZANGUITU margoak


Irala z/g BERGARA • Tel.: 943 76 19 54

IRU margoak

Araba etorbidea 3 ARRASATE
Tel.: 943 79 11 71

- Parket flotatzailea*
- Sintasola*
- Mocketak*
- Paper pintatuak

* Salmenta eta etxean ipintzea.




UGARTE

AROSZTEGIA-ALTZARIAK



- Arotz lanak orokorrean
- Horma armairuak
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak



ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

KALEINKESTA/ Urtea amaitzear den honetan. Zer eskatu diozu urte berriari?



ARANTXA ZEZEAGA



JOSE LUIS KAREAGA



MARIA JESUS MUÑOZ



AINZANE LARRAÑAGA



GUILLERMO AUSKARRIAGA



LINA PERA

Nik osasuna baino ez diot eskatu, eta urte berria osasuntsu hasiz gero pozik horrenbestean. Gabonetarako loteria ere erosi dut baina ez daukat tokatuko zaidan esperantzarik. Konforma erraza naiz ni.

Osasuna eta etorri gero diru pixka bat ere gustura hartuko nuke. Horretarako loteria ere erosi dut ea tokatzen den. Hala ere, garrantzitsuena osasuna da dudarik gabe; bai nirea eta baita ingurukoena ere.

Osasuna, dirua eta lana. Lehenengo osasun ona izatea, noski. Baina loterian diru apur bat tokatuz gero ez litzaidake batere gaizki etorriko. Urte berrian lan egoera hobetzea ere poztekoa litzateke.

Lehenengo osasuna; osasunik gabe ezingo genuke eta aurrera egin. Gainontzean ez dut beste aparteko ezer eskatzen, konformatu nintzateke orain dudarekin eta nagoen moduan ongi jarraituz gero.

Niri dagokidanez bakea eta lana. Gizarteari begira jarrita, berriz, nire herrialdearekin, Argentinarekin pentsazen dut. Harako lan gehiago eta berdintasuna eskatuko nitzuke urte berri-rako.

Batez ere osasuna eta baita denondako bakea ere. Loterian ez dut dirurik jokatu, gero desilusiorik ez hartzeko, beraz, ezin diruarekin pentsatu. Baina osasuntsu eta bakean biziz gero nahikoa da niretzat

ETABARRUAN...

GAINBEGIRATUA /3
ONENA ETA TXARRENA /40-43
ERRETRATU ZAHARRA /54

URTEARI GAINBEGIRATUA

Urtarrila /04-05
Otsaila /06-07
Martxoa /08-09
Apirila /10-11
Ekaina /15
Uztaila /16
Abuztua /19
Iraila /20-21
Urria /22-23
Azaroa /24-27
Abendua /30

ZURIETABELTZ



AUPA ETXEBESTE!

Asier Altuna *Kixik* Telmo Esnalekin batera zuzendutako filma izan da albisterik pozgarrienetakoa. Ikusle Gazteen saria eskuratu zuen Zinemaldian eta Goya sarietarako izendatu dute.

PILOTA, AROZTEGI ETA HERRI BARRUA

Profesional mailako pilota itzuli da Udal Pilotalekura; Aroztegi aretoa zabaldu zuten Pazkoen atarian eta herri barrua berritzeko lehen emaitzak eman dira, Artekalen eta Arruriagan.

JARDUNEN URTEURRENA

Jardun euskara elkarteak 15 urte bete zituen maiatzean. Urte hauetan guztietan herriko erreferenteetako bat bihurtu da.

CARITASEN KOOPERATIBA

250 etorkin inguru ari dira lanean. Esperientzia aitzindaria da. Langileen %90ak Bergaran egiten du lan.

BERGARA ALDEKO HIZTEGIA

Bergara aldeko hiztegia kaleratu du aurten Juan Martin Elexpuruk. Lan mardula, herriko euskaltzaleondako opari bikaina.

HERRIKO GIROA BERRESKURATZEKO AHALEGINA

Herriko giroa suspertzeko lanean ari den taldeak lan bikaina egin du. Pazkoetan, esaterako, hainbat ekitaldi antolatu zituzten eta jendeak bikain erantzun zuen.



ZINEMA ARETORIK ETA KULTUR ARETORIK EZ

Novedades zinema aretoa itxi zuten martxoan eta herrian kultur emanaldietarako areto egokirik gabe jarraitzen dugu. Hainbat herritarrek zinema aretoa martxan jartzea aldarrikatu dute.

ETXEBIZITZEN PREZIOA

Gero eta etxe gehiago eraikitzen ari dira herrian, baina prezioek gora eta gora egiten dute. Babestutako etxe gehiago egitea aldarrikatzen dute herritar askok.

ADOSTASUNIK GABE UDALBATZAN DENAK EGOTEKO

Udaleko batzordeetan lanean hasi arren, udalbatzatik kanpo jarraitzen du Bergara Aurrera plataformak. Gobernuko alderdiak eta BA ez dira ados jarri auziari konponbidea topatzeko orduan.

URTEAGA ZABALTZEKO ZAIN

Bergaratik Antzuolarako irteerak itxita jarraitzen du, Urteagan. 2006ko abuztuan zabaltzea da Diputazioaren asmoa. Bien bitartean, bizilagunak, egunero errepidea erabili behar dutenak eta han enpresak dituztenak dira kaltetuenak.

DENDARI TXIKIEN KEZKA ETA GARRAIO PUBLIKOA

Hainbat denda itxi dituzte herri barruan urtean zehar. Bedelkar dendarien elkarteak kezka azaldu du. Bestalde, garraio publikoaren eskaintza eskasa eta behin behineko bus geltokia jartzeko orduan bidaiariak ez dituzte gehiegi kontuan hartu.

Berrigara

2005

Urtearen begirada

BERGARA

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea, 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil

ERREDAKZIOA
Edu Mendibil
Irati Agirreazaldegia
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga

LEGE-GORDAILUA
55-50/91
ISSN
1130-6599

TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Begarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

URTARRILA

HILEKOESALDIA

HILEKODATUA

16



"Gurasoen galderak eta zalantzak jorratu nahi ditugu Guraso Eskoletan"

MIREN AMOR / PREBEN. TEKNIKARIA
2005-01-28



"Korrika antolatzeke ezinbestekoa da herritarren laguntza"

IBAI REDONDO / KORRIKAKO KOORD.
2005-01-19

"Sri Lankan 30.000 lagun hil dira. Telefono dei bat nahikoa zen horietatik dezente salbatzeko"

JOSE ANGEL MIKEO / MUNDUKIDE
2005-01-21

MILA LIBURUKI INGURU UDAL LIBURUTEGIAN

Udal Liburutegiak emandako datuen arabera, 16.000 liburuki (bolumen) inguru dira Errotalde jauregiko egoitzan.



Meningitisari aurre egiteko txertoa jarri zieten ikasleei

Bergarako 11-20 urte bitarteko ikasleek meningitisaren aurka txertoa jaso zuten urtarrilaren hasieran. Osakidetzako langileak aritu ziren Bergaran txertoa jartzen. Guztira, 1.050 ikasleri jarri zieten meningitis C gaixotasunetik babesteko txertoa. Euskal Autonomia Erkidegoan 180.000 gazte inguru izan ziren txertoa jaso zutenak.

SAHARAR HERRIARI LAGUNTZEKO KANPAINA

↑ Bergararrek primeran erantzun zioten Sahararako laguntza kanpainari: hiru tona inguru batu dituzte aurretan.

URTEAGAKO LANAK, BERRIZ ATZERATUTA

↓ Eskusarte harrobian egin beharreko lanak otsailan hasiko zirela agindu zuen Diputazioak.

AIPAGARRI



JOSE MARI ZEZEAGA
Pilotaria

Aspe enpresan jarraitzea espero bazuen ere, Jose Mari Zezeagari ez zioten kontratua berri. 42 urterekin, Garfe enpresarekin fitxatu zuen.



BIXENTE IBAGUREN
Argentinara joana

Bixente Ibaguren bergararra Argentinako La Plata hiriko *Etorkin Ospetsua* izendatu zuten. La Platako Euskal Etxeko presidente izandakoa da.



JOSE SERRANO
Udaltzaina

Bergarako udaltzainek agur afaria eskaini zioten Jose Serranok 33 urte egin zituen udaltzain lanetan. Urritik erretiratuta zegoen.



ZORIONAK
GUZTIOI!

INPRIMATEGIA



Offset



Enkuadernazioa



Koloretako fotokopiak

Komenio 2 • 20570 BERGARA

Tel.: 943 76 00 01 • Fax: 943 76 22 41 • e-posta: imprespal@euskalnet.net

López Queda

Amillaga 25 • Industrialdea
Biltegia: 943 76 27 76 - 943 76 38 52
20.570 BERGARA



Errioxa
ardo beltza, urtekoa



Errioxa



Nafarroa

Gabon Zoriontsuak
opa dizkizue!

ATXEGA ARDOAK S.L.

Ortzaika auzoa
Tel.: 943 830 369
943 830 375
20.810 ORIO

ALBISTEIZANZEN

► DEBAGOIENEAN
**Sharon Stoner taldea,
Danbakako irabazle**

Goienk antolatutako Danbaka musika lehiaketako lehen edizioa Sharon Stoner Oñatiko taldeak irabazi zuen. Milaka ikusle erakarri zituzten kontzertuek.
2005-01-14


► EUSKAL HERRIAN
**Getxon 40 kiloko
lehergailua ipini zuten**

Getxon 40 kiloko lehergailua ipini zuen ETAK. Kalte materialak egin eta ertzain bat zauritu zuen. Gaitzespen agerraldian, tentsio handiko uneak egon ziren.
2005-01-18

► MUNDUAN
**Auschwitz askatu
zutela 60 urte**

Auschwitz-eko kontzentrazio-esparruko presoak askatu zituztela 60 urte bete zirenean, mundu osoko agintariak Hitlerren biktimak omendu zituzten.
2005-01-27

KULTURA



**Deba ibarreko
hiztegia
Juan Martin
Elexpururen
eskutik**

Bergara aldeko hiztegia, Leintz-Aramaio, Oñati eta Eibar inguruko berbekin osatua izeneko liburua egin du Juan Martin Elexpuruk. Deba ibarreko berbak jasotzen ditu hiztegi berri honek, esanahia azalduta eta adibideak jarrita. Hainbat hitzen marrazkiak eta koloretako argazki erakargarriak ere badakartza guztiak ere, berbekin azaldukoak laguntzeko. Liburuaren orrialde kopurua 770ko da guztira eta tamainaz oso egokia da erabiltzeko. Lagungarria da bertako euskera zaintzeko eta ondo erabiltzeko.

KULTURA

**Udal Liburutegia,
liburutegien katalogo
bateratuan**

Bergarako Udal Liburutegia Euskal Autonomia Erkidegoko liburutegien katalogo bateratuan dago urtarrila ezker. Horrela, Bergarako Udal Liburutegiko txartelarekin beste liburutegietako fondoetara jotzeko aukera izango da. 3.200 bazkide inguru dauzka Udal Liburutegiak.

MENDIA

**Unai Perez de Arenaza
sartu zuen Euskal
Mendizale Federazioak**

Euskal Mendizale Federazioak Unai Perez de Arenaza mendizale bergarra sartu zuen urtarrilaren 21ean. Urteko alpinismo jardura onenarengatik sartu zuten Unai. Oriol Varo katalanarekin batera, bide berria ireki zuen Unai Sisha Pangman (8.013 m)

LAGUNTZA

**Hiru tona jaki eta
material jaso zituzten
Sahararen alde**

Udalak eta Komite Internazionalistak taldeak deitutako Sahararako laguntza kanpainak harrera bikaina izan du aurten ere. Hiru tona inguru jaso zituzten, atuna, azukrea eta konpresak tartean. Tindouf-en diren errefuxiatu sahararrei bidali zieten jasotako laguntza.

KULTURA

**Jon Iraegik irabazi
zuen Aratusteetako
kartel lehiaketa**

Jon Iraegi 27 urteko gazte bergarrak irabazi zuen Aratusteetako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa. 300 euroko saria eskuratu zuen Iraegik. 20 lan aurkeztu zituzten lehiaketara eta Beart elkarteko eta Pol-Pol Argazki Taldeko kideak aritu ziren epaimahaian.

EUSKARA

**'Merezi du!' euskararen aldeko
kanpaina abian jarri zuten**

Jardun euskara elkarteak, Udal Euskaltegiak, Akulu AEK euskaltegiak eta Udaleko Euskara Zerbitzuak *Merezi du!* izenburuko kanpaina jarri zuten abian. Herritarrak euskara erabiltzera animatzea zen kanpainaren helburu nagusia. Besteak beste, euskara ikasteko, dakiguna hobe-

tzeko edota erabiltzeko zenbat aukera eskaintzen dizkiguten erakundeekin harremanetan jartzeko informazioa banatu zuten. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren barruan kokatu zen *Merezi du!* kanpaina. Herriko postontzi guztietan diptiko bat banatu zuten.

INTERNET

**Irizarko KZguneak
1.500 erabiltzaile
inguru dauzka**

Irizar jauregiko lehen solairuan dagoen KZguneak 1.500 erabiltzaile inguru ditu. KZgunea 2002ko azaroan jarri zuten abian. Urtarrilean, Internet hasiera ikastaroak eskaini zituzten, Interneten nabigatzen eta posta elektronikoa erabiltzen erakusteko, besteak beste.

**BANAKETAK
ORIXONDO**

Tel.: 943 76 28 81
BERGARA

Espezialitateak:

- Urdaiazpiko iberikoak
- Paletak
- Kordobako urdaiazpikoak
- Solomoak

- Aditiborik gabeko txorizoa (Alejandro)
- Errioxako urdaiazpikoak (Los claveles)
- Erriberako esparragoak
- Pikillo piperrak
- Guardiako Luis Alegre ardoak

Gabon zorientsuak izan ditzazuela!

Zuri beltz Margoak



**Barnealde eta kanpoaldean erreforma
Pintura zerbitzu osoa**

Zubieta 28 BERGARA • 607 447 494
Txomin Santamaria 609 150 164 • Jabier Seco 678 615 045

Urte berri on!

OTSAILA



*"Mendeetan zehar pila-
tutako jakinduria zatiak
jasotzen saiatu naiz"*

JUAN MARTIN ELEXPURU / IDAZLEA


2005-02-11



*"Giro benetan ona
daukagu San Joxepe
abesbatzan"*

PATXI AZKARATE / ABESBATZ. ZUZEN.

2005-02-4



Caritasek sortutako kooperatiba elkartean, 250 bat etorkin lanean

Bergarako Artzapez-barrutiko Caritasek sortutako kooperatiba elkartean 250 etorkin inguru ari ziren lanean otsailean. Kooperatiba duela bi urte jarri zuten abian. Besteak beste, Bulgaria, Ukraina, Mexiko, Bolivia, Argentina eta Kolonbiatik etorritakoak dira kooperatiban ari direnak, gehienak etxeko zerbitzuan. Langileen %90ek Bergaran egiten dute lan.

HILEKOESALDIA

"Egia esan, sekula ez dut margolari izateko erabakia hartu; pinturak berez eraman nau"

MANU MUNIATEGI / MARGOLARIA

2005-02-11

HILEKODATUA

36,9

EUSKARA ERABILTZEN DUEN HERRITARREN PORTZENTAJEA

Sei kultur elkarteak egindako ikerketaren arabera, euskaren erabilera kalean %36,9 da Bergaran.

ASIAN KALTETUTAKOEN ALDEKO KONTZERTUA

Bandak eta Orkestrak 2.030 euro batu zituzten Asiako itsasikarak kaltetutako en alde, otsailaren 4ko kontzertuan.

UR KOLEKTOREKO LANENGATIK BEDELKAR HASERRE

Bedelkar dendarien elkarteak haserre azaldu zuen ur kolektoreko lanek dendariengan eragindako kalteengatik.

AIPAGARRI



ALAITZ SARASOLA
Idazlea

Alaitz Sarasola ordiziarrak irabazi zuen Amodiozko Gutunen XIII. Berrigara Lehiaketa. Herriko onenaren saria Josu Arantzabalek jaso zuen.



ASIER GARITANO
Entrenatzailea

Asier Garitano bergararra entrenatzaile lanetan genuen 2.B mailako Alacant taldean, Pepe Bordalaren laguntzaile. Ezin izan zuten 2.A mailara igo.



FELIX GARITANO
Apaiza

Donostiako San Bixente elizako parrokoa da azken 14 urteotan. Aurrez Seminarioan eta Gotzaindegian lanean ibilitakoa. 34 urte darama Donostian.

DECOLETAJES

BIOK

Prezisiozko dekoletajea era guztietako materialetan

ZORIONAK BERGARAR GUZTIOI!

Amillaga 6 • 286 posta kutxa • 20570 BERGARA Gipuzkoa • Tel. 943 76 53 29 • Faxe 943 76 41 05



1942az gero

San Juan auzoa
BERGARA
943 76 35 44 Faxe: 943 76 51 39

Zorionak bergararroi!



ALBISTEIZANZEN

► DEBAGOIENEAN **18/98+ plataforma aurkeztu zuten**

18/98 kasuan auziperatuei elkartasuna adierazteko, 18/98+ plataforma osatu zuten Debagoieneko arlo guztietako pertsonak eta erakundeak.

2005-02-02

► EUSKAL HERRIAN **Ibarretxe Egitasmoa atzera bota zuten**

Ibarretxe Egitasmoa atzera bota zuen, gehiengo handiarekin, Espainiako Diputatuen Kongresuak. Ibarretxek plana azaldu zuen kongresuan bertan.

2005-02-01

► MUNDUAN **Sozialisten garaipen historikoa Portugalen**

Portugalgo Alderdi Sozialistak gehiengo absolutua lortu zuen hauteskunde orokorretan, lehen aldiz 30 urtean. Jose Socrates lehen ministro bihurtu zen.

2005-02-20

AURKEZPENA



18/98 sumarioaren aurkako plataforma

18/98 sumarioan auziperatutakoei babesa emateko plataforma eratu zuten Debagoienez. Eskualdeko hainbat pertsona ezagunek osatzen zuten plataforma eta otsailaren 2an Bergaran aurkeztu zuten *18/98 eta gehiago* izeneko ekimena, eskubide zibil eta politikoen alde lan egiteko izaera nazionalako lantaldea. Atxikimenduak lortzeko sinadura-kanpaina jarri zuen abian plataformak. Debagoieneko zazpi lagun ziren sumarioan auziperatuta; tartean Jose Luis Elkoro, Iñigo Elkoro, Fermin Lazkano eta Xabier Arregi bergararrak. 50 lagun bat elkartu ziren plataformako aurkezpenean, kultura etxean.

HIRIGINTZA

Osintxuko zubi zaharra konpontzeko proiektua

Udalbatzak LKS Ingeniaritzari agindu zion Osintxuko zubi zaharra konpontzeko proiektu teknikoa, 5.800 euroren truke. Osintxuko zubi berria zabaldu ondoren, zaharra konpontzeko konpromisoa hartu zuen Udalak. Zubia XVI. mendekoa da eta egoera txarrean zegoen.

HAUTESKUNDEAK

Abstentzioa nagusi Europako erreferendumean

Europako Konstituzioaren gaineko erreferendumean abstentzioa izan zen nagusi otsailaren 20an. %63,1eko abstentzioa izan zen Bergaran. Botoa eman zuten artean 2.510 Itunaren kontra azaldu ziren eta baiezko botoak, berriz, 1.959 izan ziren. 7.886 izan ziren bozketari uko egin ziotenak.

GAZTEAK

664 kontsulta egin ziren gazteen informazio-gunean

Gazteen intereseko informazioa eskaintzen duen bulegoak 2004ko balorazioa egin zuen otsailean. Urte ona izan zela azpimarratu zuten arduradunek. Guztira, 664 lagun joan ziren kontsultaren bat egitera. Uztailean jaso ziren kontsulta gehienak, turismoari lotutakoak hain zuzen.

HIRIGINTZA

Bedelkar elkarteak kexu ur kolektoreko lanak direla eta

Bedelkar herriko dendarien elkarteak haserrea azaldu zuen herrian egiten ari ziren ur kolektoreko lanengatik. Dendarien arabera, ez ziren betetzen ari Udalak agindutako epeak eta komertzioetara galera ekonomikoak ekarri zituzten lanak.

Bedelkarko ordezkarien

ustetan, Udalak ur kolektoreko lanen jarraipena egitea beharrezkoa zen.

Bedelkarrek salatu zuenez, ur kolektoreko lanek galera ekonomikoak eragin zituzten dendariengan: "Gure sektorean eragin zuzena izan dute lanek, eta utzikeriagatik izan da hori".



Lanen luzatzea salatu zuen Bedelkarrek.

LANA

Merkataritza Ganberaren diploma Miguel Larrañagari

Gipuzkoako Merkataritza Ganberak Miguel Larrañaga gozoglearen lana aitortu zuen. 50 urte tik gora egin ditu Miguelek gozogle lanetan eta Merkataritza Ganberak diploma eman zion otsailaren 18an. Dagoeneko laugarren belaunaldia ari da Larrañaga gozotegian lanean.

PASCUAL

TELEKOMUNIKAZIOAK

Arrasate 4. 20005 Donostia Tel. 943 42 04 28 eta Madril hiribidea 13.



Liderrak telefonía mobilean



Banatzaile ofiziala



Ibargarai 5 BERGARA
943 77 70 14 Faxa: 943 77 70 16
bergara@pascualalzuri.com

Zorionak eta urte berri on!

TREKUTZ S.A.L.

BERGARA

Eguneroko zerbitzua

Agentzia
Bergara: San Lorenzo industrialdea
Tel.: 943 76 17 68 - 943 76 19 86

MARTXOA



"Gogor entrenatzeko errepikatzen diet jokalariei behin eta berriz"

J. C. GMEZ. DE SEGURA / ENTREN.


2005-03-04



"Hezkuntzak determinatzen du auto-estimua, %100ean esango nuke"

PEPA BOJO / PSIKOLOGOA

2005-03-18



Pilota jaialdiak berriz Bergaran

Bergarako Udala eta Aspe pilota enpresa akordio batera iritsi ziren, Udal Pilotalekuan profesional mailako jaialdiak antolatzeko. Victoriano Gallastegi alkateak eta Patxi Mutiloa Aspeko gerenteak sinatu zuten akordioa. Eibarko Astelena Euskal Herriko pilotaleku pribatu bakarra da eta errenta garestiegia omen dela eta, Eibarren antolatzen zituen jaialdiak Bergarara ekartzeko erabakia hartu zuen Aspe enpresak. Udalak ere interes handia zeukan goi mailako pilota Bergarara ekartzeko, azken urteotan profesionalen zirkuitutik kanpo geratu baita Bergarako pilotalekua. Sinatutako hitzarmena 2005. urterako da, eta, hasiera baten, Astelengan gertatzen zen moduan, domeka arratsaldean izango dira partiduak Bergaran.

HILEKOESALDIA

"1960ko hamarkadan galtzen hasia zen, baina azken urteotan izugarri hazi da Erramu Zapatuko Feria"

REGINO VALLE / ANTOLAKETA BATZO.

2005-03-18

HILEKODATUA

-8°C

IZAN GENITUEN
MARTXOAREN 1EAN

Luis Mari Agirrek emandako datuen arabera, aspaldiko egunik hotzenetakoa izan genuen martxoaren 1ean: -8 °C.

GOI MAILAKO PILOTA BERGARARA

↑ Pilotazaleen pozerako, profesional mailako jaialdiak itzuli ziren Bergarara.

OZTOPO ARKITEKTONIKOAK

↓ Herriko hainbat tokitara gurgildun aulkiarekin iristeko nahi baino oztopo gehiago daude oraindik.

AIPAGARRI



ESTEBAN LAZKANO
Kirolzalea

Esteban Lazkano bergararrak Saharako maratoian hartu zuen parte. Lazkanok bost ordu eta 20 minutu behar izan zituen proba amaitzeko.



JOSE LUIS APERRIBAI
Apaiza

Jose Luis Aperribai bergararra Elgetan ibili zen apaiz bost urtez eta Elgetako historiaren gaineko liburua kaleratu zuen. Hernanin dabil gaur egun apaiz.



IKER AZAGIRRE
Pilotaria

Iker Azagirre bergararrak Euskal Ligako finala irabazi zuen Larrabetzun, martxoaren 4an. Nagusien mailan, Oinatz Gonzalezi irabazi zion, 22-5.



**Sukaldeak. Horma armairuak.
Neurrira egindako altzariak.
Ateak eta leihoak. Arozlanak.**

Bergara 943 76 58 86 / 670 765 886

Urte berri on!!

DISSOL

SOLDADURARAKO ARTIKULUAK-GASAK- PISTOLAK ETA OSAGARRIAK- HARIAK- ELEKTRODOAK-MAKINERIA

BERRIZ BILTEGIA
Eitua poligono industrial 41B
48240 BERRIZ (Bizkaia)
Tel.: 946 82 76 06
Faxa: 946 82 65 34

BERGARA BILTEGIA
Benta berri z/g
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 76 28 97
Faxa: 943 76 50 56

URTE BERRI ON!

Banatzaile ofiziala

PRAXAIR

ALBISTEIZANZEN

► **DEBAGOIENEAN**
Errausketarik ez domeka eta jaietan

Arrasateko hiltegiek jaiegunetan zerbitzurik ez ematea erabaki zen, tartean ibarreko errausketa-labe publiko bakarrak.
2005-03-11

► **EUSKAL HERRIAN**
Aukera Guztiak taldeari debekua

Espainiako Auzitegi Gorenak Aukera Guztiak alderdiari euskal hauteskunde-etara aurkeztea debekatu zion, "ETAren tresna" izatea leporatuta.
2005-03-26

► **MUNDUAN**
Pederastia-sareei kolpe gogorra

Europa eta He-go Amerikako 12 herrialdetan, guztira 500 pertsona atxilotu zituzten, Internet bidez ume-pornografia elkartrukatzegatik.
2005-03-16

EUSKARA



Herritarrek bat egin zuten Korrikarekin

Korrikaren 14. ekitaldia iritsi zen Bergarara martxoaren 16an. Herritar ugarik bat egin zuten euskararen aldeko jaiarekin; euskararen aldeko konpromisoak eta kirolak bat egin zuten berriz ere. Oñatitik zetorren korrika eta Labegaraian egin zioten ongietorria. Lagun asko izan ziren zapa-tilak jantzi eta korrika egitera animatu zirenak.

HIRIGINTZA

Amaituta Bergarako Epaitegia zaharberritzeko lanak

Urtebete pasatxo igaro ondoren, Bergarako Epaitegia zaharberritzeko lanak amaitu zituzten. Ariznoa plazak zein Epaitegiko eraikinak itxura berria daukate. Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Gaietako Sailak egin du Epaitegia egokitzeko proiektua. Epaitegia XIX. mendekoa da.

GARRAIOAK

Autobus geltokia abian jarri zuten Torrekuan

Martxoko bigarren astean autobus geltoki berria jarri zuten Torrekuan. Hasiera baten markesinak bakarrik jarri zituzten eta geroago autobus erabiltzaileei zuzendutako komunak. Ertzaintzaren atzeko pasealekuk geltoki berrira iristeko aukera dago.

HEZKUNTZA

Hainbat gurasok haurtzaindegia aldarrikatu zuten

Herriko hainbat gurasok haurtzaindegi publikoa aldarrikatzeko elkarretaratzea egin zuten plazan. Pankartan zera irakur zitekeen: Alkate jauna: non eta noizko 0-3 haur eskola publikoa? Alkateak gaiaren gainean lanean ziharduela erantzun zien osoko bilkuran. /2005-03-4

PRESOAK

Mikel Zubimendiri ongietorria egin zioten

Sei urtez kartzelan egon ondoren, Frantziako Poliziak aske utzi zuen Mikel Zubimendi bergararra martxoaren 7an. Arrano tabernan egin zioten ongietorria 200 bat lagun elkartu ziren, familiakoak eta lagunak tartean. Arnaldo Otegi eta Jose Luis Elkorro ere izan ziren ongietorrian.





Mikel Zubimendiri egindako ongietorriaren irudi bat.

HEZKUNTZA

Aranzadi Ikastola izendatu dute Kilometroak 2007rako

Gipuzkoako Ikastolen Elkarteak Aranzadi Ikastola izendatu du 2007. urteko Kilometroak antolatzeko. Beraz, hamasei urte geroago Kilometroak jaia izango dugu berriz Bergaran. 1991ko urriaren 6an ospatu zen lehen-dabiziko aldiz. 2006ko Kilometroak Oiartzunen izango dira.

Zuber[®]

Zuber

- Metal gogorrezko erramintak ZB[®]
- Hotzeko estanzazioareko metal gogorrezko matrizea[®]

Tel.: + 34 943 76 26 78 Leizeaga kalea 8
 Faxe: + 34 943 76 56 79 112 posta-kutxa
 www.adege.es/zuber BERGARA

Urte berri on bergararroi!

Azkoin

Industriak

Gabon zorientsuak opa dizkizuegu bergarar guztioi!

Amillaga 43, San Lorentzo industria poligonoa • 109 posta kutxa Bergara • Tel.: 943 76 10 52 • Faxe: 943 76 98 20
 azkoin@azkoin.com • www.azkoin.com

APIRILA



"Joan Paulo II.aren agintaldian sekulako atzerapena izan du elizak"

ANDRES OSA / KAZETARIA

2005-04-8



"Argi dago jaiak berreskuratzea herritarren esku dagoela"

MIREIA LARRAÑAGA / JAIETAKO BATZ.

2005-04-29

HILEKOESALDIA

HILEKODATUA

130

MILA EURO PAZKOEN AURREKONTUA

Luis Abajo zinegotziak emandako datuen arabera, 130.000 euro izan zen 2005eko Pazkoetako aurrekontua.

"Ikaragarri aldatu da Bergara mutiko nintzenetik. Igeri egiten Ozaetako errekan ikasi nuen..."

JABIER RETEGI / EUSKO IKASKUNTZA

2005-04-18



Novedades zinema aretoa itxi zuten

Azken urteotan kolokan egon ondoren, Novedades aretoa itxi egin zuten Aste Santuaren ostean. Azken bi urteotan, udaberritik irailera bitartean itxita egon zen Novedades aretoa eta neurri handi batean udal laguntzei esker egin zuen aurrera. Urtero, 25 emanaldi antolatzeko eskubidea zuen Udalak. Lokala pribatua da eta Novedadesko kudeatzaileek alokatuta zeukaten.

HERRIKO HAINBAT KOLEKTIBO

↑ Jendearen parte-hartzea bultzatu eta Pazkoetako giroa pizteko ahaleginetan, herriko kolektiboak elkarlanean.

ZINEMA ARETORIK EZ BERGARAN

↓ Novedades aretoa itxi ondoren, zinemaz gozatzeko areto aproposik gabe geratu da herria.

AIPAGARRI



AITOR GALDOS
Ikaslea



RIKARDO AZKARGORTA
Margolaria



UNAI AZKARATE
Artista


Elgoibarko IMH Institutuak Aitor Galdos bergararra nabarmendu zuen. 2005eko Ikaslerik Onenari zegokion saria eskuratu zuen Galdosek.

Rikardo Azkargortak Iruñeko Pintzel galerian erakusketa egin zuen. Bedelkarko kideak 30 lan inguru erakutsi zituen Iruñeko erakusketan.

Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak antolatutako lehiaketan Unai Azkarateren *Irtenbiderik gabeko autobidea* komiki lana saritu zuten.



Errodamendu berezien, burdineria eta sistema iristakorren fabrikazioa



Gabon zoriontsuak!

Royde, S. Coop. • 157 posta-kutxa • Amilaga, 9 • 20570 BERGARA
Tel.: +34 943 76 16 40 • Faxe: +34 943 76 50 75 • e-maila: rap@royde.com • www.royde.com



IBARRALDE
Administrazio zerbitzuak SM

25.068 kolegiatu zenbakia

- Fiskalak
- Laboralak
- Kontableak eta juridikoak
- Finken administrazio zerbitzuak

Zorionak eta urte berri on!

Ibargarai 30 BERGARA
Tel.: 943 76 52 88 - Faxe: 943 76 25 64

ALBISTEIZANZEN

► DEBAGOIENEAN

Lau gazte oñatiar hil ziren auto istripuan

Lau gazte oñatiar, Eskola Politeknikoko ikasleak, hil egin ziren Oñatira bidean zihozazela. Donostiako gotzainak esan zuen haien omenezko meza.

2005-04-20

► EUSKAL HERRIAN

EAJ-EAK irabazi zituen hauteskundeak

EAJ-EAK legebiltzarreko 75 eserlekuetatik 29 lortu zituen, espero baino emaitza txarragoa. EHAK (9) eta Aralar (1) izan ziren berritasunak.

2005-04-20

► MUNDUAN

Juan Paulo II.a Aita Santua hil egin zen

Juan Paulo II.a, Erromako Eliza Katolikoaren burua, hil egin zen, 26 urteko Aitasaindutzaren ondoren. Benedictus XVI.ak ordezkatu zuen.

2005-04-02

ONDAREA



Gabiria Dorrea berritu egingo dute Tavexek eta Udalak

Bergarako Udalak eta Tavexek Gabiria Dorrea berritzeko hitzarmena sinatu zuten apirilaren 22an. Hitzarmenaren arabera, Tavexek berritze lanen %50 ordainduko du. Trukean, San Antonion Tavexek dituen langileen bulegoak hantxe kokatuko dira etorkizunean. Gabiria Dorrea XV. mendekoa da eta monumentu kalifikatu izendapena dauka.

GARRAIOAK

Udala, tranbia Ibargarai atzealdetik igarotzearen alde

Tranbiaren alegazioak aztertzeko egindako osoko bilkuran, Ibargarai tartean, tranbia lehengo trenbide zaharretik igarotzeko eskaera aho batez onartu zuen udalbatzak. Hain zuzen ere, Ibargarai geltokia Lasagabasterko zubiaren ondora eramatea eskatu zuten.

HIRIGINTZA

Zubieta kaleko lehen zenbakiko eraikina bota egin zuten

Zubieta kaleko lehen zenbakiko eraikina bertan behera botatzeko lanak hasi zituzten apirilaren 8an. Eraikina ordenaziotik kanpo zegoen. Azkoiber SL enpresaren laguntzarekin, Udalak eraikin osoaren jabegoa eskuratu zuen lanei ekin ahal izateko. Errepidea zabaldu dute han.



Zubieta kaleko lehen zenbakia bota ondoren, errepidea zabaldu dute han.

HAUTESKUNDEAK

EAJ-EA garaile Bergaran, 10 puntu galduta baina

Apirilaren 17ko hauteskunde autonomikoetan, EAJ-EA koalizioa izan zen garaile Bergaran. Hala ere, 2001eko hauteskundeekin alderatuta, boto ugari galdu zituen. Abstentzioak nabarmen egin zuen gora. 2001ean %18,6 izan zen eta aurtten, berriz, %30,3.

JAIK

Akordiorik ez zezenketak eta entzierroak egiteko

Udala eta Zezen Zaleak ez ziren akordiora iritsi Pazkoetan zezenketa, entzierroak eta bestelako zezen festak egin ahal izateko. Azken urteotan zezen-plaza jarri izan den lekuan etxe berriak egiteko lanak hasi ziren eta zezen-plaza kokatzeko lekurik ez zegoela esan zuen Udalak.

AZPIEGITURAK

Osintxuko zubi berria inauguratu zuten apirilaren 23an

Osintxuko zubi berria inauguratu zuten apirilaren 23an. Soralue enpresaren aginduz Altuna y Uria enpresak egin zituen zubi berriko lanak, 1,2 milioi euro inguruko aurrekontuarekin. Zubi berria Gerondo parean egin dute eta 35 metro inguru luze da.



DOITASUNEZKO
MEKANIZATUAK

Telleria 19, B-5
BERGARA

Tel.: 943 76 94 60
Faxa: 943 76 92 81
belmek@belmek.com
www.belmek.com




Urte berri on guztioi!




- Kooperatibistentzako banatzaile espezializatua
- Baldintza ezin hobekak

Tel.: 943 76 19 95
BERGARA



Sukalderako altzariendako osagarriak
URTE BERRI ON!!



etxetresna
elektrikoak

MAIATZA



"Euskararen erabilera bultzatzeko erronka berriei aurre egin behar diegu"

ULAIZ ULASU/ JARDUN ELKARTEA
2005-05-20



"Erritmo bizian jokatzen dira lasterketak; lehiatzea gogorra da"

AMAIA ETXEBERRIARTEUN / TXIRRIND.
2005-05-27

HILEKOESALDIA

"Tokiko Agenda 21 taldean, behin diagnostikoa egin eta gero, egin beharrekoak zehaztuko ditugu"

IGOR OIARBIDE/ UDALEKO ZINEGOTZIA
2005-05-6

HILEKODATUA

30

BAT LAGUN TOKIKO AGENDA 21 HERRIKO TALDEAN

Udalak egindako deialdiari erantzunez, 30 herritar inguru hasi ziren Tokiko Agenda 21 herriko taldean lanean.



Jendea girotuta Pazkoetan

Eguraldi kaskarrari aurre egin zioten bergarrek maiatzaren 13tik 17ra ospatutako Pazkoetan.

Azken urteotan bezala, ez da jendetzarik ibili aurtengo Pazkoetan: Hala ere, jaietan murgildu zirenek majo alaitu zituzten iragarritako ekitaldiak. Besteak beste, sekulako ikusmina piztu zuten astelehen goizean San Martin plazan antolatutako jokoek. Herri bazkarian 350 lagun inguru elkartu ziren paella erraldoia gastatzeko. Jaietako azken txanpan kaleko giroak gora egin zuen. Aste bukeran bestetan baino jende gutxiago ibili zen.

Herri giroa pizteko sortutako plataformak jaien balorazio positiboa egin zuen. Era berean, Herri Mugimenduan biltzen diren kolektiboek ere hainbat ekitaldi antolatu zituzten jaietan.

JARDUN ELKARTEAK 15 URTE

Jardun sortu zenetik 15 urte bete ziren maiatzean. Hainbat ekitaldi antolatu zituzten urteurrena ospatzeko.

URTEAGAKO LANAK

Antzuolarako errepide zaharra bi urte luze itxita izan ondoren, mendi-mazelari eusteko lanak hasi ziren.

AIPAGARRI



J.A. UNTZURUNTZAGA
Argazkizalea

Paseando por la playa argazkiari esker, Untzuruntzagak lehen saria lortu zuen San Prudentzio Argazki Lehiaketan. 600 euro eta diploma eskuratu zituen.



IÑAKI LAGUARDIA
Ikaslea

Jardunen sorreraren 15. urteurrena ospatzeko deitutako logotipo lehiaketan, Iñaki Laguardia izan zen irabazlea. 12 urtetik azpikoetan, Libe San Miguel nagusitu zen.



FERNANDO MARKINA
Arku tiratzailea

Gipuzkoako Arku Tiroketa Txapelketa irabazi zuen maiatzaren 21ean. Bestalde, veteranoen mailako Espainiako txapelketa bosgarren sailkatu zen.

ALTUBE
tailerrak SM



ESTANPAZIORAKO PIEZAK ETA TRESNAK MEKANIZATZEA ETA ARTEZTEA

Tel.: 943 76 22 74
Faxa: 943 76 04 99

URTE BERRI ON!

San Lorenzo Pol Industriala - Urarte 22
94 PK - 20570 BERGARA



EL CARMEN
GARBIKETA
ZERBITZUAK

Lantegien garbiketa eta mantenimendua
Banketxe, Ikastetxe eta Bulego
Kontserbazioak
Moketa garbiketak
Garajeen garbiketa eta mantenimendua

Urte berri on!

ALBISTEIZANZEN

► DEBAGOIENEAN **Confebaskeko buru izateko, Lazpiur**

Miguel Lazpiur enpresaburu bergararra proposatu zuen Adegik Confebask-eko presidente izateko, eta, azkenean, hark eskuratu zuen kargu hori.
2005-05-06

► EUSKAL HERRIAN **Bi ETAko kideri 27 mendeko zigorra**

Irun-Madril Intercity trenean 28 kilo lehegailu ipintzeagatik 27 mendeko kartzela zigorra eman zioten Gorka Lorani eta Garikoitz Arruarteri.
2005-05-06

► MUNDUAN **Hainbaten ezetza Europako Itunari**

Europako Batasunaren Itunak, Europako Konstituzioa izenez ezaguna, Frantziaren eta Herbehereen ezetza jaso zuen eta bertan behera geratu zen.
2005-05-29

ASTEKO BERRIAK



Aroztegiko aretoa zabalik

Aroztegiko aretoaren inaugurazioa egin zuten maiatzaren 12an, Pazkoen atarian. Abdon Juaristi zenaren margo erakusketa antologikoa izan zen hantxe ikusgai, ekainaren 12ra arte hain zuzen ere.

Inaugurazio ekitaldian, Victoriano Gallastegi alkateaz gain, Udaleko ordezkariak, Juaristiren senitartekoak eta Bearteko kideak izan ziren, besteak beste. Jende ugari elkartu zen kultur areto berriaren inaugurazioan.

Abdon Juaristiren (1948-1997) 50 bat koadro jarri zituzten ikusgai. Mertxe Lasa Abdonen alarguna pozik azaldu zen erakusketarekin. Erakusketa antologikoa aspaldiko ametsa zuela adierazi zuen.

KIROLA

Herri Arteko Plater Tiroketan bergararrak txapeldun

Bergarak irabazi du aurtengo Herri Arteko Plater Tiroketa Txapelketa. Jokatuak bost tiradetakoa lau puntuaziorik onenak hartu zituzten kontuan, eta taldea irabazteaz gain, Manuel Gimber bergararrak irabazi zuen banaka eta Aritz izan zen junior mailako onena.

KULTURA

Herriko hezkuntza izan zuten aztergai EHBEko kideek

Euskal Herriak Bere Eskolak Bergarako Hezkuntza egoeraren azterketa izenburuko txostena aurkeztu zuen maiatzaren 4an, prentsaurrekoan. Hiru hilabete eman zituzten txostena lantzen. Etorkizunerako asmoen artean, etorkinen euskalduntzea aipatu zuten EHBEko kideek.

KIROLA

Diazek eta Okiñenak irabazi zuten Bergara Hiria Txapelketa

Diaz-Okiñena bikoteak irabazi zuen Bergara Hiria Pilota Txapelketa. Maiatzaren 16an jokatutako finalean, 22-13 irabazi zieten Berasaluzeri eta Apraizi. 22 urtetik azpikoan mailan, berriz, Apezetxea eta Diez de Ultzurrun nagusitu ziren, Renobales eta Iraolari 22-13 irabazita.

ASTEKO BERRIAK

Udalak salatu egin zuen Gabilondoren aurkako erasoa

Udal Gobernuak salatu egin zuen maiatzaren 15ean Felix Gabilondo enpresak jasandako atentatu. Murinondoko enpresako zink deposituan jarritako leherkari batek eztanda egin ondoren, 15.000 litro produktu toxiko isuri ziren errepidera eta Deba ibaira.

Victoriano Gallastegi alkate-

ak gogor gaitzetsi zuen gertatutakoa: "Ekintza terrorista hori salatu nahi dugu Udaletik. Zorionez, ez da kalte pertsonalik egon, baina sustoa handia izan da".

Atentatuaren ondorioz, enpresako zaintzailea, bi ertzain eta bost erizain atenditu behar izan zituzten. /2005-05-20



Gabilondo enpresa.

GARRAIOAK

AHT Gelditu! Elkarlanaren batzarra Angiozarren

AHT Gelditu! Elkarlanaren batzarra orokorra egin zuen Angiozarren maiatzaren 7an. Abiadura Handiko Trenaren aurrean oposizioa agertu duten zenbait talde elkartu ziren egun hartan. Besteak beste, azken bost urteotan plataformak egindako lana aztergai izan zuten.

IAM

Sarpen eta hari bidezko elektrohigadura

IAMMEK

Abiadura handiko mekanizatuak

IAMCUT

Ur-zorrotada bidezko mozketak

GRUPO
IAM

Aribar industrialdea B pabilioia
San Juan auzoa 52 • 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 91 00 / Faxe: 943 76 39 45

Zorionak denoi!

iam@iam.es • www.iam.es



ORMAZABAL
FISIOTERAPIA ZENTROA

Urte berri on!

Telleria 6 bis, 11 bulegoa • Labegaraieta industrialdea
20570 Bergara

Tel.: 943 76 53 35 / 626 90 06 08

e-maila: ormazabalfisioterapia@yahoo.es

Bizkarreko mina

•
Bihurrituak

•
Tendinitisa

•
Masajeak

•
Erreuma

•
Etxeetara fisioterapia

•
Errehabilitazioa



Unai Ormazabal fisioterapeuta



*Gogor
estutzen dugu!*

Torlojugintza

Espezialitatea: era guztietako azkoinak

GABON ZORIONTSUAK!

INDUSTRIAS



Tel.: 943 76 18 05 / Faxe: 943 76 27 43 / 20570 Osintxu-Bergara / industriaszanguitu@stl.logiccontrol.es



Saunier Duval



DICOMAN S.L.

San Lorentzo, 21
20570 Bergara
Laguntza teknikorako zerbitzu
ofizial baimendua
Tf. 943 76 06 61

BEROGAILUAK, KLIMATIZAZIOA ETA UR BEROA

EKAINA



"Trikitiarekiko zaletasuna bada herrian; giro hori kalerara atera nahi izan dugu"

JON UNAMUNO / JARDUN
2005-06-6



"Gogo pixka batekin Novedades zabal dezakete. Minimoa eskatzen dugu"

ITXASO AZKARATE / TAUN-TAUN
2005-06-10



Herriko enpresak euskalduntzeko ildo nagusiak aurkeztu zituzten

Herriko enpresetan euskararen erabilera bultzatzeko planaren aurkezpena egin zuten ekainaren 21ean. Egunero urrats txikiak egin eta epe luzera helburua zera da: lanean euskaraz aritzeko enpresa mundua prestatzea. Hizkuntzaren normalizazioa eskuratzen jarraitzeko zehaztutako plan estrategikoan 14 esparru jasotzen dira eta esparru horietako bat enpresa da. /2005-06-24

HILEKOESALDIA

"Ez dut uste jendeak pentsatuko duenik igo ez delako porrot bat izan denik. Pozik gaude denok"

JUANJO ARRIETA / EIBAR TALDEA
2005-06-24

HILEKODATUA

180

IKASLE INGURU HELDUEN ESKOLAN

180 ikasle inguru aritu ziren joan den ikasturtean Irizar jauregiko Helduen Eskolan. Ekainean amaitu zuten ikasturtea.

UDAL ARTXIBOAREN ARGAZKI FONDOA

↑ Orain dela hamar urte Udala Artxiboan argazkiak biltzen hasi zirenetik, 17.000 irudi inguru erregistratu dituzte.

SAN MARTZIAL, HERRITARRENA

↓ Hainbat herritar haserre azaldu ziren, San Martzial erromeriari begira inguru hura sokaz hesituta egoteagatik.

AIPAGARRI



EMILIO MUXIKA
Idazlea



JOSE LUIS FEO
Argazkilaria



XABIER URIBESALGO
Kirolzalea

Emilio Muxika Ene-kotegik *Bergara y bergareses en el boletín de la RSBAP* liburua argitarara eman zuen. Ekainaren 10ean aurkeztu zuten, udaletxean.

Hiru dimentsiotan argazkiak ateratzen aitzindarietako bat dugu Jose Luis Feo Pol-Pol Argazki Taldeko kidea. Hainbat emanaldi egin ditu urtean zehar.

Xabier Uribesalgo 27 urteko bergararrak Lanzaroteko Iron Man proban hartu zuen parte: 3,8 km igerian, 180 bizikletan eta maratoia. 12 ordu eta 38 minutu.



Anduri

b a s e r r i a

Zorionak eta urte berri on!



Ubera auzoa 13 Tel.: 943 58 50 64 / 635 72 76 66



Estella ortopedia



Javier Estella, ortopedia teknikari tituluduna
OSAKIDETZAREKIN ETA LAGUN AROREKIN HITZARTUA

- Etixerako laguntza teknikoa
 - Kirol Ortopedia
 - Oinetakoak
 - Mastektomia
 - Neurrira eginiko plantillak
- Matxiategi 5, BERGARA. Telefona: 943 76 19 63

Gabon zoriontsuak!

UZTAILA



"Udalbatzan ez dago lapurreta politikorik. Irtenbide politikoa topatu behar da"

VISTORIANO GALLASTEGI / ALKATEA


2007-07-15



"Udalbatza ez da demokratikoa, zati bat ordezkatuta ez dagoelako"

JESUS MARI GARITANO / BA

2005-07-15



23,2 milioi euroko aurrekontua Udalak 2005erako

EAJ-EA koalizioaren eta Aralarren aldeko botoekin onartu zuten aurrekontua. EB, PSE-EE eta Alderdi Popularra aurka azaldu ziren. Udalak 18,9 milioi euroko aurrekontua izango du, Mizpialde Egoitzak 2,7 milioikoa, Bihargintzak 1,5 milioikoa eta Udal Euskaltegiak, azkenik, 391.000 euro ingurukoa. 2004koarekin konparatuz, %5,8 egin du gora aurrekontuak. /2005-07-1

HILEKOESALDIA

"Lehiakortasuna behar-beharrezkoa da gizartearen ongizatea garatu ahal izateko"

MIGUEL LAZPIUR / CONFEBASK

2005-07-13

HILEKODATUA

9.000

IBILGAILU INGURU DIRA HERRIAN

9.000 ibilgailu ingururen zerga kobratu du Udalak. 849.000 euro inguru jaso dituzte ibilgailuen zergarengatik. /2005-07-8

IPINTZAKO FUTBOL TXAPELKETA

↑ Txapelketaren 23. ekitaldia izan zen udan. 600 bat jokalaria izan ziren lehian, maila guztiak zenbatuta.

AUDITORIOAREN ZAIN

↓ Auditorioaren gaineko txostena agindu zuten. Auditorioa heldu bitartean, Zabalotegi egokitzea zen asmoa.

AIPAGARRI



NAGORE JIMENEZ
Idazkaria

Nagore Jimenez bigarren sailkatu zen Manpower erakundeak antolatutako idazkarien lehiaketan, Madrilen. Balzers-Elay enpresan dihardu.



M. KARMEN GALLASTEGI
Ekonomialaria

Ingurumen Ministerioari eskuratu zuen Mari Karmen Gallastegik. Errekurtso naturalen gainean egindako lanagatik Lucas Mallada saria jaso zuen.



MIREIA GABILONDO
Aktorea

Kutsidazu bidea, Ixabel filmatzen hasi ziren uztailean. Gabilondorekin batera, Fernando Bernues dugu filmeko zuzendaria. Euskaraz filmatu dute.



EAJ PNV

Gabon zorientsuak eta urte berri on guztioi

BULEGOA Tel. eta faxa: 943 76 47 00

TABERNA Tel. 943 76 49 33

San Pedro 4, BERGARA

**Gabon zoriontsuak
eta urte berri on
herritar guztioi!**

**eusko
alkartasuna**



www.euskoalkartasuna.org

Barrenkalea 18
BERGARA
Telefonoa eta faxa: 943 76 26 81

GA
Gazte Abertzaleak

www.gazteabertzaleak.org



**Jai zoriontsuak izan
ditzazuela!**

50 urte baino gehiagoko
esperientzia
eta profesionaltasuna
egunez egun frogatuak.

Iturgintza, gas natural,
propano eta butano eta
berogailu instalakuntzak.

Sukalde eta bainu berrizketak.
Bainuko altzariak.

ITURGINTZA-BEROGAILUAK-GASA
BAINURAKO ALTZARIAK

**Larrañaga
Eguren, B. M.**

Juan XXIII
Tf. eta Faxe 943 76 11 88
20.570 BERGARA



ALURA, S.L.



ZORIONAK DENOI!

- ▶ MEKANIZAZIORAKO ALTZAIRUA
- ▶ ALTZAIRU HERDOILGAITZA
- ▶ TORLOJU HERDOILGAITZA
- ▶ ESTANPAZIORAKO ALTZAIRU
HERDOILGAITZA
- ▶ SOLDADURA HERDOILGAITZA
- ▶ ALUMINIOA


HAITZ ITURRI 6 (P. K. 267) • 20570 BERGARA • Gipuzkoa
Tel. 943 76 02 50 Faxa. • 943 76 03 15 • e-maila: alura@alura.es • webgunea: www.alura.es



AZKARATE aroztegia



Arotz lanetan behar duzun guztia



parket flotatzailea

- Ateak
- Leihoak
- Horma-armairuak
- Tarimak
- Parketak
- Sukaldeak



ABUZZTUA



"Emakumea izan da beti baserria aurrera atera duena"

MAITE ARISTEGI / BASERRITARRA
2005-08-19



"Taldeak joko ikusgarria, futboleko egitea nahiko nuke"

JOSU ZUBIA / BERGARAKO ENTRENA.
2005-08-30

HILEKOESALDIA

"Ameriketako Estatu Batuetara joandako euskaldunok familia moduko bat ginen"

PEDRO ANDRINUA / ARTZAIN IBILIA
2005-08-30

HILEKODATUA

359

ZERRENDA LOKATZAREN TOURREKO PORRAN

359 zerrenda jaso zituzten Lokatzakoek Tourreko porran. Antxon Hernandez gazteak irabazi zuen lehen saria.

Atrás Adelante Detener Actualizar Página principal Autorrelleno Imprimir Correo

Dirección: <http://www.bergara.net/News>

BERGARAKO UDALA

Bergara | Udala | Turismoa | Helbideak | Kirolak | Albisteak | Egunetgia

ALBISTEAK Hemen zaude: Albisteak

Jaso albisteak e-postaz

XML XML feed-a euskaraz

XML Feed XML en castellano

Albisteak

2005-09-21 / 14:55

Garabi-kamioi gidari lanposturako azterketa teorikoko emaitzak

Bergarako Udalak garabi gidaria eta obra eta zerbitzuetako peoi espezialista kontratatzeke, atzo, irailak 20, egindako azterketa teorikoko emaitzak kaleratu ditu.

TURISMO BULEGOA, BISITARIEN ZERBITZURA

↑ Azken urteotan ohikoa denez, bereziki kanpotik etorritako bisitariari zuzenduta turismo bulegoa zabalik izan zen.

KANPOKO IGERILEKURIK GABE

↓ Abuztuan Bergaran geratutako herritarrek ezin izan dute kanpoko igerilekuekin gozatu aurtien ere.

AIPAGARRI



AITOR GONZALEZ
Aktorea



ANDER MUGURUTZA
Pilotaria



MIKEL LASKURAIN
Aktorea

Antena 3 telebista kateko *Los hombres de Paco* telesaila grabatzen hasi zen abuztuan. Inspektore papera hartuko du. Aurretik *Goenkalen* aritutakoa da.

Apraizekin bikotea osatuz, Antiguoko Pilota Txapelketa eskuratu zuen abuztuan 28an. Lasari eta Bengoetxeari 22-11ko emaitzarekin irabazi zieten.

Montxo Armendarizek zuzendutako *Obaba* filmean hartu zuen parte. Zinemaldia zabaldu zuen Atxagaren eleberrian oinarritutako filmak.

Hainbat berrikuntza Udalaren webgunean

Abuztua ezkerro www.bergara.net duzue Bergarako Udalaren webgunearen helbidea. Webguneko hobekuntzen artean hauek aipa daitezke: turistei zuzendutako informazioa ingelesez jasotzeko aukera, udalbatzaren erabaki garrantzitsuenen laburpena eskuragarri dago orain eta, era berean, hiritarren komentarioak jasotzeko webgune-postontzia jarri dute.



Gabon zoriontsuak guztioi!



Goiauzoa 22 • 943 76 35 06

Eraikuntza • Altzariak



Aroztegia • Enbalajeak
www.euskalnet.net/ipinari

MADERAS IPIÑARRI, S.L.

- INSIGNIS pinua zerratu eta lantzen dugu sektore hauendako: altzariak, eraikuntza, aroztegia eta enbalajeak.
- ALERTZEA, DOUGLAS IZEIA, HARITZA eta beste batzuk ondorengo sektoreendako: birgaitzeak, eraikuntza eta aroztegia.

Ibarra z/g • 184 posta-kutxa
20570 BERGARA

Tel./Faxa: 943 76 15 93
ipinari@euskalnet.net

IRAILA



"Lan profesionala izateak gauzak erraztu egiten ditu neurri handi batean"

ASIER ALTUNA / ZINEMA ZUZENDA.
2005-09-20



"Bergarako txapelketa irabazteak esanahi berezia du guretzat"

MAITE LAZKANO / DANTZARIA
2005-09-12

HILEKOESALDIA

"Langileak dauden lekuan egotea gustatzen zait. Mutilek ez badute oporrik hartzen, nik ere ez"

MIGUEL LAZPIUR / CONFEBASK PRES.
2005-09-25

HILEKODATUA

22

TALDE ARETO FUTBOLEKO TXAPELKETAN

Labegaraietako txapelketaren 20. ekitaldia hasi zen irailaren 24an. 22 talde arituko dira lehia udaberria bitartean.



Goenkaleko urbanizazio lanak egiteko aurrekontua onartu zuten

Udalbatzak bi proiektu adjudikatzeko lehiaketa deitzea onartu zuen irailaren 12an. Alde batetik Goenkalea eta kantoiak urbanizatzea onartu zuten eta bestetik eraikin aipagarrienetan eta kaleetan argiteria jartzea adostu zuten. Lanon aurrekontua milioi bat euro inguru da. Goenkaleko urbanizazioa Artekalen eta Arruriagan egindako lanen jarraipena izango da. /2002-09-16

SAN MARTIN JAIETAKO AZOKA ETA BAZKARIA

San Martin jaien barruan antolatutako azokak eta herri bazkariak giroa piztu zuten.

ZABORRA HERRIKO HAINBAT TOKITAN

Hainbat tokitan gainezka ziren edukiontziak ez husteagatik haserre azaldu zuten zenbait herritarrek.

AIPAGARRI



PEDRO ANDRINUA
Artzain ibilitakoa

Domingo eta Emilio anaiekin batera, omenaldia jaso zuen irailaren 4an Legazpin, Gipuzkoako Artzain Egunean. Hirurak Idahon ibili ziren artzain.



JOSE MARI ZEZEAGA
Pilotaria

Natalio Juaristi, Bergarako Odol Emailen Elkarte eta Alai Taldearekin batera, Erreileno eta Tostoiaren kofradiakide izendatu zuten Zezeaga irailaren 18an.



ESTEPAN PLAZAOLA
Euskal filologoa

Badihardugu elkar-teak kaleratutako *Ahozko jarduna hobetzeko proposamenak* liburuaren egileetako bat dugu. Irailaren 21ean aurkeztu zuten lana.

Etxebizitzen, etxabeheen eta garajeen eraikuntza

ORTUIBAR SM

PROMOZIOAK

Ibargarai 18 BERGARA 943 76 11 18



zumelaga
J A T E T X E A

Gabon zoriontsuak izan ditzazuela denok!

San Antonio 5 BERGARA • 943 76 20 21

63 urte zuen zerbitzura!

ALBISTEIZANZEN

► DEBAGOIENEAN

**'Aupa, Etxebeste!',
Donostian estreinatu**

Aupa, Etxebeste! Asier Altunaren filma Donostiako Zinemaldian estreinatu, eta ikusleen saria irabazi zuen. Euskal Herri osoan arrakasta handia izan zuen.
2005-09-22

► EUSKAL HERRIAN

**Bi hildako etxe baten
sutean, Baionan**


Baionako alde zaharreko etxebizitza bat erre egin zen, eta bi lagun hil eta 11 zauritu egin ziren. Inguruko hiru eraikin hustu egin behar izan zituzten.
2005-09-19

► MUNDUAN

**IRAK armak utzi zituen
35 urte ondoren**

Erresuma Batuen aurkako 35 urteko borrokaren ondoren, Irlandako IRA erakundeak armak behin betiko utzi zituen.
2005-09-26

KULTURA



**'Aupa Etxebeste!'
filmaren arrakasta**

Joan den urtean neurri handi batean Bergaran filmatu ondoren, Donostiako Zinemaldiaren barruan estreinatu zuten *Aupa Etxebeste!* filma irailaren 22an. Estreinaldiak sekulako ikusmina piztu zuen, aspaldian egin den euskarazko lehen filma izan baita Telmo Esnalek eta Asier Altuna *Kixi*-k zuzendutakoa. Jaurlaritzako hainbat ordezkari (Juan Jose Ibarretxe Lehendakaria tartean) ere izan ziren Kursaalera estreinaldian.

Filmak harrera beroa jaso zuen kritika zein ikusleen partetik. Ikusleen Saria eskuratu zuen Donostiako 53. Zinemaldian eta Euskal Herriko zinema aretoetan filmik ikusienetakoa izan zen udazkenean.

KIROLA

**Unai Perez de Arenatza
eta Unai Beitia,
Baghiratira bidean**

Unai Perez de Arenatza eta Unai Beitia bergarar mendizaleak Indiarra abiatu ziren irailean, Baghirati mendiko (6.454 m) paretak eskalatzeko asmoz. Kataluniako beste hiru lagunekin batera Estel impossible deritzon bideetik igotzen saiatzea zen euren asmoa. /2005-09-16

HEZKUNTZA

**Bergarako
hezkuntzaren gaineko
gidaliburua kalean**

Udaleko Hezkuntza Zerbitzua- ren gidaliburua aurkeztu zuten irailaren 20an. Aipatutako gidan, herriko ikasle, irakasle eta gurasoendako interesgarriak diren hezkuntza jarduerak eta zerbitzuak jasotzen dira. Gidaliburuak 68 orrialde ditu. 1.000 ale kaleratu dituzte.

OSASUNA

**Laguntzaileak lortzeko
deia egin zuen Agifes
elkartek**

Gaixo psikikoen eta haien familiarterkoen Agifes elkarteak laguntzaileak lortzeko deia egin zuen irailean. Agifes elkarteak 2004ko urtarrilean zabaldu zuen bulegoa Irizar jauregiko lehen solairuan. Besteak beste, gaixoen senideei aholkularitza zerbitzua eskaintzen die Agifesez.

KULTURA

**Maite Lazkano eta Asier Ena
dantzariak nagusi Bergaran**

Maite Lazkano eta Asier Ena dantzari bergararrak irailaren 9an jokaturako Moises Azpiatzuren omenezko Dantza Txapelketan nagusitu ziren. Hamar bikotek hartu zuten parte San Martin plazan jokaturako saioan.

Aurretik, irailaren 4an,

Donostiako Konstituzio plazan izandako txapelketan nagusitu ziren Asier eta Maite. Txapela eta zapiatz gain, garaikurra eta 350 jaso zituen bikote bergararrak. Aitzol Ena bergararra 3.a izan zen Miren Illarreta donostiarrarekin bikotea osatuz.



Asier eta Maite bikain ibili dira aurten.

PRESOAK


**Antxon Sasiainen
aldeko mozioa onartu
zuen udalbatzak**

Antxon Sasiainen aldeko mozioa onartu zuen udalbatzak irailaren 26an. Etxerateg aurkeztutako mozioa EAJ-EA eta Aralarren botoekin onartu zen. Urriaren 3an kartzela zigorra bete zuen Sasiainek Frantzia. Haren askatasuna eta estraditua ez izatea eskatu zuen Udalak.

**Txurigo
Jatetxea**

Osintxu auzoa - Bergara
Tel.: 943 76 48 63

Gabon zoriontsuak herritar guztioi!



J. Alberto Gorosabel Mendizabal doktorea



- Odontologia orokorra
- Ahoko zirurgia
- Inplanteen zirurgia
- Ortodontzia

Aseguruak: LAGUN ARO
AEGON
PADI Urtarrietik aurrera
(Osakidetza umeendako duen zerbitzua)

ZORIONAK!

Tel.: 943 76 56 88
Fraiskozuri 5A, I-D. BERGARA

URRIA



"Entrenatzaileak lortzea da daukagun arazorik handiena"

DAVID URBINA / SASKIBALOI SAILA
2005-10-21



"Tabakorik gabe plazer txikiekin berdin-berdin gozatu daiteke"

CLEMENTE GARCIA / IRAKASLEA
2005-10-7



Araztegia egiteko lanak hasi zituzten Mekolalden

Deba ibaiako saneamendu sarearen barruan, araztegia egiten hasi ziren Mekolalden. Amenabar enpresak dihardu urriaren hasiera ezker. Mekolaldeko araztegiak Bergara, Antzuola eta Elgetako sareko urak jasoko ditu etorkizunean. Jaurlaritzako Ingurumen Sailak egingo ditu lanak, 12,7 milioi euroko aurrekontuarekin. Mekolalde Dorrea berriro egingo dute, bulegoak han kokatzeko.

HILEKOESALDIA

"Aretxabaletara errepidez beste denbora tardatzen da autopistaz Donostiara joaten"

JOSE ANGEL MIKEO / MUNDUKIDE
2005-10-14

HILEKODATUA

200

KORRIKALARI SORALUZE-BERGARA LASTERKETAN

Soraluze-Bergara lasterketaren lehenbiziko ekitaldian 200 partaide izatea lortu zuten Antxintxika taldekoek.

ERRETIRATUEN KULTUR HAMABOSTALDIA

↑ Bake amets lelopean, Antzuolako eta Bergarako erretiratuek Kultur Hamabostaldiaren 9. ekitaldia antolatu zuten.

'AUPA ETXEBESTE!', BERANDU

↓ Inguruko herri guztietan eman ondoren iritsi zen filma Bergarara. Areto egoki baten faltan, pilotalekura gainera.

AIPAGARRI



MARIANO FERRER
Kazetaria

Erretiratuen Kultur Hamabostaldiaren barruan, Bakea, gaur eta hemen izenburuko hitzaldia egin zuten Mariano Ferrerrek, urriaren 26an, Miguel Altunan.




BENITO CANTERO
Argazkizalea

Benito Cantero bergarra eta Fernan Oregi soraluzetarra izan genituen San Martin argazki rallyko irabazleak. 20 bat lagunek hartu zuten parte.



NAGORE NARBAITZA
Hezkuntza teknikaria

Udaleko Hezkuntza teknikari lanetan aritza Bergaran. Berrizkoa da Nagore. Haren lana da Udalak hezkuntza arloan egiten duen guztia koordinatzea.




ARATZ

Zurradero 6, behea
Tel.: 943 76 70 67 poltsikokoa: 607 48 71 19

ALBAITARI KLINIKA

Aratzek gabon zoriontsuak opa dizkie bezero guztiei



Kalebarren instalazioak SM

- Proiektuak
- Instalazioak eta mantenimendua
- Gasa
- Berogailua
- Aire girotua
- Iturgintza lanak

Aurrekotuak konpromesorik gabe

Bidekurutzeta 31 behea
Tel.: 943 76 11 67 BERGARA
E-mail.: kalebarren@inicia.es

Tel.: 943 75 23 07 SORALUZE
944 75 99 60 DEUSTO

GABON ZORIONTSUAK GUZTIO!!

ALBISTEIZANZEN

KULTURA

► DEBAGOIENEAN
**Kilometroak 2005
Aretxabaletan**

Aretxabaletan egin zuten Kilometroak jaialdia, Arizmendi ikastolak antolatuta. 100.000 lagun inguru etorri zen ikastolen festara.
2005-10-02

► EUSKAL HERRIAN
**Hilda aurkitu zuten 26
urteko neska bat**

Aintzane Garai, 26 urteko barrikarra, hilda agertu zen Bakion. Ikerketak aurrera egin ahala, 24 urteko mutil-lagun ohiak hil zuela aurkitu zuten.
2005-11-17

► MUNDUAN
**Pakistanen 20.000
hildako lurrikaran**

Pakistanek 1935az geroztiko lurrikara bortitzena izan zuen. 20.000 lagundik gora hil ziren, eta 42.000 inguru zauritu ziren.
2005-10-08



'Aupa Etxebeste!' filma eskaini zuten Udal Pilotalekuan

Udalak antolatuta, Aupa Etxebeste filma ikusi ahal izan genuen Bergaran. Zinema aretorik ezean, Udal Pilotalekuan lau emanaldi egin zituzten. Lau emanaldiengatik 15.000 euro ordaindu zituen Udalak. Jende ugari joan zen filma ikustera. Era berean, herrian zinema emanaldiak aldarrikatzen diharduen taldeak protesta ekitaldia egin zuen, kultur areto egokia eskatzeko.

KULTURA

**Lausardi abesbatzak
'Afrika' ikuskizuna
eskaini zuen**

Bergarako Orfeoia eta Arrasateko Goikobalu abesbatzak osatutako Lausardi abesbatza sinfonikoak Afrika ikuskizuna eskaini zuen urriaren 22an Udal Pilotalekuan. Donato Goienetxek konposatutako lanak harrera beroa jaso zuen. 100 lagun inguruk hartu zuten parte.

KIROLA

**200 partaide
Soraluze-Bergara
lasterketan**

Ekaitz Osa oñatiarra eta Libe Totorika izan ziren urriaren 12an jokaturako Soraluze-Bergara krosaren lehen ekitaldiko irabazleak. 200 korrikalarik hartu zuten parte eta euria izan genuen protagonistetako bat. Antxintxika taldekoak pozik zeuden jasotako erantzunarekin.

OSOKO BILKURA

**Udal zerga gehienak
%3,5 igoko dituzte
2006an**

Urriaren 24ko osoko bilkuran, 2006. urterako udal zergen igoe-ra %3,5ean finkatzea onartu zuten EAJ-EAk eta Aralarrek. Edoze-lan ere, uraren, zaborraren eta estolderiaren erreziboak %5,1eko igoe-ra izango du. PP eta PSE-EE kontra azaldu ziren egindako bozketan.

GIZARTEA

**26 lagun etxeko ardurak
trukatzeko ikastaroan**

Hamalau emakumek eta hama-bi gizonek hartu zuten parte etxeko ardurak trukatzeko ikastaroan. Ikastaroa urriaren 25ean hasi eta abenduaren hasieran amaitu zen. Emakumeek iturgintza, elektrizitatea eta briko-lajea ikasi dituzte; gizonezkoak, berriz, arropa lisatzen eta jos-

ten eta zartagin eta lapiko artean aritu dira. Beharrezko tre-beziak eskuratuz, sexu estereotipoak apurtzea da ikastaroaren helburu nagusia. Udaleko Gizarte Zerbitzuak antolatu zuen ikastaroa, laugarren urtez. Martokan eta erretiratuen egoitzan izan dira eskolak.



Hamalau emakumek hartu dute parte.

GIZARTEA

**Bergarako 46 odol
emaile omendu
zituzten Arraten**

Debagoieneko eta Debabarreneko odol emaileek urteko ospakizuna egin zuten urriaren 23an Eibarren, Arraten. Bergarako 46 odol emaile saritu zituzten, 25, 40 eta 50 odol ateraldi egin dituztenak, hain zuzen. Batez beste 1.400 ateraldi egiten dituzte Bergaran urtero.

LAGUN GARAJEA



Tailer profesionala

Mekanika orokorra

ZORIONAK
GUZTIOI!

Santalaitz 3. Bergara. Tel.: 943 76 11 20

ETXE BERRIA

ZORIONAK ETA
URTE BERRI ON!

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA-OPARIAK

Erosi zure oparia Etxeberrian eta 1.500 eurotako saria irabazi

Bidekurutzeta 16. BERGARA. Tel. 943 76 23 94 - 76 12 65

AZAROA



"Bergaran emandako urteetatik oroitzapen onak besterik ez daukat"

IGNACIO OREGI / FUTBOLARI OHIA
2005-11-18



"Familia eta lagunen bisitak beharrezkoak dira egoiliarrendako"

ORBAIZ FORMOSO / MIZPIRUALDEKOA
2005-11-25



Arau subsidiarioen aurrerapena onartu zuen udalbatzak

Arau subsidiarioen aurrerapena onartu zuen udalbatzak azaroaren 21ean. Bergarako lursailen antolaketarako proposamena jasotzen da bertan. Xabier Ieregi udal arkitektoak egin zuen azalpena udaletxeko osoko bilkuren aretoan, azaroaren 29an. Ehun bat lagun elkartu ziren. Erakusketa ere jarri zuten udaletxean. Arauen prozesu osoa 2006. urtean amaitu nahi dute.

HILEKÓESALDIA

"Ehunka euskal herritarren antzera, Espainiaren eta Frantziaren jazarpena pairatzen ari gara"

IÑIGO ELKORO / 18/98 SUMA, AUZIPE.
2005-11-18

HILEKODATUA

552

ETORKIN DAUDE BERGARAN ERROLDATUTA

552 etorkin daude erroldatuta Bergaran. Udaleko Gizarte Sailaren arabera, etorkinen kopuruak %17 egin du gora 2005ean.

PILOTA SAILARI OMENALDIA

↑ Bergara KEko pilota sailari omenaldi beroa egin zioten Oxirondo eta Pertxa elkarteek eta Udalak azaroaren 12an.

SAN ANTONION, ZUHAITZAK BOTA

↓ San Antonioko biribilgunea egiteko botatako bi zuhaitzengatik kexatu ziren hainbat herritar. /2005-11-18

AIPAGARRI



JOSE RAMON LAZKANO
Udal Bandako kidea

Jose Ramon Lazkano 50 urte egin ditu Udala Musika Bandan. Santa Zezilia eguna ospatzeko konzertuan omenaldia egin zioten Bandako kideek Lazkanori.



TORIBIO JAUREGI
Argazkilaria

Toribio Jauregi Altzetaren (1896-1969) *Pilotazale bat kameraren atzean* argazki erakusketa zabaldu zuten Aroztegi aretoan, azaroaren 11n.



REYES AZKOITIA
Pilota entrenatzailea

Udalak, Oxirondo elkarteak eta Pertxak omenaldia egin zioten Bergara KEko pilota sailari, azaroaren 12an. Reyes izan zen protagonista nagusietako bat.

YON BILBAO S.M.

Urte berri on!

• ERA GUZTIETAKO INSTALAZIOAK • BERO AKUMULADOREAK • KOMERTZIO ETA ETXEETARAKO MEGAFONIA
• ATEZAIN ELEKTRONIKO ETA BIDEO-ATEZAINAK • SEGURITASUN SISTEMAK • ARGIKUNTZAN ESPEZIALISTAK
ESPERIENTZIA LUZEA

Tailerra eta erakustokia: A. Fleming 11. Tf eta faxa: 943 76 28 05 • Etxeko helbidea: Irizar 3. Telefonoa: 943 76 26 32




Gabon hauetan ere...

Polas

*Leure
Opari Benda*

Barrenkale 27 • Tel.: 943 76 46 48

UNO de 50



IRURAK MARGOAK

DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak
Moketa eta sintasola
Iztuku esponjatua

Paper pintatuak
Harea zorrotada
Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara

Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

Zorionak
eta urte
berri on!

Zorionak eta urte berri on guztioi!



ANDUZV

ANDUZU S.L.

▶ **Grua zerbitzua**

▶ Zerbitzu publikoa


▶ Era guztietako kargak

ELUSU ERAIKUNTZAK



- Era guztietako eraikuntzak
- Erreformak
 - Teilatuak
 - Sukaldeak
 - Bainuak
 - Fatxadak

Baserri eta jauretxeen
erreformetan
eta txaleten eraikuntzan
espezializatuta gaude



Gabon zoriontsuak guztioi!

Arruriaga 5
943 76 45 50 Faxa: 943 76 51 45

Mizpildi 8
943 76 12 32
BERGARA

Matxiategi 1
943 76 72 73
BERGARA



MIZPILDI



OKINDEGIA

Jai zoriontsuak guztioi!

ALBISTEIZANZEN

► DEBAGOIENEAN **RIP taldearen DVDa argitaratu zuten**

RIP taldearen gainera DVDa eta CDa argitaratu zuten Goienako Iker Barandiaran eta Iban Toledok eta Gaztelupeko Hotsek.

2005-11-03

► EUSKAL HERRIAN **Udazkeneko lehenengo elurtea bota zuen**

Udazkeneko lehenengo denboralea izan zen Euskal Herrian. Hotz handia eta elurra izan ziren, eta Herrera, Urduña eta Gatzagako mendateak itxi egin zituzten.

2005-11-26

► MUNDUAN **Mediterraneoko Gailurraren porrota**

Mediterraneoko Gailurra asmo nagusiak bete gabe itxi zuten: arabiar lider asko ez ziren joan eta ez zen lortu terrorismoaren aurkako akordio garbirik.

2005-11-29

HEZKUNTZA



'Kaleko hezitzaileak' nerabeei zuzendutako programa abian

Udaleko Ongizate Zerbitzuak 11-17 urte bitarteko nerabeei zuzendutako *Kaleko hezitzaileak* programa jarri du abian. Debagoienez esperientzia aitzindaria da Bergaran martxan jarritakoa. Familia edo eskola nekez heltzen diren esparrutara heltzea da programaren helburuetako bat. Gazteen beharrak detektatzea eta kultur edo kirol jardueratan euren inplikazioa lortu nahi dute.

KIROLA

Roberto Zurro, herriko onena Donostiako maratoian

Bergarako 25 lagunek hartu zuten parte azaroaren 20an jokaturako Donostiako maratoian. Maila bikaina azaldu zuten guztiak. Roberto Zurro izan zen Bergarako onena, 2:36:49 denborarekin. Johnstone Chebii kenyarra eta Maria Jose Pueyo aragoarra izan ziren irabazleak.

HIRIGINTZA

San Antonioko biribilgunea egiteko bi zuhaitz bota zituzten

San Antonion biribilgunea egiteko lanak hasi ziren azaroaren hasieran. Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailak ekin zien lanei, San Antonioko babes ofizialeko etxebizitzaren urbanizazio lanen barruan. Botatuko bi platanondok zeresana eman zuten. /2005-11-11

GIZARTEA

Bergaran 552 etorkin daude erroldatuta

Udaleko Gizarte Sailak egindako ikerketaren arabera, 552 etorkin daude erroldatuta Bergaran. Etorkinen kopuruak %17 egin du gora azken urtean. Etorkinen artean pakistandarrak dira nagusi: 104. Aurten etorritako etorkinen gehiengoa Boliviatik etorritakoa da: 33 lagun etorri dira.

AZPIEGITURAK

Igerilekuko eraikin nagusiko lanak, epeen barruan

Antzibar SL enpresako iturriek adierazitakoaren arabera, Agorringo igerilekuko lanak martxa onean doaz eta agindutako epeak betetzen ari dira. Barruko igerileku berria 2006ko ekainean zabaltea da Udalaren asmoa. Azken fase baten kanpoko igerilekua egingo da. /2005-11-11

HIRIGINTZA

Seminarioko patioa erosi du Udalak, parkinga egiteko

Bergarako Udalak Seminarioko patioa erosi dio Ekonomia eta Ogasun Ministerioari. Azaroaren 7ko udalbatzan onartutakoaren arabera, Udalak 741.000 euro ordainduko ditu. Hasieran, Udalak patioa (4.822 m²-koa) 235.456 eurotan erosi nahi zuen. Hala ere, Ministerioari ez zitzaion

nahiko iruditū. Horrela, 235.456 euro dirutan eta gainerakoa patrimonioan ordaintzea adostu zuten. Beraz, 505.543 eurotan baloratutako 24 garaje emango dizkiote Ministerioari.

Oraindik ez dago jakiterik eraikiko duten parking hori nolakoa izango den.

ETXEBIZITZA

Hutsik diren etxeak merkaturatzeko hitzarmena

Javier Madrazo Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburuak eta Victoriano Gallastegi alkateak sinatutako hitzarmenaren arabera, hutsik dauden etxebizitzak merkaturatu eskuragarri izateko urratsak emango dituzte. Suradesak kudeatuko du Bizigune programa Debagoienez.



MARGOLANAK MARGOZKOSTATZEA

- Markoztatzeak:
 - Olio-pinturak
 - Laminak
 - Gurutze-puntua
 - Argazkiak
- Ispiluak Neurrira
- Mota guztietako artisautza
- Kristala



Espoloia 4 - Tel.: 943 76 11 68 - BERGARA



metagra

Gabon zoriontsuak eta urte berri on herritar guztioi

Amillaga 22 P. K. 79
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 13 48
Faxa: 943 76 50 34

e-maila: mse@metagra.com • www.metagra.com



Ondo jan eta gero...

ibili saltsero.

Urte berri on!

Ariznoa

Avenida

Depor

Etxagi

Eusebio II

Frontoia

Iraho

Irish Pub Galway's

Kortazar

***Mitor
garagardotegia***

Oilagorra

Sirimiri

Tartufo

Usoa

Zumbeltz

ABENDUA



"Familia guztiarendako ikuskizun modernoa da 'Seussen mundua'"

VALEN MOÑUX / ZUZEN. ARTISTIKOA
2005-12-5



"Sendagaiak ondo erabiltzen erakutsi behar zaio jendeari"

IÑIGO ZABALA / FARMAZIALARIA
2005-12-7

HILEKOESALDIA

"Herriak izaki bizidunak dira; garatzen jarraitzeko bideak ireki nahi ditugu arau subsidiarioetan"

XABIER IEREGI / UDALEKO ARKITEKTOA
2005-12-2

HILEKODATUA

130

LAGUN 'SEUSSEN MUNDUA' IKUSKIZUNEAN

Orfeoiak Bilbon estreinatu duen *Seussen mundua* ikuskizunean 130 lagun inguruk hartuko dute parte.



1960ko hamarkadako irakasleak omendu zituzten Euskararen Egunean

Euskararen irakaskuntzan aitzindari izan ziren Bergarako hamaika emakume omendu zituzten abenduaren 3an ospatutako Euskararen Egunean. Pilare Muxika, Maite Agirrebeña, Izaskun Jimeno, Edurne Arzelus, Lide Muxika, Maria Victoria Arizmendi, Lupe Olabarria, Mariasun Lete, Amaia Azkargorta, Pili Fernandez eta Kontxita Maiztegi zena omendu zituzten.

BUBISHER ELKARTEA, SAHARAREN ALDE

↑ Sahararen aldeko Bubisher elkarteak elikagaiak batzeko kanpainari ekin zion Gabonen atarian.

HAURTZAINDEGI PUBLIKOAREN ZAIN

↓ San Martin eskolako gurasoek haurtzaindegia aldarrikatu zuten berriz. 2006ko irailean abian egotea da asmoa.

AIPAGARRI



J. A. GURRUTXAGA
Argazkizalea

Jose Agustin Gurrutxagak lehen saria irabazi zuen Kiroldi Fundazioak antolatutako IV. Argazki Lehiaketan, koloretan. 500 euro eta trofeo jaso zituen.



JABIER RETEGI
Eusko Ikaskuntza

Bigarren aldiz, Eusko Ikaskuntzako presidente izendatu zuten abenduaren 17an. Botoen %80 jaso zuen Retegik, Jesus Mari Larrabalari nagusituz.



JUANJO LOPEZ
Argazkizalea

Aloñako mendi sailak antolatutako lehiaketan saritu zuten. *Mendia eta natura* atalean lehen saria irabazi zuen Juanjok, *Croda da lago* argazkiarekin.



ROTULOS ZABALETA

Mota guztietako errotuloak

Gabon zorientsuak guztioi!

Tel.: 943 76 57 34 • Faxa: 943 76 58 53 • Poltsikokoa: 689 54 81 83 • BERGARA
r-zabaleta@euskalnet.net

Ibargarai Hiribidea, 20 - Tel. 943 769 458 - 20570 - BERGARA

Aukera guztiak poltsikoko telefonoetan eta interneten

Pcphone21

Euskaltel -en Banatzaile Ofiziala

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko abenduaren 30a / 270. zenbakia

2005
urteari
begiratu
ANTZUOLA



*Antzuolako Udalak
gabon zoriontsuak eta
urte berri on opa dizkizue
herritar guztioi!*



Antzuolako udala
www.antzuola.com

ESPEZIALISTA BATEN BERMEAREKIN

GOIZPER

 KOOP. ELK.

MATABI IHINZTAGAILUAK

- NEKAZARITZAN, LORATEGIAN, INDUSTRIAN ETA ETXEAN TRATAMENDUA EGITEKO IHINZTAGAILU ETA HAUTSEZTAGAILUAK.

GOIZPER TRANSMISIOAK

- ENBRAGEAK, BALAZTAK
 - PNEUMATIKOAK
 - HIDRAULIKOAK
 - MEKANIKOAK
 - ELEKTROMAGNETIKOAK
- ESPEKADUN ETENKAKO BIRAGAILUAK
- ESPEKA BEREZIAK

ANTIGUA 4 - 20577 ANTZUOLA (Gipuzkoa)
211 POSTA KUTXATILA - 20570 BERGARA
TEL.: 943 786000
FAXA: 943 766008 - 943 787095
E-MAILA: goizper@goizper.com
Web gunea: www.goizper.com





HIRU

ARROZTEGIA

K21
KALITATEA
Supera Espetatu N° 104/05
NIVEL 1

Gabon
zoriontsuak!



- ATEAK
- LEIHOAK
- ZORUAK
- HORMA ARMAIRUAK

ANTIGUA AUZOA 8 • Telefonoak: 943 76 63 59 / 678 61 50 27 / 28 • 20577 ANTZUOLA

URTARRILA



"Aurten, EHEren erronka nagusia izango da herriko osasun zerbitzua euskalduntzea"

OIER PEÑAGARIKANO
EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ
2005-01-14

HEZKUNTZA

Haurreskola hilaren 31n ireki zuten eta bost ume hasi ziren

Bost umek estreinatu zuten herriko Haurreskola berria; eurekin batera, bi hezitzailek. Urtarrilaren 31n jarri zuten abian zerbitzu hori.

Haurreskolaren inaugurazioa asteburu hartan egitekoak ziren arren, Eusko Jaurlaritzako arduradunek ez zuten etortzerik izan; azkenean, otsailaren 11n inauguratu zuten ofizialki.

Hogei umerendako tokia dago Haurreskolan: 0 eta urtebete bitarteko umeendako gelan, zortzi umerendako tokia dago; urtebete eta bi urte arteko umeendako gelan, berriz, hamabirendako. Astelehenetik egubakoitzera, 07:30etik 18:30era egoten da zabalik; dena dela, ume bakoitzak, gehienez, zortzi ordu pasa ditzake hantxe. /2005-01-28

AZPIEGITURAK

Argiteria sistema berria jarri zuten Estala futbol zelaian

Estala futbol zelaian eta harako bidean argiteria sistema berria jarri zuen Udalak. Horrela, orduetik hona edozein herritarrek dauka aukera Estalarako bideko argiak pizteko, baita futbol zelaiako bertako argiak pizteko ere.

Ordura arte kirol elkarteko kideek bakarrik zuten horretarako aukera. /2005-01-21



Edozein herritarrek piztu ahal ditu argiak.

OTSAILA



"Jende kompetentea gertu ez balitz, Haurreskola ez zen posible izango"

IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ
HEZKUNTZA ZINEGOTZIA
2005-02-25

GIZARTEA

Bost urtean 147 biztanle eta 175 etxebizitza gehiago

Otsailean jakin genituen aurreko bost urteetako datuak. Horiei begiratuta, ikus daiteke 147 biztanle eta 175 etxebizitza gehiago daudela herrian.

2001. urte hasieran 1.896 biztanle zituen Antzuolak, eta urtean-urtean gorako joera izan du, 2005aren hasieran 2.043 biztanlera iritsi arte, azkeneko hamar urteotako kopururik altuena. Bost urteotan 313 lagun etorri

dira kanpotik. Iaz etorri zen jende gehien, 121, hain zuzen ere. Herrikan kanpora joan direnak, berriz, 215 lagun izan dira.

Jaiotzek ere izan dute eraginik. Bost urteotan 83 ume jaio dira Antzuolan. Jaiotza kopuru altuena 2003an izan zen; 21 ume jaio ziren.

Etxebizitza berriak eraiki izanak ere izan du eraginik; 175 eraiki dituzte. /2005-02-25



"Herritarrekin harreman polita izan dut dendari esker"

JUANITA IÑARRA
DENDARIA
2005-02-04

HIRIGINTZA

Sinadura bilketa egin zuten etxebizitzak eraikitzearen aurka

Otsaileko azkeneko asteburuan sinadura bilketa egin zuten, Udalak diseinatutako hainbat proiekturen aurka. Plaza gorrian 50 etxebizitza eraikitzeke asmoa zuen orduan Udalak. "Herritarren hitza entzun dezatela" eskatu nahi zieten antolatzaileek Udalari. Azkenean, guztira, 543 sinadura batu zituzten.

ERREFERENDUMA

Europako Konstituzioari ezetz esan zion Antzuolak

Europako Konstituzioaren gainean Espainiako Gobernuak planteatutako erreferendumean, Konstituzio horri ezezkoa eman zion Antzuolak.

Botoa eman zutenen %52,8k (399) ezetz esan zuten; 334 lagunek, berriz, baietz. Abstentzioa oso handia izan zen, %56,2, hain justu ere. /2005-02-21

BIZTANLERIA

Bost urteko epean 147 biztanle eta 175 etxebizitza gehiago

Udaleko datuen arabera, 2001ean 1.896 biztanle zituen herriak; gorako joera izan du kopuru horrek, 2005. urte hasieran 2.043 biztanlera iritsi arte. Hamar urteotako kopuru altuena da hori. Eragina du horretan, besteak beste, etxebizitzak eraikitzeak; bost urteotan 175 eraiki dituzte. /2005-02-25

KIROLA

Kirol elkarten artean 9.000 euro banatu zituen iaz Udalak

Udalak urtero banatzen ditu dirulaguntzak herriko kirol elkarten artean. 2004. urtean, 9.016 euro banatu zituen. Iaz, gainera, kirolariek osasun azterketak egiteko kanpaina abian jarri zuen Udalak eta 1.725 euro bideratu zituen horretarako. Osasun azterketarako 69 herritarrek eskatu zuten laguntza. /2005-02-04

Kontuola

Irizar Jauregia • Barrenkalea, 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: kontuola@goiena.com

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
KAZETARIA
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga

LEGE-GORDAILUA
SS1179/02
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

KONTUOLA
Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



ELAY Taldea

Zorionak eta urte berri on!

Itzar
LIBURU DENDA
ESTANKOA

Zorionak guztioi!

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tf. 943 76 60 62


Ainhua
drogeria

ONDO IBILI GABONETAN!

Kalebarren 13, ANTZUOLA

OKINDEGIA
GOXOTEGIA
DAZTAKETA
KROISSANTEGIA

ONDO PASAU
GABONETAN!



ALTZARTE

Kalebarren 18. 943 76 62 94

- ▶ margo orokorra
- ▶ margo dekoratiboa
- ▶ margo industrialia
- ▶ umeentzako dekorazioak
- ▶ erreformak orokorrean

margolan
margoak

Sagasti auzoa Z^a 5-3D
20577 ANTZUOLA - 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 62 13 / 665 733 955
687 570 777

Gabon zoriontsuak guztioi!

MARTXOA



"Ez dut uste maristok eragin handirik izan genuenik herrian"

JOSE LUIS SANTAMARIA
MARISTA
2005-03-04



"Gure joera da umeak babestea, eta heriotzaren gaia ekidin egiten dugu"

PATXI IZAGIRRE
PSIKOLOGOA
2005-03-18

ERREPIDEAK

Uzarragako zubia izango da herrirako sarrera berria

Diputazioak herri barrura sartzeko Beheko auzo pareko sarbidearen proiektua egin zuen; Udala, baina, ez zegoen proiektu harekin ados, eta martxoan aditzera eman zigutenez, hainbat batzarraren ondoren, adostasunera iritsi ziren. Horrela, Diputazioa proiektu berria egiten hasi zen.

Udaleko arduradunek adierazi zigutenaren arabera, Uzarragara joateko hartzen den zubitik eta Beheko eta Eguzki auzo-

en ostetik Lizarragara errepidea egingo dute. Errepide horren hasierako helburua zen Elay lantegira doazen kamioien eta autoen trafikoa murriztea herri barruan. Baina, ordutik hona, proiektu berriaren arabera, herri barrurako sarrera berria ere horixe izango dela azaldu ziguten. Horrela, ibilgailu gehienek Kalebarrengo zubitik pasatu beharko dute eta zubi hori egokitu beharra egingo da. /2005-03-11



Etsezuri baserriaren ondoko zubitik sartu beharko dugu herrira.

AURREKONTUA

2.460.054 euroko aurrekontua onartu zuen Udalak

Martxoko osoko bilkuran onartu zuen Udalaren 2005eko aurrekontua udalbatzarrak. 2.460.054 euro izango da guztira. Inbertsioetarako 598.171 euro bideratzea onartu zuten. Ibarre auzoko urbanizazio lanean egingo dituzte inbertsio handienak. /2005-03-18

ARROLA

Olatz Lezeta aukeratu zuten presidente

Martxoaren 17an egin zuen urteko batzar orokorra Arrola mendizale elkarteak. Hantxe, urtearen balorazioa eta urte berriari begira elkarteak dituen egitasmoak zeintzuk diren azaldu zuten. Bestalde, presidente berria aukeratu zuten: Olatz Lezeta, hain zuzen ere.

APIRILA



"Eguneko zentroa jartzea da gure erronka nagusienetako bat; Antzuola baino herri txikiago batzuek badituzte zentro horiek"

ANDONI AZKARATE
ERRETIRATUEN ELKARTEKO PRESIDENTEA
2005-04-22

AZPIEGITURAK

Erreka bideratzeko proiektua behin betiko onartu zuten


Apirileko osoko bilkuran onartu zuten behin betiko Deskarga erreka bideratzeko proiektua.

Otsailean behin-behineko proiektua onartu zutenetik martxoaren 15era arte egon zen alegazioak aurkezteko epea. Epe horretan, bederatzita talde, alderdi eta herritarrek aurkeztu zituzten alegazioak.

Hona hemen onartutako alegazio batzuk: erreka ondoan izotzari aurre egiteko moduko lur-

zorua jartzea; presa eta urgeldi txikiak egitea, arrainen bizirau-pena bermatzeko eta ingurumenaren inpaktuaren azterketa sinplifikatua egitea. Udalak Jauriaritzari egindako eskaeraren ondorioz, berriz, erreka herrian sartu aurretik, hondakin solidoak batzeko sistema jarriko dute.

Bestalde, Udaleko arduradunek adierazi ziguten Mairuaren Alardea plazan egiteko arazorik ez dela egingo. /2005-04-15



Mairuaren Alardea plazan egin ahal izango dela esan ziguten Udaleko arduradunek.

Ondo pasau Gabonak!



Gabilondo-Arregi

harategia

ABELGORRI-OKELAREN EUSKO LABELA

Kalebarren 14 ANTZUOLA Tf. 943 76 62 90

TXOMIN GARAJEA

ZORIONAK
GUZTIOI!



Mekanika orokorra

Tailer profesionala

IAT/ITVrako prestaketa

MAIATZA



"Udaberrian eta udan zaintzen ditu jende gehienak balkoiak; neguan, berriz, gehienek ez dute landarerik jartzen"

NEREA SORALUZE
LORE ETA LANDARÉETAN ADITUA
2005-05-13

Gazte mailako taldeak lehen mailara igotzea lortu zuen

Azkeneko urteotan bigarren mailan jokatu ondoren, lehenengo mailara igotzea lortu zuten AKEko gazte mailako futbol jokalariek. 2001-2002 denboraldian egon ziren azkeneko aldiz lehenengo mailan. Urte hartan jokalariek gutxiarekin geratu zen taldea eta ezin izan zioten mailari eutsi. Azkeneko hiru urteotan ondo ibili dira gazteak; aurreko denbo-

raldian, esate baterako, kopa irabazi zuten. Aurten, lehenengo mailara igotzea lortzeaz gain, liga txapelketa irabazi zuten. Maiatzaren 21ean, Idiazabal, jokatu zuten liga txapelketako finala, Donostiako Ekintza taldearen aurka, eta irabazi egin zuten. Jende mordoa joan zen Idiazabalera Antzuolatik, herriko taldea animatzen. /2005-05-27

KULTURA

Literatura sariak lortu zituzten bi antzuolarrek

Bergarako Udalak antolatutako Koldo Eleizalde Literatura lehiaketan sari bana jaso zuten bi antzuolarrek. Xabier Arantzek, bere mailan eta ipuinen atarian, lehen saria jaso zuen, *Etxeko lanak* ipuinarekin. Ana Peñalbarri, berriz, hirugarren saria eman diote, *Itzalaren beldur* lanarengatik. /2005-05-27

ATZEGI

Debagoieneko Atzegi Eguna ospatu zuten maiatzaren 28an

Aurtengo Atzegi Eguna Antzuolan ospatu zuten, maiatzaren 28an. Aurtengoa izan da egun hori ospatu duten seigarren aldian, eta 170 bat lagunek parte hartu zuten. Eguerdian harrera egin zieten udaletxean; ondoren, ibilaldia egin zuten herrian zehar eta handik bazkaltzera joan ziren, frontoira. /2005-05-27

EKAINA



"Aizpurutxoko antzuolarrek udal antidemokratikoa dute"

PATXI OLABARRIA
LANGILEA
2005-06-03




"Alardean kontatzen zaiguna legenda bat besterik ez da"

JUAN ANTONIO URBELTZ
FOLKLORISTA ETA ANTROPOLOGOA
2005-06-10

HIRIGINTZA

Hogei etxebizitza eraikiko dituztela iragarri zuten

Udaleko arduradunek proiektu sorta berria prestatzeari ekin zioten. Ekainaren 17ko osoko bilkuran, proiektu horiek aurrera eramanez ahal izateko hainbat arau aldatzea erabaki zuten. Proiektu sorta berriaren arabera, Eguzki auzoan, lehen maristen eraikina zegoen tokian, 20 etxebizitzako eraikina egingo dute; Udalak lagundutakoak izango dira etxebizitza horiek guztiak. Beheko solairuen kirol eta kultura jardueretarako lokalak egingo dituzte; 770 metro koadro izango du solairu horrek. Etxebizitzaren solairuek, berriz, 400 metro koadro. Sagastiko zelaian, bestalde, aurrez ikusten zuten baino eraikin txikiagoa egiteko asmoa erakutsi zuten; izan ere, hainbat jarduera beheko eraikinean jarriko dituzte. /2005-06-24



Udalak babestutako 20 etxebizitza eraikiko dituzte Eguzki auzoan.

DANTZA


Umeen Dantzari Eguna ospatu zuten, Oinarin taldeak antolatuta

Bergara, Arrasate, Aretxabaleta, Soraluze eta Antzuolako ume dantzariak parte hartu zuten ekainaren 12ko Umeen Dantzari Egunean. Guztira, 8 eta 15 urte bitarteko 160 bat dantzari izan genituen herrian. Antzuolako Oinarin dantza taldeak bi urtean behin antolatzen du jaiegun hori. /2005-06-10

ZINEA

'Zinea izarpean' programaren bigarren aldia

Udalak 2004. urteko udan jarri zuen lehen aldiz abian *Zinea izarpean* programa. Orduan erantzun ona izan zuela ikusita, aurtengo beste sei film eskaini dituzte frontoi txikian. Ekainaren 3an hasita, ia egubakoitz gauero film bat eskaini zuten, uztail amaierara arte. /2005-06-03



ANTZUOLAKO ALDERDI JELTZALEAK
Gabon eta urteberri zoriontsuak opa dizkizue antzuolatar guztioi

HERRIKOI ZALETASUNAREN ALDEKOAK

Arin Jatetxea

*Karta • Plater konbinatuak
Ogitartekoak • Pintxoak*

Etxeko berezitasuna: buztana eta txuleta

Enkarguak hartzen ditugu

GABON ZORIONTSUAK!
Astelehenetan itxita

Kalebarren 7 • Tel.: 943 78 62 45 • Antzuola



Urte berri on antzuolar guztioi!

Langel: Kalebarren 4
Saltokia: Herriko plaza
943 76 64 35
ANTZUOLA



Illepaindegia
Edertze aretoa


Laser bidezko depilazioa

Informa zaituz!

Gabon zoriontsuak guztioi!

Sagasti 1 z/g • 943 78 71 37 • ANTZUOLA

MUJIKA HARATEGIA



**Berezitasunak:
Etxean hazitako zekorrek eta oilaskoak**

Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

UZTAILA



"Gure lehentasuna da erregional mailako taldeari indarra ematea"

JOSE ANGEL FERNANDEZ
AKE-KO PRESIDENTEA
2005-07-22



"Nor bere eskubideen jabe izateko garaia iritsi dela uste dut"

IRAIA GABILONDO
IKASLEA
2005-07-15

ABUZTUA



"Herrialde garatuaren gauzarik txarrenak hartu dituzte indigenek: telebista, ingeles oso garrantzitsua da euren dako..."

ENEIDA ITURBE
GUATEMALAN EGON ZEN UDAN
2005-09-02

ELKARTASUNA

Saharako ume bat etorri zen Antzuolara uda pasatzera

Mahyuba izeneko zortzi urteko neskatok bi hilabeteko egonaldia egin zuen gure herrian. Tindouf-eko saharar kanpamenduetatik irteten zen lehendabiziko aldia zen berarendako. Herriko familia batekin egon zen Mahyuba: Lurdes, Migel Angel eta Mairirekin, hain zuzen ere. Debagoienerako Nubi elkartearen bitartez eta Udalaren laguntzarekin etorri ahal izan zen Mahyuba gurera. Garraioa ordaintzeko

diru laguntza eman zuen Udalak. Nubi elkartearen helburua da, bestetik, urtetik urtera, umeok etxean hartzeko familia gehiago topatzea.

Lehendabiziko egunetan ondoezik ibili zen arren, segituan moldatu zen Mahyuba herriko bizimodura; udaleku irekietan ere ibili zen. Bestalde, Lizartzan bizi duen izeba bat bisitatzeko aukera ere izan zuen Mahyubak. /2005-07-15

ELKARTASUNA

Saharako zortzi urteko neskatila izan genuen herrian

Mahyuba izeneko zortzi urteko neskatila sahararrak bi hilabete pasatu zituen herrian. Uztailean etorri zen Antzuolara, Lourdes, Migel Angel eta Mairiren etxera. Arrasateko Nubi elkartearen bitartez etorri zen; kanpamenduetatik irteten zen lehen aldia zen. /2005-07-15

BIDAIAK

Uda ezberdina pasatu zuten Eneida Iturbek eta Hodei Letek

Bidaiatzeko beste era bat aukuratu zuten aurtengo udan bi antzuolarrek, Eneida Iturbek eta Hodei Letek, hain zuzen ere; Guatemalan eta Mexikon egon ziren, hurrenez hurren.

Bartzelonan dihardu ikasten Eneidak, eta hango Setem elkartearen bitartez joan zen Guatemalara. Elkarte horren helburua da, batez ere, jendea hango egoeraz kontzientziaztea. Horretara-

ko, elkartasun bidaiak antolatzen dituzte eta horietako baten parte hartu zuen Eneidak. Hango indigenekin bizi izan zen antzuolara, besteak beste.

Hodei, berriz, Mexikon egon zen, Txiapasen. Bere helburua zen hango egoera ezagutzea; ez zen proiektu baten lan egitera joan, askok egiten duten moduan. Zapa-tistak bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuen. /2005-09-02

KAZETARITZA

Kortabarriak aipamen berezia jaso zuen sariketa baten

Beñardo Kortabarria kazetari antzuolarraren lan batek aipamen berezia jaso zuen XII. Rikardo Arregi Kazetaritza Sarietan. Elhuyarren lan egiten du Kortabarriak kazetari moduan, eta aldizkari horretan *Erraustegiak sutan* izeneko dossierrean egindako lanagatik jaso zuen aipamena. /2005-07-08

KIROLAK

Saski berriak jarri zituzten ikastetxeko jolastokian

Saskibaloian jokatzeko bi saski berri jarri zituzten eskolako jolastokian. Bandalismoari aurre egiteko saski bereziak dira, altzaruzkoak eta egitura bateratua dutenak. Azkeneko urteotan kalte ugari izan zituzten saski zaharrek eta oso hondatuta zeuden. Berriok 3.300 euro ordaindu zituen Udalak. /2005-07-01



FUTBOLA

Antzuolarrak Ipintzako finalera iritsi ziren

Angiola taldeak Ipintzako finalerako txartela lortu zuen, baina, ez zuten jokatu. Herriko jaietan zen finala eta antolatzaileei eskatu zieten eguna aldatzea; ez zuten eskaera onartu eta antzuolarrak erabaki zuten ez jokatzeko. Zeresan handia eman zuen erabakiak. /2005-07-15



Hodei Lete La Garrucha herrian, Txiapasen.



Zabalo Iturgintza S.L.

Ondo ibili jaietan!

- Gasa
- Berogailuak
- Haire egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-aurrezteak
- Bainugelak. Proiektuak momentuan DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentek bideratzen ditugu

Tailerra: Uzarraga bidea, 10. Antzuola. Tf. 943 78 71 78 • Erakusketa: Kalebarren, 1. Antzuola
Tel.: 943 78 71 79, Tf. eta Faxe: 943 76 64 73

IRAILA



"Ederra litzateke kafea hartzeko herritik ihes egin beharra. Itxura denez, gutxi ibiltzen gara antzuolarrok tabernetan"

JOSEBA LEZETA
KAZETARIA
2005-09-08

ONDAREA

Larrugintzako materiala sailkatzen hasi ziren Tellerian

Telleria larru ontze lantegiko materiala sailkatzen hasi zen Udala irailean. Josu Tellabide etnologoa izan zen sailkatze lanen arduraduna.

Makinak, larruzko materiala, bulegokoak... Denetik topatu zuten Telleria etxeko azkeneko solairuan. Material hori guztia katalogatu, garbitu, sendatu eta biltegi baten gorde nahi du Udala. Aurretik, lantegi horretako

dokumentazioa eta artxiboa sailkatu zuen Udalak; lan hori egin da zegoen ordurako.

Lan hori guztia egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso zuen Udalak: 10.000 euroko laguntza, hain justu.

Udaleko arduradunen asmoa da orain daukaten material guztiarekin interpretazio gune bat edo museo antzerako bat sortzea. /2005-09-08

INGURUMENA

Autorik Gabeko Eguna egin zuten herrian hilaren 22an

Udalak Autorik Gabeko Eguna antolatu zuen hilaren 22rako, beste hainbat udal bezala. Lantegietatik joan-etorria egin ahal izateko autobus zerbitzu berezia jarri zuten. Kutsadura eta gastuak murriztea, kale eta errepideak arintzea eta zerbitzu publikoaren erabilera bultzatzea ziren helburuak. /2005-09-16

HIRIGINTZA

Ibarre urbanizatzeko proiektua onartu zuten osoko bilkuran

Iraileko osoko bilkuran onartu zuten Ibarre auzoa urbanizatzeko proiektua. Lanen aurrekontua da ia 160.000 euro.

Auzoari espazioa ematea da proiektuaren helburua. Horrela, jakin genuen Udalaren asmoa dela aparkalekuak, berdeguneak eta umeendako jolastokiak egitea. /2005-09-23

URRIA



"Jendeak ez du preso eta senideok bizi dugunaren kontzientziarik hartu"

URKO ALTZERREKA
KARMEN IRIZAR PRESOAREN SEMEA
2005-10-14



"Lehenbailehen hasi nahi dugu goizeko zaintza zerbitzuarekin"

ANDONI BALERDI
PAUSOKA ELKARTEKO PRESIDENTEA
2005-10-21

GAZTEAK


Droga-mendekotasunaren prebentziorako kanpaina

Gazte eta gaztetxoaren artean droga-mendekotasunaren prebentziorako kanpaina abian jarri zuen urrian Udaleko Ongizate batzordeak.

Kanpaina horren helburua zen gaztetxoengana iristea, baina baita gurasoengana ere. Horrela, gurasoei liburuxka bat bidali zieten, drogen gaineko informazioarekin.

Bestalde, gazteendako ekintzak antolatu zituzten;

alde batetik, 12 eta 15 urte bitartekoei zuzenduta drogen gaineko tailerrak antolatu zituzten Gaztegunean, lau zapatutan. Sasoia enpresa arduratu zen tailer horiek gidatzeaz. Bestalde, 15 urtetik gorako gazteendako bi zine forum antolatu zituzten Olanan etxeko aretoan. Drogen gainekin lotutako filmak ikusi eta horren gaineko berriketaldia egin zuten gazteek. /2005-10-28



Gaztegunean drogen gaineko tailerrak antolatu zituzten.

HIRIGINTZA

Gertu Gaek proiektuen gaineko proposamena egin zuten

Gizarte eta kultura ekipamenduen gaineko proposamena egin zuten Gertu Gaek, prentsaren aurrean. Euren ustez, Eguzki auzoan egingo duten eraikina eta Olanan etxea erabiltzearekin nahikoa izan daiteke behar guztiei aurre egiteko. Sagasti auzoan eraikin berririk egitearen aurka azaldu ziren. /2005-10-14

ODOL EMAILEAK

Herriko hamaika odol emaileri domina eman zieten Arrateko jaian

Odol emailen jaietan, Arraten, domina jaso zuten odol-emate gehien egin zuten antzuolarrek: Lourdes Badiola, Jesus Kortabarria, Xabier Etxeberria, Gorka Garitano, Elena Muñoz, Jesus Mari Odriozola, Mari Jose Rodrigo, Miren Zubillaga, Marian Igarza, Luis Mari Jauregi eta Pilar Aranguren. /2005-10-28



Ana Etxeberria

**Kirol masajista
Osteopata
Akupuntura
Esku terapeuta
Linfodrenagista
Kiropraktikoa**

Errekalde 6 behea Tel.: 943 76 60 13 ANTZUOLA

Jai zoriontsuak guztioi!

II Sukaldeko Haltzariak Harizki

MUEBLES IGEA

- Sukalderako eta bainurako altzariak
- Altzari rustikoetan espazializatuak

Zurrategi plaza 4 behea • Tel.: 943 78 71 80/Faxa: 943 78 60 24

AZAROA



"Izugarri aldatu da abesbatza; orain hiletetan bakarrik abesten dugu"

LUIS ANDUAGA
ELIZAKO ABESBATZAKO ZUZENDARI OHIA
2005-11-25



"Gaztetasunak, freskurak eta indarrak irabaziko du bertso txapelketan"

JONE LETE
IRAKASLEA
2005-11-25

ERREPIDEAK

Lizarragarako errepidea eraikitzeke lanekin hasi ziren

Etkezuriko zubian hasi eta Lizarragako hiribideraino joango da azaro bukaeran eraikitzen hasi ziren errepidea. Udaleko arduradunek adierazi ziguten sei hilabetez bukatuko zituztela lanok, maiatz bukaerarako-edo.

Izartu programari esker finantzatu dute aurrekontu osoaren %30. Hain zuzen, 453.785 euroko aurrekontua dute lanok.

Bigarren fase baten, zubia zabalduko dute eta bidegurutzia

edo biribilgunea eraikiko dute; Diputazioaren ardura izango da bigarren fase hori.

Errepide horren helburua bikoitza da: batetik, Elayra doazen kamioi eta beste ibilgailuen trafikoa saihestea erdigunean; bestetik, herrirako beheko sarre horixe izango da; errepide horretatik sartu beharko dugu, eta Zurrategiko etxebizitzien ostetik Kalebarrengo zubira irtengo gara. /2005-12-02



Azaro amaieran hasi zen Construcciones Donosti enpresa errepideko lanekin.

KULTURA

Argazki lehiaketara 68 argazki aurkeztu zituzten

Udalak antolatutako argazki lehiaketara 68 lan aurkeztu zituzten herritarrek; horietatik, 22 argazki digitalak ziren. Paperezko argazkien atalean, Iñigo Alonso izan zen irabazlea nagusien mailan. Digitalen atalean, berriz, Iñaki Gartzia irabazi zuen lehen saria. /2005-11-04

AZPIEGITURAK

Txakurrek euren eginbeharrak egiteko gunea

Pipican izeneko herriko lehendabiziko gunea jarri zuen azaroan Udalak, Udal Pilotalekuaren osteko zelaitxoan. Txakurren nagusiei gutuna bidali zien Udalak, horren berri emateko. Erantzun ona izaten badu, baliteke horrelako gune gehiago jartzea. /2005-11-04

ABENDUA



"Oso pozik geratu naiz aurten Donostiako maratoian egindako lanarekin; bi ordu eta 38 minutu izan zen nire denbora"

IKER LARREA
KORRIKALARIA
2005-12-02

KIROLA

Arrola elkartearen batzorde berria lanean hasi zen

Arrolaren zuzendaritza batzordeak deialdi larria egin zuen urrian; jende berririk topatzen ez bazuten, elkarteak desagertu egingo zen. Erantzun ona izan zuen deialdi horrek eta abenduan dagoeneko lanean hasita zegoen osatutako batzorde berria. Bost lagunek osatzen dute batzorde hori: Andoni Balerdik, Eneko Iturbek, Aitor Peñagarikanok, Jose Mari Alberdik eta Patri Bideluzek, hain zuzen ere.

Egutegi berria ere prestatu zuten abenduan; egunak zehaztu barik dauden arren, 2006an hilabetez hilabete egingo dituzten irteerak erabakita daude.

Urtarrilerako eski irteera antolatu dute, Candanchura. Martxoan Zumarragatik Azkoitira oinez joango dira; apirilean, Atau-Lareo-Lizarrusti ibilaldia egingo dute. Horiek izango dira urteko lehendabiziko irteerak. /2005-12-16



Batzordeko kide berriak Kalebarrengo egoitzan lanean.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA



DESKARGA AUTOAK

Antigua auzoa z/g Antzuola.
Tf. 943 76 62 75



Kalebarren 1. ANTZUOLA
943 76 64 84

HARATEGIAK

*Gabon
zoriontsuak
eta urte
berri on
opa dizkizuegu
herritar guztioi!*



Komenio kalea 2. BERGARA
943 76 10 72



IBARRE

LANDETXEA

- 8 logela berrituta
- Saloia eta egongela
- TB, interneta eta bainua logeletan
- Aparkaleku propioa
- Gosari bereziak
- Enpresa bilerak egiteko saloia
- Sukalde librea



Gugan izandako konfiantzagatik mila esker guztioi. Zorionak eta Urte berri on!

Irimoegi goiko auzoa ANTZUOLA Tel.: 943 76 63 10 e-posta: ibarrenekazal@terra.es



MATZ-ERREKA

Berotan estanpaturiko torlojugintza berezia

Plastiko eraldakuntza injekzio bidez

Ate eta pertsianak zabaltzeko automatismoak

Oinezkoentzako ate automatikoak



Ibarreta z/g • 20577 ANTZUOLA

Tel.: + 34 943 78 60 09

Faxa: + 34 943 78 70 34

<http://www.matz-erreka.com>

ONENA ETA TXARRENA

Urtea amaitzear dagoela eta, balantzea eskatu diegu hainbat laguni. 2005ak denetik ekarri digu: gauza pozgarriak batzuk, zoritxarrekoak beste hainbat. Esan bezala, hainbat lagunengana jo dugu, urteak eman dituen gauzarik onena eta txarrena zein diren jakiteko. Batzuek alde pertsonala aukeratu dute balantzea egiteko orduan. Gertuan eta munduan gertatutakoak ere ez dituzte ahaztu.



TERE GABILONDO
Bedelkarko presidentea

↑ **ARTEKALE KONPONTZEA**
pozgarria izan da dendarion ikuspegitik. Herri barrua txukuntzeko ekimenak positiboak dira betiere guretzat. Eta pilota partiduek giroa zertxobait piztu dute asteburuetan.

↓ **DENDARI TXIKIOI**
arreta txikia eskaintzen digute instituzioek. Superficie handiei erraztasun guztiak ematen zaizkie, eta herri barruko komertzioak baztertu.



AMAIA OSA
Txapa Irratiko kidea

↑ **HERRI ESKOLEN**
proiektua abian jartzea pozgarria izan da. Hainbat gai jorrazteko aukera izan dugu azken hilabeteotan. Gazteon partetik horrelako ekimenak herrian abian jartzea ondo dago.

↓ **18/98 SUMARIOAN**
auziperatutakoei gertatutakoak ez dauka ez buru eta ez hanka. Lotsagarria da inolako fundamentu barik jendea epaitzea gaur egun.



REYES AZKOITIA
BKEko pilota saila

↑ **OMENALDIA PILOTA SAILARI.**
Nire mundua txikia da eta azaroan pilota sailekooi egin zigiten omenaldia hunkigarria izan zen. Herrian pilotarako giro berezia dagoela argi geratu zen.

↓ **ANAIAREN HERIOTZA**
Maiatzean hil zitzaigun anaia, zazpi anai-arrebetatik bigarrena zena, eta benetan gogorra gertatu zen horren sasoitsu zegoen anaia ia-ia derrepentean joatea.



JOSE LUIS ELKORU
Bergarako alkate ohia

↑ **APIRILAREN 17KO**
hauteskundeetan ezker abertzaleak lortutako emaitzak azpimarratuko nituzke. Euskaldunontzako zein ezker abertzaileondako emaitza onak izan ziren haiek.

↓ **18/98 SUMARIOAREKIN**
gertatu denak ez dauka zentzurik, ezta inolako oinarrikerik ere. Gaur egun Madrileko epaiketa jasan behar izatea lotsagarria da, bizi dugun demokrazian adierazle.



JOSE MARI ZEZEAGA
Pilotaria

↑ **MUNDUAN DAGOEN EGOERA**
kezkarria da benetan. Ekologia zein gerra aldetik hondamendiak baino ez daude han eta hemen. Tamalez, haurrak dira gehien sufritzen dutenak batzuen arduragabekeriagatik.

↓ **GAZTE JENDEA**
gero eta kontzientzia handiagoa hartzen ari da goian aipatutako hondamendien aurrean. Gauzak hobetzeko lan aipagarria egiten dute, agintariei bidezuzena zein den erakutsita.



BEGOÑA GARMENDIA
San Martin Herri Eskola

↑ **HAURTZAINDEGI PUBLIKOAK**
2006ko irailean martxan egongo dela agindu zigiten ekainean. Pertsonal zein profesional mailan albiste pozgarria da, aspaldiko eskakizuna baita.

↓ **EMAKUMEEN AURKAKO**
erasoak, zoritxarrez, ia eguneroko kontu bihurtu dira. Benetan arazo larria da, eta horren soluzioa heltzeko gizarte osoaren inplikazioa beharrezkoa ikusten dut.



MAITE LAZKANO
Dantzaria

↑ **LANA TOPATZEA**
izan da gertatu zaidan gauzarik onena. Urte eta erdi inguru zain egon ondoren, martxoan lanean hasi nintzen. Gustura nago. Pena da lana topatzea horren zaila izatea gaur.

↓ **JENDEA GOSEZ HILTZEA.**
Eguna joan eta eguna etorri, miseriak jarraitzen du han eta hemen. Gosez hiltzen direnen kopurua ez da makala. Arazo hori konpontzeko benetako ahallegina egitea beharrezkoa da.



Instalakuntza moderno
eta guztiz erosoekin,
gure bezeroek merezi
duten kalitatezko
zerbitzua eskainiz.

Ariznoa HOTELA

Telefono Aranzadi, 3
Tel. 943 761 846 - 943 761 847 Faxa: 943 761 848
20570 BERGARA - Gipuzkoa

BERGARA

Kafea-Pentsioa



EGUNERO GOIZEKO 7:00etatik ZABALIK
Bidekurutzeta 34, BERGARA 943 76 47 23

Ondo pasau Gabonak!



Logelak



Kafetegia



- Gosariak
- Bokatak
- Egunkariak
- Bertako opilak
- Kafetegia
- Terraza

EGUNERO GOIZEKO 06:30ETATIK ZABALIK

URTE BERRI ON!

Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Obradorea:
Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13



OGIZUN
koop. elk.
okindegia



**UDAL
EUSKALTEGIA**

**Euskararentzat
bidea ez da
erraza eta leuna;
hala eta guztiz
argituko da noizbait
bere etorkizuna.
Hizkuntza dugu
Herriak duen
benetako ondasuna;
Urte Berriak
dakarkiola geureari
osasuna**

**BERGARAKO
UDAL EUSKALTEGIA**

Zabalotegi 13 • BERGARA
Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net
berg.euskudal@euskalnet.net



**Poltsikoratu
deskontu guztiak!**

elkar 

Orain, **elkar txartel berriarekin:**

- %5eko deskontua liburuetan
- %10eko deskontua euskarazko musikan
- Erosketa bakoitzarekin puntuak zureganatzeko aukera
- Ikusentzunezko eta jokoetan promozioak
- eta askoz gehiago...

Zatoz eta **doan** atera.

elkar megadenda Bergaran
Ibargarai, 12 - Tel.: 943 764 050

BAIONA • BERGARA • BILBO • DONOSTIA
GASTEIZ • IRUN • IRUÑEA • TOLOSA



ELENA LAKA
Abokatua



NAGORE NARBAIZA
Udaleko Hezkuntza Teknikaria



VALEN MOÑUX
Orfeoiko kidea



JUAN ITURRALDE
San Xosepe elkarteko presidentea



AINHOA AGIRREZALDEGI
Bertsolaria

ELKARRIZKETA
Euskal Herriaren bake-
biderako bidean urte honetan
barrena eman diren pausoak.
Aurten elkarrizketa zantzuak
sumatu ditugula esan genezake
eta bidean aurrera egingo dugu.

BERGARAN LANEAN HASTEA
Lan hau ilusioz hartu dut;
gainera, jende jator asko ezagu-
tzeaz gain, orain arte ondo eza-
gutzen ez nuen herria ezagutzen
nabil. Bergarak xarma berezia
dauka. Gustoko dut.

IKUSKIZUN BERRIA
Hiru urteko lanaren ondo-
ren, ikuskizun berria estreinatu
dugu. Gainera, lehenengo aldiz,
nire semeak nire ikuskizun baten
parte hartzen du eta hori oso poz-
garria da aita bezala.

KOMUNIKABIDEAK
hobetzeko beharra dago
gure bailaran. Alde horretatik,
tranbiaren proiektua eta Eibar-
Gasteiz autobidea positiboak
dira. Jende gaztearendako gauzez
autobusak jartzea ere bai.

BERTSOLARI TXAPELKETAREN
harira, bertsolaritzak eta
euskal kulturak erdal gunera egin
duen jauzia. Hori da integrazioa,
eta orain arte erdalgunean askok
egin duen lanari segiz eraiki behar
dugu etorkizuna.

ABERATSAK ETA POBREAK
Herrialde pobreen eta abe-
ratsen artean dagoen aldea urte-
an-urtean handituz joan ohi da
eta aurtengoa ere ez da salbues-
pena izan; aurten ere hazi egin
da bien arteko aldea.

TRATU TXARRAK
Milurte berriaren mende
berriaren bosturtekoan emaku-
meenganako indarkeriak irauten
du. Topikoa dirudi, baina, ez da
topiko hori desagertu; desager-
tzen emakumeak ari dira.

GERRAK ETA HURAKANAK
Gerrei dagokienez, oso urte
dramatikoa izan da; hor ditugu
Irakeko egoera, Palestinakoa...
Bestalde, hurakan ugari ere izan
dituzte hainbat herrialdetan.
Gauza gogorak gertatu dira.

EMAKUMEEN AURKAKO
erasoen arazoa gero eta
larriagoa da. Erakunde guztien
eta gizarte osoaren inplikazioa
beharrezkoa da arazoa adarre-
tatik heldu eta behingoz kon-
ponbidea topatzeko.

EAJ-REN JOKABIDEA
Berriro ere, EAJk, Euskal
Herrirako bakea bilatu ordez
negozio ekonomikoari lehentasu-
na emanez amaitzea urtea. Ez da
lehen aldia, baina honek ez gai-
tu konponbidera eramango.



AMAIA ZABALETA
Abokatua



JON UNAMUNO
Jardun elkartekoa



MAITE ARISTEGI
Baserritarra



SANDRA CALVO
Lausardi abesbatzako kidea



MAITE TOLEDO
Udaleko langilea

OSASUN ALDETIK
ondo nabil... Hala ere,
herrian Artekaleko lanak amaitu
dituzte eta nire etxean sanea-
mendukoak ere bai... Homose-
xualen arteko ezkontzena ere
poztekoa da.

HERRITARREN JARRERA
Herritarrek Bergarari ematen
dioten dinamismoa, nahiz
eta herriak eskaintzen duen
azpiegitura kaskarra izan. Ozto-
poei aurre egin eta ekitaldi abes-
garriak antolatu dira.

HITZARMENERAKO MAHAIA
Mundu mailan: Bolivian
indigena batek agintaritzaz lortzea
itxaropenerako urratsa da. Euskal
Herrian, berriz, Hitzarme-
nerako Mahaiak itxaropena sor-
tu duela uste dut.

KULTUR MUGIMENDU HANDIA
Azpiegitura egokirik ez
izan arren, jendeak kultur ekin-
tza asko egin ditu aurten. Boron-
datea badago ez musika alorrean
bakarririk, oro har kulturaren
gauzak egiteko.

WAZEMANK
Kirolak, saio folklorikoak
edota reality-showak egiten xahu-
tu beharrean diruak, sekulako
barre algarak eragiten dizkigun
umore freskoa ekarri du ETBk.

URTE GOGORRA
izan da niretako, Alzhei-
merra hain gertutik ezagutzea-
gatik eta, ondorioz, aitaren herio-
tzagatik. Bestalde, gero eta deso-
reka handiagoa dago herrialde
batzuen eta besteen artean.

LOKALAK IXTEA
Zinema eta Zabalotegi ixtea
albiste txarrak izan dira. Gaine-
ra, hainbat talde ere, AEK adi-
bidez, lokal barik geratu dira.
Udalak talde horiei erraztasu-
nak eman beharko lieke.

BUSH ETA AHT
Mundu mailan: Bush eta
Blair-ek mundu osoaren aurka-
ko gerrarekin jarraitzen dutela.
Euskal Herrian, AHTk hartu
duen bultzada eta horrek sor-
tzen duen mehatxua.

KULTURA AZPIEGITURA
eskasa. Auditoriorik ezean
baldintza kaskarretan egiten dira
kultur jarduerak. Okerrena da
ohitu egin garela beste leku
batzuetan ikusi eta entzun behar
genituzkeenak frontoian izaten.

GENERO BIOLENTZIA
Era guztietako basakeriak
gertatzen dira egunero han eta
hemen. Hala ere, emakumeen
aurkako erasoak dira gehien asal-
datzen, mintzen edo haserretzen
nautenak.

HORTZ KLINIKA

Silvana Caviglia doktorea
Simon Arrieta plaza 3, 2. Tel.943 76 38 54 BERGARA

PADI


ASEGURUAK

· Sermesa
· Pakea
· Grupo Eroski

· Ibersalud Globalcard
· Aegon
· Asepeyo

· Mapfre
· Fremap
· Ocaso

· Azkaran
· Previsora



**Gabon
zoriontsuak
denoi!**



AGIRRE HORTZ KLINIKA


Nagore eta Alaitz Agirre odontologoak,
Gotzone Arkarazo eta Silvia Romero laguntzaileak



- Odontologia orokorra
- Periodontzia
- Ortodontzia
- Endodontzia
- Kirurgia
- Protesiak
- Implanteak
- Estetika
- Hortzen zuritzea

Ibargarai 9, 1-B. BERGARA
Tel.: 943 76 00 23
09:00-13:00 eta 17:00-21:00

AEGON
aseguroak
RPS: 139/01



Hiru helburu:

Bakea eraiki, demokrazian sakondu eta presoak etxeratu

Autodeterminazioa gauzatu

Ezker abertzalea berritu

Eskaintza bat:

Elkarlana.



“hator
hator
mutil
etxera...”

bergarako
aralar

Goibekokale

ELGETA / Berria / 2005eko abenduaren 30a / 251. zenbakia

2005
urteari
begiratua
ELGETA

SISTECO
MAKINA-ERREMINTAK

Makina-erreminten salmenta,
laguntza teknikoko zerbitzua (SAT)
eta berreraikuntza

Urte berri on guztioi!

URTE BERRI ON ELGETAR GUZTIOI!



MAKINA-ERREMINTA SL Elorrio bidea z/g, Elgeta.

**ELGETAKO UDALAK HERRITARROI
GABON ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUE!**



URTARRILA OTSAILA



"Hainbeste urteren ostean nekatu egin garelako utzi diogu dantza solteko txapelketetan parte hartzeari"

HIART BOLINAGA
DANTZARIA
2005-01-21



"Hilabete eta erdi barru hasiko dira babes ofizialeko etxeak egiten"

JOSEBA MUXIKA
ZINEGOTZIA
2005-02-11



"Pentsatu eta antolatzekeo indarra duena zigortua eta isildua izaten da"

GEAXI EZPELETA
IKASLEA
2005-02-11

BIZTANLERIA

Herriko biztanle kopuruak gora egin du azken urtean

Urte hasieran biztanle kopuruaren zenbaketa eginda, iaz gora egin zuela jakin genuen. 2004. urte amaieran hasieran baino 30 biztanle gehiago zeuden. 1998an 984 biztanle zituen eta 2002an, 961. Pixkanaka gorantz joan da kopurua, berriz ere 1.000 biztanleko marra gainditzea lortu arte. Kanpotik herrira bizitzera etorritako jendeak eragin zuen gorakada; 44 izan ziren. Pakis-

tandarrak 14; Marokokoa bat; Pontevedrakoa beste bat eta Euskal Herriko hainbat txokotatik etorriak gainontzekoak.

Elgetatik kanpora joandakoak, berriz, 19 izan ziren 2004an. Horretaz gain, kontuan hartu behar da zortzi ume jaio zirela Elgetan eta azken datuen arabera hildakoak bi izan zirela. Urtririlean, beraz, 1.033 biztanle ziren Elgetan. /2005-01-21

ERREFERENDUMA

Europako Itunari 271 elgetarrek esan zioten ezetz

Europako Itunaren gaineko erreferenduma zela-eta herriko hainbat eragilek *Europako Konstituzioari ez!* izenburupean testu bat sinatu zuten: Aralarrek, Elgeta Auzolanianek, Forjanor eta Recydeko komiteek, Esna Hadik, Maya Ingurumen Taldeak, Gaztetxeak eta Euskal Herriari Euskarazek. Udalak, berriz, osoko bilkuran erabaki zuen konstituzioari

ezezkoa ematea Aralarko hiru zinegotzien eta EAko Inaki Ugartebururen botoekin.

Bozketa egunean abstentzioa %55 izan zen (474 lagun ez ziren bozkatzera joan). Bozkatu zutenen artean ezezkoa izan zen nagusi: 271 ezezko boto jaso ziren Elgetako hauteskunde mahaian; baiezkoak 108 boto izan ziren eta zuriak, berriz, sei. /2005-02-18

TXABOLAK

Herriko txabolen gaineko ikerketa egiten dihardu Udalak

Elgeta eta inguruetan gutxi gora behera 22 txabola daude. Txabolen gaineko datuak jaso zituen Udalak ikusteko zein egoeratan dauden eta ea txabolen gaineko ordenantzak esaten dutena betezen duten. Baldintzak bete ezan erabaki behar dute ordenantza aldatzea edo beste neurri batzuk hartzea. /2005-02-25

LIBURUA

Juan Cruz Juaristiren Ruandako bizipenak liburuan jaso zituzten

Elgetan apaiz lanetan diharduen Juan Cruz Juaristiren Ruandako bizipenak liburu batean jaso zituzten. 36 urte eman zituen hantxe, misiolari. *Juan Cruz Juaristi eta Ruanda: Gogoa Afrikaren bihotzean* izenburupean, Ruandako historia eta Juaristiri egindako elkarrizketa jasotzen ditu liburua. /2005-01-14



Juan Cruz Juaristi, Elgetako apaiza.

MENDIZALETASUNA

Euskal Mendizale Federazioaren bilera egin zuten

Urteko batzarra egin zuen Euskal Mendizale Federazioak. Eta zuzendaritza batzorde berria aukeratu zuten.

Arrasateko Alvaro Arregi eta Gasteizko Arantza Jausoro ziren hautagai federazioko presidente kargurako, eta azken horrek hartu zuen lekua Antxon Bandres ordezkatzuz. /2005-02-11

ESPALOIA

Proiektuaren gaineko azalpenak eman zizkieten herritarrei

Espaloia proiektuaren nondik norakoak azaltzeko bilera irekia egin zuten. Espaloia jarduaz eta funtzionamenduaz hitz egin zuten.

Programazio "trinkoa" izan dutela eta erantzuna "balekoa" izan dela esan zuten; baita ahalginak inbertsioetara bideratu dituztela ere. /2005-02-11

ERRETIRATUAK

Karta txapelketan sei bikotek hartu zuten parte Ozkarbin

Erretiratuendako briska txapelketa izan zen Ozkarbi elkartearen eta guztira 12 emakumek hartu zuten parte. Guztiek elkarren aurka jardun zuten eta amaieran Miren Zenitagoiak eta Sebastiana Atorrasagastik osatutako bikotea izan zen irabazle; eta ibarreko txapelketarako sailkatu ziren. /2005-02-11

Goibekokale

Irizar Jauregia • Barrenkalea, 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: kontuola@goiena.com



ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Irati Agirreazaldegi
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
LEGE-GORDAILUA
SS482/05
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

GOIBEKOKALE
Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriaritzako Kultura Saila



Gipuzkoako Foru Aldundia



Bergarako Udala



Antzuolako Udala



Elgetako Udala

AUZOLANIAN INDEPENDENTZIA TA SOZIALISMORUNTZ



Bide eginez



amalurriari
BIDE EGINEZ

ampistariari
BIDE EGINEZ

BIDE EGINEZ

elkartasunari
BIDE EGINEZ

parekidetasunari
BIDE EGINEZ

MARTXOA



"Azkenaldian hiri paisaiak margotu ditut bilbe eta puntuak erabiliz"

PELLO ALBERDI
PINTOREA
2005-03-11



"Euskal herrian gertatua kontatu dut Elgetako historiatik abiatuta"

JOSE LUIS APERRIBAI
APAIZA
2005-03-18

EGUNEKO ZENTROA

Kutzak 50.000 euro eman zituen Eguneko Zentrorako

Martxoaren 14an Kutxako eta Udaleko ordezkariak Eguneko Zentrorako egin zuten bisita; bertan, Kutxako Iñaki Almandozek 50.000 euroko dirulaguntza agiria eman zion alkateari Nagusiendako Zentrorako. Eta 18.000 euroko dirulaguntza eman zuen herriko familia batek.

Patxi Basauri alkateak esan zuenez, "jendeak gero eta urte gehiago hartzen ditu eta beharrezkoa da euren zerbitzuak

gertatzea. Gipuzkoako herri txikien artean Elgeta izan da lehengoetarikoa horrelako zentro bat zabaltzen".

Almandoz ere bat etorri zen alkatearen esanekin; horrelako proiektuen premiari buruz galdetuta zera esan zuen: "Gizartea zahartzen doan heinean beharrrak handitu egiten dira. Gure eginbeharra da orain adinekoei laguntzea, gu ere noizbait zahartuko garelako". /2005-03-18



Kutxako Iñaki Almandoz Eguneko Zentroan, Udaleko ordezkariarekin.

GAZTETXEA

Bederatzigarren urteurrena ospatu zuten gazteek

Martxoan bete ziren bederatzigarren urte gaztetxea zabaldu zutenetik. Urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu zituzten gazte asanbladakoek: kontzertuak, bazkaria eta umeen eguna izan ziren. Asanbladakoek batzarrrak barikuro egiten dituzte, 18:30ean. /2005-03-03

MUSIKA

Eskola Txikien Jairako abestia grabatu zuten

Ainhua Agirreazaldegik Eskola Txikien jairako egin dako hitzei musika ipintzeaz arduratu ziren Elgetako Izaskun Ojanguren, Gorka Arizmendiarieta eta Josu Azkarate eta Soralezko Loiola Madera. Ondoren, eskolako umeekin Espaloian egin zuten grabaketa. /2005-03-03

APIRILA



"Amateur mailan jarduteko jadanik ez nuen horrenbesteko ilusiorik; profesional mailan dihardut Ordago enpresarekin"

XABIER UBERA
PILOTARIA
2005-04-15

UDALA

Udalak 5.443.500 euroko aurrekontua onartu zuen

Apirilaren leian, EAJ-EAko zinegotzien aldeko eta Aralarkoen aurkako botoekin onartu zuten 2005erako udal aurrekontua. 2004koa (6.808.443 euro) baino aurrekontu txikiagoa izan zen; ia bost milioi eta erdi eurokoa. Horietatik lau milioi euro inguru inbertsioetarako izan dira.

Inbertsio nagusiak hirigintza arloan egingo zituztela jakinarazi zuten; 3.443.394 euro erabili dituzte horretarako.

Alkateak Pagatzako eta Torrealdeko urbanizazio lanak eta Maalako parkea azpimarratu zituen inbertsioen artean. Baita pilotalekua berritzeko erabili diren 300.000 euro; eta baserrietako bideak konpontzeko erabilitako 99.870 euro ere.

Udalbatzar hartan, Aralarrek udal gobernua lagatzeko erabakia hartu zuen. "Udal funtzionamenduan EAJ-EAekin bat ez zetorrelako". /2005-04-08

GARRAIOA

Akordioa sinatu zuten autobus zerbitzua finantzatzeko

Udalak akordioa sinatu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiarekin autobus zerbitzu berezia finantzatzeko. Ikasturtea amaitu bitartekoa izan zen akordioa; eta horren bitartez %60 finantzatu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Gainera, urteko lehen hiruhilabetetan autobusen erabilerak gora egin zuen. /2005-04-22

OMENALDIA

'Lepo'-ri omenaldia egin zioten hil zuteneko 25. urtemugan

Apirilaren 28an bete ziren 25 urte Xabier Arantzeta Lepo hil zutela. Haren heriotzaren 25. urtemuga gogoratzeko omenaldia egin zuten Asentzión. Guardia zibilaren kontrako ekintza batean txofer lana egitea egotzi eta 1976an atxilotu zuten. Iparralde-ra egin zuen ihes ondoren eta 1980an hil egin zuten. /2005-04-29

Elena Elkorok zorionik beroenak opa dizkizue elgetar guztioi.
Zorionak eta urte berri on!



SAIOA ARANZABAL MASAJEAK

ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea
- Reflexologia
- Hidromasajea
- Kirol masajea
- Podologia
- Solariuma
- Drenaje linfatikoa
- Algekin eginiko estalkia
- Depilazioa laser bidez

Urte berri on!

Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko

MAIATZA



"Euskara bultzatzeko kampainarik onena dakienak gaur arte moduan euskara leku guztietan erabiltzea da"

ALBERTO TELLERIA
FILOLOGOA
2005-05-06

EAJ-EAko lau zinegotziak Udal batzorde guztietako buru

Maiatzaren 10eko udalbatzar berezian erabaki zuten Udal batzordeak aldatzea. Aralarrek Gobernu batzordea utzi zuen eta EAJ-EA koalizioko zinegotziak berri dira ordutik aurrera batzorde guztietako buru.

Udala zazpi batzorde izatetik berri izatera pasa zen. Kultura, Euskara eta Gaztedia batzordeak bat egin zuten Hezkuntza eta Turis-

mo batzordearekin eta Izaskun Larrea da batzordeburua; baita Osasun eta Gizarte-Ongizate batzordeburua ere.

Patxi Basauri da Baserritarren batzordeko eta Hazienda, Pertsonal eta Zerbitzuen batzordeko buru. Joseba Muxika Hirigintza, Obra eta Ingurumen batzordekoa eta Iñaki Ugarteburu Kirol batzordekoa. /2005-05-13

POLITIKA

Rebeka Ubera Aralarren ordezkari Batzar Nagusietan

Rebeka Uberak hartu zuen Aintzane Ezenaroren tokia Gipuzkoako Batzar Nagusietan, Aralarreko ordezkari modura. Uberak berri esan zuen: "Aralarrentzat funtsezkoa da Batzar Nagusietatik hasita bakegintza eta normalizazio prozesuan laguntzea, legez kanporatze zein mehatxurik gabeko Gipuzkoa lortzeko". /2005-05-13



Rebeka Ubera Aralarreko zinegotzia.

EKAINA



"Elkadurak uste baino eragin handiagoa du ingurumenean"

PATXI MONTERO
NEKAZARITZA INGENIARI TEKNIKOA
2005-06-03

HEZKUNTZA

Gipuzkoako Eskola Txikien jaia arrakastaz ospatu zuten

Elgetan ospatu zen ekainaren 12an Gipuzkoako Eskola Txikien Jaia. 2.000 lagunetik gora elkartu ziren herrian eta jolasak hartu zuten leku handien; izan ere, bi jolasgune gertatu zituzten egun hartarako.

Antolatzaileek herritarren inplikazioa azpimarratu zuten: "Herri Eskolan hamar irakasle eta 78 ikasle daude, eta herritarren laguntzarik gabe ezinezkoa izango zen neurri

horretako jaialdi bat antolatzeari Elgetan".

Herrian izan ziren Gipuzkoako gainontzeko 26 eskola txikietako ikasle, irakasle eta gurasoak. Baita aurten erretiroa hartu duten hiru irakasle ere; eta haiei omenaldia egin zieten.

Igeldon izango da datorren urtean Eskola Txikien Jaia, eta hango ordezkariak hartu zuten lekukoa. /2005-06-10



Elgetako Herri Eskolako ikasleak Eskola Txikien Eguna iragarritz.

"Kirol dinamika aberatsa dago, baina bakarkako kirolak dira nagusi"

OSKAR CARRASCAL
UDAL KIROL TEKNIKARIA
2005-05-10

LAPURRETA

Pagatzako lau enpresatan lapurrak sartu ziren

Pagatza poligonoko Iraunkor, Alfa-Deco, Suministros Elgeta eta Elkoro Dekoletajeak enpresatan lapurrak sartu ziren. Eragindako kalteak ekonomikoak izan ziren batez ere. Sakelako telefonoak, eskuko ordenagailuak, dirua eta bidaia-txekeak lapurtu zituzten, eta baita nahasteak eragin ere. /2005-06-03

ERREPIDEAK

Artekalean irilatxoak eta semaforoak ipintzen hasi ziren

Autoen abiadura moteltzeko hainbat neurri hartu zituen Udalak. Horien artean, Artekalean irilatxoak eta semaforoak ipintzea. Lanak ekainean hasi zituzten. Irlatxoak eta semaforoak ipinita, oinezkoen arriskuak txikitzea eta Eibartik datozen autoak herrira polikiago sartzea lortu nahi dute. /2005-06-17

GABON ZORIONTSUAK IGARO!



INDUSTRIAS EVE, SA
Trokelgintza eta estanzazioa

Pagatza polig. Elgeta. 943 76 80 99



TER 2 SA

Gabon zoriontsuak igaro!

Indusketak • Garraioak • Lur-mugimenduak

Bulegoak: 943 76 18 34
Faxa: 943 76 03 08 BERGARA

UZTAILA



"Gizon eta emakumeek osatutako familia aldarrikatzen dugu"

IÑAKI EGIAZABAL
FAMILIAREN ALDEKO MANIFESTAZIOAN
2005-07-01



"Dirua aurreztu nahi dugu bizi kalitatea aldatu gabe"

IGOR ARIZMENDIARRIETA
IRAKASLEA
2005-07-15

KULTURA

Urtebetean 75.000 euro Espaloiko kultur ekintzetarako

Espaloiko herritarrekin konpartitu nahi izan zuten urtebeteko balantzea.

Espaloiko arduradunen esanetan, artista asko eta onak pasa dira. "Gustura gaude artistei emandako tratutik jaso dugun erantzunarekin. Gainera, aretoa ongi egokituta dagoela esaten digute". Ikusleei dagokienez, 13.000 eta 15.000 bitartean izan dira ordainpeko ekitaldiak ikus-tera joan direnak.

Umeek ere badute lekua Espaloian eta aurrerantzean ere hala izatea nahi dute.

Urtebetean kultura ekintzetan 75.000 euro inbertitu dituzte Espaloian; honi, Udalarekin zein beste taldeekin elkarlanean antolatutako ekintzak gehitu behar zaizkie. "Urtebetean 31.000 euroko zuloa egin dugu, baina tabernak eta jatetxeak ematen dituen etekinekin estaltzen joango gara", esan zuten. /2005-07-22

ERREPIDEAK

Elgetarako bideko bihurtzeko konpondu zituzten

Bergararik Elgetarako errepidean Uberako eta Arantzetako bihurtzeko lanak amaitu zituzte uztailean. Bihurguneen zabalera handitu egin zuten, hainbat ibilgailu (kamioiak eta bestela ibilgailu handiak) tratatuta gelditzen baitziren. Trafiko seinaleak eta bionda berriak ere ipini zituzten. /2005-07-08

JAIK

Azoka Nagusiko antolatzaileak pozik parte-hartzearekin

Jaiak amaitutakoan, Azoka Nagusiko antolatzaileak pozik azaldu ziren jendeak emandako erantzunarekin. Zapatu eguerdian plaza inguruan egon zen giroa azpimarratu zuten. Bestalde, pena adierazi zuten jaiak amaitzeko antolatutako antzerki lana bertan behera geratu zelako, eguraldia zela eta. /2005-07-08

UDALA

Aralar eta EAJ-EA Ika-mikan inbertsioengatik

Udal aurrekontuetatik inbertsioetarako bideratutako diruaren berri emanez, Udalak esku orria banatu zuen. Aralarrek ez zuen begi onez ikusi esku orri hau ateratzea. Haren ustez zaila zelako bertan adierazitako inbertsio guztiak urte barruan betetzea. /2005-07-01

KIROLA

Berasaluze eta Idoate lau t'erdiko txapelkunak

Ibilbide luzearen ostean, uztailean leian Udal Pilotalekuan jokaturako finalekin amaitu zen aurtengo ETB-Kantxa lau t'erdiko pilota txapelketa. 23 urtez azpikoetan Berasaluze berriztarra izan zen txapelkun; kadeteetan, berriz, Idoate burlatarra. /2005-07-08

ABUZZTUA



"Pilotalekuko teiltatu berria altuagoa izango da eta egurrarekin jantzi; jokorako egokiagoa izango da pilotariendako"

PATXI BASAURI
ALKATEA
2005-09-09

KIROLA


Pilotalekua berritzeko lanetan jardun zuten hilabete osoan

Uztailearen amaieran hasi eta abuztuan barrena pilotalekua berritzeko lanetan jardun zuten langileek. Besteak beste, ate berri bat ireki zuten Elorriorako bidearen kontrarako horman.

Pilotaleku barruan, berriz, tabernarako atea itxi zuten eta beste bat egiten hasi ziren. Bolatoki tabernan ere egin zituzten hainbat berrikuntza. Beheko

komunak ezinduendako egokitzeko jardun zuten, besteak beste.

Honen ostean etorri ziren pilotalekuko lanik garrantzitsuenak; teiltatu berritzeko lanak, hain zuzen ere. Uralitazko teiltatu kendu eta berria egiten jardun dute hurrengo hilabeteetan. Lehengoa baino garaiera altuagoa eman diote teiltatuari, pilotan jokatzeko egokiagoa. /2005-09-08



Elorriorako bideari begira dagoen horma ate handi bat ireki zuten.



BARRENENGUA BASERRI TURISMOA

Egoetxeaga auzoa
20690 ELGETA
Tel.: 943 76 82 21

Urte berri on zorientzua!

Arantzeta masajistak

- Osteopatia
- Kirol masajea
- Kiromasajea

Urte berri on denoi!

Salbador 28 • Tel.: 943 76 80 54 • 943 76 81 90 • ELGETA

IRAILA



"Gure baserri ondoan filmatu dute filma, eta baserritarraren papera egin dudanez ez dut karakterizazio beharrik izan"

JOSE RAMON ARANTZABAL
'EL BOSQUE DE LAS SOMBRAS' FILMEKO PARTAIDE
2005-09-16

KULTURA

Film bateko eszenak filmatu zituzten Iturri baserrian

Koldo Serra eta Iker Monforten *El bosque de las sombras* filmeko hainbat eszena filmatu zituzten irailan barrena Elgetan.

Arantzeta auzoko Iturri baserria zinema plato bihurtu zuten egun batzuetan. Western erako film gogorra izango denaren hainbat zati filmatzeko. Film honek akzioa eta tentsioa izango ditu oinarri.

Aktore ezagunek hartu dute parte filmean: *Dracula*, *Beethoven* edo *Harry Potter* filmetako Gary Oldman eta Aitana Sanchez-Gijon, esaterako. Azken hau Elgetan izan zen filmaketan.

Aktore ezagunez gain, Arantzeta auzoko Jose Ramon Arantzabalek ere egin zuen paper txiki bat efektu bereziz jantzitako filmean. /2005-09-02

OSPAKIZUNA

Kupel bat lapurtu zuten sagardo egunean

Gazte asanbladak antolatutako Sagardo Eguna giro onean ospatu zuten irailaren 18an Elgetan. Patata tortilla lehiaketan 20 taldek hartu zuten parte, eta sagardoa gogotik edan zuten elgetarrek; 250 sagardo edalontzi saldu ziren. Baina izan zen ezustekorik ere: goizaldean kupel bat lapurtu zuten. /2005-09-18

INGURUMENA

Egoarbitza eta Asentzio inguruak garbitu zituzten

Irailaren 25ean Maya ingurumen taldeak Egoarbitza eta Asentzio zabor bilketa egin zuen. Bestalde, Udalak sasiak eta belarrak kendu zituen herriko hainbat tokitan; Egoarbitza, besteak beste. Behin garbiketa egin ostean, azaroan eta abenduan pagoak eta pinuak landatu zituzten bertan. /2005-09-30

URRIA



"Familiak badu egiteko bat: gure seme-alabak zoriontsu hezte"

ANA GILLEGI
KAZETARIA
2005-10-14



"Odola ematen dugunean eskertzen digute eta guk ere eskertuko dugu saria"

KARMELO ERRARTE
ODOL EMAILEA
2005-10-21

KIROLA

Hondarribiko arraunlariei omenaldia egin zieten

Aurten Kontxako bandera sonatua eskuratu du Ama Guadalupekoa Hondarribiko traineerak. Hori dela eta, elgetarrek omenaldia egin zieten urriaren 22an hango arraunlariei.

Elgetako koadrila batek orain dela zenbait urte egin zuen bisita Hondarribiko Arraun Elkartera eta ordutik dute harremana eurekin. Egin izan dieten harrera ona eskertzeko eta lortutako garaipena-

gatik zorionak emateko antolatatu zuten omenaldia.

Mikel Orbañanos Hondarribiko entrenatzaileak esan zigunez, "ideia bitxia da Elgetak eta elgetarrek omenaldia egitea; baina era berean pozgarria".

Ekitaldiaren antolatzaile Josu De Vegak Hondarribiko traineruan ibiltzea eta hango giroa ezagutzea merezi duela esan zuen. /2005-10-14

AISIALDIA

Maalako parkean 4,35 metroko horma altxatu zuten

Maalan parkea egiteko lanek eman zuten zeresanik; batez ere bertan eraiki zuten hormak, 4,35 metroko altuera duenak.

Hasieran baranda ipintzekoak baziren ere, segurtasun kontuengatik horma altxatu zuten. Parkea azarorako amaitzekoak baziren ere, atzerapena izan zuten. /2005-10-28

EUSKARA

Euskara ikastaroetan 13 lagun hasi ziren ikasturte honetan

Udalak aukera eskaini zien herritarrei aurtengo ikasturtean euskara ikasteko. Astelehenetik egunero bitartean egunero bi orduko saioak egiten hasi ziren 13 ikasle. Euskara maila ezberdina izan arren talde berean dihardute Marisa Landaburu irakaslearekin, eta nork bere maila hobetzea da helburua. /2005-11-21



Kontxako Bandera Elgetan izan zen Hondarribiko arraunlariek ekarrita.

ELGETA AUTOAK



Berraondokoa z/g ELGETA • Tel.: 943 76 82 02 Faxa: 943 76 82 98

Zorionak eta urte berri on guztioi!

AZAROA



"Etxebizitza hutsak merkaturatzeak berrien prezioan eragin dezake"

OXEL EROSTARBE
ARALARKO ZINEGOTZIA
2005-11-18



"Gure ardura da datozen belaunaldiendako egungo ondarea lagatzea"

IDOIA LASA
MENDILANKOR KOOPERATIBA
2005-11-18

ERREPIDEAK

Saihesbideko lehen zatia inauguratu zuten hilaren 30ean

30 urtez zain egon ostean, elgetarren ametsetako bat egia bihurtu zen: saihesbidea. Hain zuzen, lehenengo zatia hilaren 30ean inauguratu zuten.

Kiroldegi aldameneko birlilguneetik hasi eta Kanpanzartik datorren bidera doa 500 metroko zati hori. Saihesbideak bi errei ditu, bakoitza 3,50 metroko zabalera; eta gehieneko malda %8,80koa da. Birbilguneak, berriz, 23 metroko erradioa du.

Saihesbidearekin, besteak beste, lortuko da herri barruko trafikoa arintzea. Patxi Basauri alkatearen esanetan, "garrantzitsuena ez da gidariek denbora aurrezte, herri barruko trafikoa arintzea baizik. Izan ere, Salbador kalean sekulako nahasmena sortzen da".

Bestalde, saihesbideko bigarren faseko trazadurari datorren urtearen hasieran ekingo diotela esan zuten. /2005-11-25



Saihesbideko lehenengo zatiak 500 metroko luzera du.

KIROLDEGIA

Bola-Toki tabernak hilaren 16an itxi zituen ateak

Azaroaren 16an itxi zuten Bolatoki taberna, baita kiroldegiko sauna eta squash pista ere. Ikastaroak gimnasioan ematen jarraitu zuten, elurtearen ondorioz sabaia hondatu zen arte. Kiroldegia itxi egin zuten eta berritze lanak amaitu artean horrela egongo da. /2005-11-11

TEKNOLOGIA BERRIAK

Udaleko webguneak 65.265 bisita izan ditu urtebetean

Azaroaren 11n bete ziren hiru urte Elgetako Udalak webgune berritua aurkeztu zuenetik. Eta azken urtean webguneak 65.265 bisita jaso ditu. Albisteak eta agenda kontsultatzen ditu jendeak batez ere; eta *Herria* eta *Turismoa* atalek ere pizten dute jendaren interesa. /2005-11-11

ABENDUA



"Motibazioa eta konstantzia izan dira ikasketetan emaitza onak lortzeko nire sekretu bakarra"

OLAIA JIMENEZ
IKASKETA AMAIERAKO SARIA JASO DU
2005-12-02

ETXEBIZITZAK

Babes Ofizialeko Etxebizitzetan izena emateko epea zabalik


Torrealdeko Babes Ofizialeko Etxebizitzetan berri eman zuten Udalak herritarrei.

Bide batez, izena emateko epea zabaldu zuten eta horretarako bete behar diren baldintzak azaldu zituzten.

Baldintza nagusiak dira adin nagusikoa izatea; aurrez etxebizitza baten jabe ez izatea; eta bost urtez Elgetan erroldatuta egotea. Eskatzaileen diru sarrerak ere hartuko dira kontuan.

Guztira, babes ofizialeko 20 etxebizitza egingo dituzte Torrealdean eta lanak Gabonen ostean hasiko dituztela jakinarazi zuten. Ondoren, 18 hilabete izango dira eraikuntza lanak amaitzeko.

Bestalde, Elgeta Bizigune programan sartzeko erabakia hartu zuten Udalak. Programa honek hutsik dauden etxebizitzak Eusko Jaurlaritzaren bidez alokatzeko bidea ematen du. /2005-12-16



Datorren urte hasieran ekingo diete Babes Ofizialeko Etxebizitzak eraikitzeari.




Jangela zerbitzua



Suite antzeko lau logela bikoitz: bainu osoarekin, telebista, berogailua, etab.

EGUZKITZA LANDETXEÀ



Eibarrerako bidea z/g Elgeta
Tel.: 943 78 90 84 • Sakelakoa: 679 41 66 97

**Mari Karmenek
Gabon zoriontsuak opa dizkizue!**

integratzailea anitza euskalduna dohaina

**BERGARAKO
IKASTETXE
PUBLIKOAK**



IPINTZA

DBH (12-16 urte)
BATXILERGOA (16-18 urte)
Giza eta gizarte Zientziak
Natur eta Osasun Zientziak
Teknologikoa

Boni Laskurain 17-19
Tel.: 943 76 31 42 / 43
012981aa@hezkuntza.net
www.goieskola.net/ipintza/



HHE-EPA

(18 urtetik gorakoentzako)
Alfabetizazioa (etorkinentzako)
Kultura orokorra
DBH
Unibertsitatean sartzeko kurtsoa
Alfa karneta
Euskara eta Ingelesa

Barrenkale 33-2
Tel.: 943 76 44 52
012266aa@hezkuntza.net



SAN MARTIN

HAUR HEZKUNTZA (3-6 urte)
LEHEN HEZKUNTZA (6-12 urte)

Boni Laskurain 25
Tel.: 943 76 21 47
012265aa@hezkuntza.net
www.goieskola.net/SanMartinAgirreEskola



M. ALTUNA

LANBIDE HEZIKETA
Erdi Mailako
Zikloak
(16 urtetik aurrera)
Goi Mailako Zikloak
(18 urtetik aurrera)

- Mekanika
- Elektrizitatea
- Administrazioa
- Plastikoak eta kautxoak

Eskaintza partziala
Zikloetan sartzeko kurtsoa
Ibargarai 1
Tel.: 943 76 24 91 / 76 38 40
imaltuna@sarenet.es
www.imaltuna.com



SAN MARTIN - IPINTZA - M. ALTUNA - HHE-EPA

Bergarako ikastetxe publikoak

ERRETRATUZAHARRA

BERGARA

Gazteriaren
abesbatza,
1970

Orain dela 35 urte inguru ateratako erretratua da albokoa. Bertan azaltzen direnek Coro de la Juventud osatzen zuten.

Antza denez, garai hartan meza egoten zen Seminarioko elizan zapatu arratsaldeetan. Handik sortutako taldea da albokoa. Han eta hemen ibiltzen ziren kantuan, herrian zein herritik kanpo. Toki askotan egin zituzten emanaldiak. Aita Iglesias domingotarra zen taldeko zuzendaria. Baliteke argazki hau Angiozarren ateratakoa izatea.

Erretratua, esan bezala, 1970. urtekoa da eta hauek dira bertan azaltzen direnak, ezkerretik eskumara:

Goian: Javier Zabaleta, Javier Larrañaga, Jose Luis Maortua, Jose Luis Larrañaga (aurreago) Mikel Beistegi, Alfredo Gonzalez Chirlaque, Aurelio Arrieta, Ramon Azkarate (aurrerago), Xabier Muxika (gabardi-



narekin) eta Alvaro Gallastegi.

Erdian: Fray Jacinto, Agustin Goenaga, Juanjo Moreno (atzerago), Agurne Kortabarria, Rosa Zabaleta, Mari Cruz Garitano, Itziar Lonbide, eta Jose Mari Gartzia (beltzez).

Aurrerago: Cecilia Gartzia, Jone

Zabala (zuriz), Margarita Gartzia, Inmaculada Urberuaga, Mari Jose Kareaga, Gema Bilbao, Lierni Narbaza, Miren Gartziandia, Aita Iglesias (txapelarekin) eta Pedro Guallar.

Aurre-aurrean, eskuman: Juanmi Usabiaga, Fernando Ibañez, Aitor

Eraña, Javier Loidi (betaurrekoekin) eta Iñaki Aspiazu.

Argazkia: Aitor Eraña



LASA jatetxea

Ozaeta jauregia Tel.: 943 76 10 55
BERGARA

Zorionak herritar guztioi!



Guztion eskura dagoen luxua



BERRIGARA
Egubakoitza / 2005eko abenduaren 30a

DESA CRISTAL

- Ibilgailuendako kristalak
- Kamioiak • furgonetak • automobilak • autobusak
- Era guztietako kristalen muntaia
- Baimendutako Solar-Check laminen instalazioa

TAILERRA ETA BULEGOAK: Santalaitz 4-5. pabilioia.
83 posta-kutxa
Tel.: 943 76 36 09 • Faxa: 943 76 73 45
20570 BERGARA

TAILERRA: Ibaiondo bailara 17-8. pabilioia.
Tel.: 943 69 16 16 • Faxa: 943 69 12 47
20271 IRURA



TORREKUA



ERRETEGIA

- Batik bat arraina
- Karta
- Eguneko menua
- Goizeko 7:00etatik zabalik

ZORIONAK ETA
URTE BERRI ON!

Ibargarai 37
Tel.: 943 76 50 99



BOLU SUKALDEAK



2000 eguneko garantia.
Aurrekontua konpromiso gabe.

Bolu 22 -behea . Bergara . Telefonoa eta faxa: 943 76 27 02

ELKAR

ELEKTRAGINTZA

**ZURE
ZERBITZURA!!**

Mota guztietako instalazioak



943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.
BERGARA

GABONAKO Oñati

OÑATI / Egubakoitza / 2005eko abenduaren 23a / GOIENKARIA - GABONEI BURUZKO GEHIGARRI BEREZIA



**OLENTZEROK ERE
GABON ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUE**

AZALA: MAITENA ARANA / IRUDIA: AIMAR SANTOS



Urte bat gehiago
zuen etxeak goxatzen!



gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1
Tel.: 943 71 63 22
OÑATI

AGENDA: Abenduak 23

IKUSKIZUNAK

'HORRA MARI!'

► **Horra Mari!** delako ipuin musikala antzertuko dute abenduaren 29an eta 30ean, eguena eta egubakoitza, honako taldeek: Ganbara Txiki eta Ganbara Txikitxo abesbatzek, Ganbara orkestrak eta antzerki taldeak. Xabier Ormazabal izango da narratzailea eta Aitor Biain, zuzendaria. Santa Ana antzokian izango da, 19:00etan. Sarrera 5 euro da helduendako, eta 3, berriz, umeendako.

'GIRIGUAI'

► **Giriguai** umeendako ikuskizuna antzertuko du Zirko Ttipiak. Urtarrilaren 2an, astelehena, izango da emanaldia Santa Ana antzokian, 16:30ean. Sarrera 2,5 euro kostatuko da alde zurretik erosita, eta 3, berriz, txarteldegian.

UMEENDAKO ZINEMA

► **Daltontarrak Lucky Lukeren kontra** delako umeendako filma emango dute urtarrilaren 3an eta 4an, martitzena eta eguaztena. Kultura etxeko zinema aretoan izango da, 17:00etan.

JOLASPARKEAK

JOLASPARKEA

► **Gabonetako jolasparkea** izango da abenduaren 27an eta 28an, martitzena eta eguaztena, Zubikoa

kiroldegian. Goizez, 11:00etatik 14:00etara izango da zabalik; arratsaldez, 16:30etik 20:00etara. 3 euro da egun osorako sarrera, eta 2, berriz, egun erdikoak.

UR JOKOAK

► **Ur jokoak** izango dituzte umeek urtarrilaren 2an eta 3an, astelehena eta martitzena, Zubikoa kiroldegiko igerilekuan. Orduetgia honakoa da: 10:00-12:00 eta 15:00-17:00.

HITZALDIA

EGUZKIAZ BERBETAN

► **Eguzkia, gure izarra** delako hitzaldia egingo du Iñigo Arregi astrofisikari oñatiarrek martitzenean, hilak 27, kultura etxean, 19:00etan.

BERTSOAK

JAIALDIA

► **Hainbat bertsolari ezagun** batuko dira urtarrilaren 5ean, eguena, eta jaialdia girotuko dute Zubikoa kiroldegian, 22:30ean. Hain zuzen, aurtengo txapelduna, Andoni Egaña, eta Maialen Lujanbio, Amets Artzallus, Unai Iturriaga, Igor Elortza eta Aitor Mendiluze etorriko dira bertsoan egitera.



► KONTZERTUA

KEN ZAZPIK DISKOA AURKEZTUKO DU

Ken Zazpi Gernikako taldeak *Gelditu Denbora* diskoa aurkezteko kontzertua egingo du abenduaren 29an, eguena, Gaztelekuan. Disko akustikoa da. Taldekoek sortutako eta moldatutako hamabi abesti batzen ditu, eta Joseba Sarrionandiaren poema bat bukaeran. Ekainaren 7an egin zuten aurkezpen kontzertua; gero, Debagoienean, Arrasaten aurkeztu zuten, eta orain, Oñatin. Sarrerak salgai dau-de kultura etxean 10 eurotan; txarteldegian, 12 euro kostatuko dira.

Non: Gaztelekuan. **Noiz:** abenduaren 29an, eguena. **Ordua:** 22:30.

ONGI ETORRI

OLENTZERO

► **Olentzero** Oñatiko kaleetan barrena ibiliko da abenduaren 24an, zapatua. Otadui zuhaitzitik abiatuko da, 18:00etan.

ERREGE MAGOAK

► **Meltxor, Gaspar eta Baltasar, Ekialdeko hiru erregeak** iritsiko dira Oñatira urtarrilaren 5ean, eguena, eta kabalgata egingo dute herriko kaleetan barrena, ume eta helduak agurtzeko. Herriko plazatik irtengo dira Erregeak, Mikel Deunaren parrokia ondotik, 18:30ean.

BANDA

KONTZERTUA

► **Gabonetako kontzertu berezia** egingo du Bandak urtarrilaren 6an, egubakoitza, Santa Ana antzokian, 12:30ean. Honako piezak joko ditu: *Gloria al Trabajo* (Teixidor), *Bocetos de Cáucaso* (Ivanov), *Country and Western* (Walters), *Gabon kantak*, *A Christmas dance party* (Carros-ek moldatua), *Aur Eder Baten Bila*, *Gaur da Nere Kristauak*, *Aurtxoa Seaskan*, *Noche de Paz* (Altunak moldatua), *Navidades Blancas*, eta *Arre, Borriquito* (González Bastidak moldatua). Aldez aurretik, goizeko hamaiketan, kalerjira egingo dute musikariek.

Zorionak
eta
Urte Berri On !



Bakeari deika baina entzungor,
argi bila hemen eta hor,
Gabon-gauak argitu ditzala
mendi, kale eta bidezidor

Urtarrilak 6

ERAKUSKETAK

MENDIA ETA NATURA

► **II. Mendia eta Natura** lehiaketako argazkien erakusketa dago kultura etxean hilaren 29ra bitartean, honako ordutegian: 18:30-20:30. Abenduaren 24an, 25ean eta 31n eta urtarrilaren 1ean itxita egongo da. Aloña Mendi kirol elkarteko mendi sailak antolatuta lehiaketako argazkiak dira.

KOSTALDEA

► **Azterkosta** delako erakusketa egongo da kultura etxean abenduaren 30etik urtarrilaren 10era bitartean, egunero, abenduaren 31n eta urtarrilaren 1ean izan ezik. Lurralde Antolaketa eta Ingurumen Sailak antolatzen du. Zortzi paneletan, EAEko kostaldearen ezaugarriak, bere historia geologikoa, ekosistemak... eta gai gehiago lantzen dira. Fosilak eta harea ere erakutsiko dituzte.

ELIZA

BIDEZKO MERKATARITZA

► **Bidezko merkataritza denda** antolatu du elizbarrutiak. Honako egun eta orduetan egongo da zabalik: abenduaren 23an, egubakoitza, arratsalde; abenduaren 24an, zapatua: goizez eta arratsalde; eta urtarrilaren 4an eta 5ean, eguaztena eta eguena, arratsalde. Hauek dira ordutegiak: 11:00-14:00 eta 18:00-20:30. Denda

Kale Barriko Don Pedruenaren behean dago (kaleko 12. zenbakian).

MEZA

► **Parrokian** honako orduetan esango dute meza: Gabon egunean, 19:00etan; Eguberri egunean, hilak 25, 11:00etan, eta espainolez, 13:00etan.

► **Gauerdiko meza** entzuteko aukera izango da Gabon gauean Bidaurretako elizan. Eguberri egunean, ohi bezala, 10:00etan esango dute euskaraz, eta 12:30ean, berriz, espainolez.

► **Arantzazun** honako ordutegian izango dira elizkizunak: abenduaren 24an, Gabon egunean, 19:30ean; eta Eguberri egunean, domeketan bezala, 09:00etan, 10:00etan, 12:00etan, 13:30ean (espainolez) eta 17:30ean.


GAZTELEKUAN

KONTZERTUA

► **Nadek, Kontraley eta Scam** taldeek kontzertua egingo dute abenduaren 23an, 23:00etan.

TAILERRAK

► **Hainbat tailer** egingo dituzte Topalekuan honako egunetan: abenduaren 27an eta 29an, eta urtarrilaren 2an eta 4an, 17:00etatik 20:00etara. Honakoak izango dira: talde jolasak, birziklajea, eskulanak, funky dantza eta bitxigintza. Izena emateko, jo Gazte Informazio Bulegora.



► HERRIKO ONDAREA

SAN MIGEL ERROTA DOAN BISITATZEKO AUKERA DAGO GABONETAN

Gabonetako oporrak herriko ondarea hobeto ezagutzeko aprobetxatu ditzakegu oñatiarrok. Izan ere, abenduaren 30era bitartean, Oñatiko Turismo Bulegoak San Migel errota eraberritan doako bisita gidatuak antolatu ditu. Hain zuzen ere, errota lanean ikusteko aukera egongo da 12:00etan eta 17:00etan, eta bisitariari hainbat azalpen emango dizkiete. Egun horretatik aurrera, bisita horiek ordaindutakoak izango dira. Horrez gain, Turismo Bulegoak beste eskaintza berezi batzuk ditu: bulegora jo eta Oñatiren gaineko DVDa ikusten duten guztien artean produktu sorta bat zozketatuko dute, egunero, urtarrilaren 2tik 5era arte. Azkenik, Oñatiko aterkiak eta euritarako kapelak salgai ipini berri ditu Turismo Bulegoak.

Noiz: abenduaren 30era arte. **Ordua:** 12:00ak eta 17:00ak. **Informazio gehiago:** Turismo Bulegoan (943 78 34 53).

Madina



Agirre
abokatuak

Amaia Madina Agirre
Abokatua

Goretti Madina Agirre
Abokatua-Ekonomista

Motxon kalea 3, behea
Tel.: 943 78 14 27 • 943 78 14 57
Faxa: 943 78 02 45
20530 Oñati

madinaagob@ius-lan.euskalnet.net

itziar optika



Kale barria 32 • Tel./Faxa: 943 71 82 88
OÑATI • itziaroptika@wanadoo.es

PROMOZIOAK/ Txanda elkartearen Gabonetako sariak

Gabonetako sariak banatu ditu Txandak, eta urtarrilean zozketekin jarraituko du

USOA AGIRRE

Oñatiarrek sari potoloak irabazteko aukera izan dute Txandak urtean zehar egin dituen kanpainetan; Gabonetakoa izan da azkena. Kanpainak izan duten arrakasta ikusita, datorren urtean ere bezeroak saritzen jarraituko dute.

Urtea hasi zenetik hainbat kanpaina egin ditu Txanda Oñatiko dendarien elkarteak. Kanpaina horien helburua izan da oñatiarrak herriko dendetan eros dezaten animatzea eta bertako dendetan erosten dutenak saritzea. Hilero zozketatu dute aste bukaerako egonaldi bat landetxe edo talasoterapiako zentro batean, eta, horrez gain, hainbat kanpaina egin dituzte; azkena Gabonetakoa izan da.

Azken kanpainan 1.200 euroko sari bat banatu dute eta 150 euroko beste bederatzi sari; guztiak ere bonotan, Txanda elkarteak osatzen duten dendetan gastatzeko. 1.200 euro irabazi dituen txartela 32.005 zenbakia izan da eta gainontzeko bederatzi sariak 2.005 zenbakiarekin amaitzen diren txartelen jabeek jasoko dituzte. Abenduaren 3an egin zen zozketa eta 30 egun dituzte txartel horien jabeek bakoitzari dagokion saria jasotzeko.



OIHANA ELORTZA

Txanda elkarteko presidente Zuriñe Mendiaren eskutik jaso zuen saria Maria Nieves Gartzia.

ABENDUKO ZOZKETA

Bestalde, landetxe edo talasoterapiako zentro batean egonaldia ere zozketatu dute azaroan; Maria Nieves Gartzia jaso du saria. Zozketa gehiago ere egingo dute: abenduan zehar Oñatiko dendetan Txandako txartelarekin ordaintzen duten guztiak

Txandako erosketa-txartelarekin ordainduta parte har daiteke hileroko zozketan

landetxe edo talasoterapiako zentro batean asteburuko egonaldia irabazteko aukera izango dute. Urtarrilaren hasieran egingo dute sari horren zozketa.

Txandako kideak oso gustura daude urtean zehar egin dituzten kanpainak eta eskaintza bereziki izan duten arrakastarekin


eta datorren urtean ere zozketekin jarraitzeko asmoa azaldu dute. Urtarrilean, adibidez, landetxe edo talasoterapiako zentro batean egonaldia zozketatuko dute berriz ere.

Hileroko zozketa horietan parte hartzeko Txandako erosketa-txartelarekin ordaindu behar da elkartearen kide diren dendetan. Aurten egin dute Txandako txartela eta, elkarrekin arduradunek esan digutenez, arrakasta handia izan da. Gainera, erosketa-txartelak zozketa eta eskaintza berezietan parte hartzeko aukera ematen du. Txartela egin nahi duten oñatiarrek Txandako dendaren batera edo Rural Kutxara jo behar dute; han emango diete txartela egiteko behar duten informazio guztia.

OTSAILEAN PRESIDENTE ALDAKETA

Txanda elkartearen presidentea kargua bi urterako izan ohi da. Azken bi urte hauetan Zuriñe Mendia aritu da lan horretan, baina datorren urteko otsailean presidentea berria aukeratu beharko dute Txanda elkartearen dendari guztiak. Elkartearen presidentea izateko ez du inork bere burua aurkezten; kide guztiak har dezakete parte bozketan eta egokien iruditzen zaien dendariaren aldeko botoa ematen dute. Boto gehien jasotzen dituen izango da otsailean Txanda elkartearen presidentea berria.

Gabonetan oparia egiteko hamaika aukera!



ITZIAR UGARTE

Optika Audiometria Betaurrekoetan azken joerak
Eskiatzeko betaurrekoak eta maskarak graduatzen dira

Arrasate pasealekua 35, ARRASATE. 943 08 26 87
Eskola Politeknikoaren ondoan





**ELEKTRIZITATEA,
KRISTALDEGIAK
ETA ITURGINAK**

ARGISOUND, Arantzazuko Ama 9
EGANA, Zubibarrri 2
TXINTXURRETA, Kale Barria 5
LETE, Kale Zaharra 38
FELIX ARREGI, Kale Barria 53
RTV BELAR, Olakua 1C
ZELAIA, Patrua kalea 5-10
ELKORO Kristaldegia, Kazarraga 1
GELATZU, Zubillaga 1



OPTIKAK ETA ARGAZKIAK

ITZIAR Optika, Kale Barria 32
ARKAUZ Optika, Lazarraga 2
PLAZAOLA Optika, Kale Barria 29
ION ARZUAGA Argazkiak, Kale Barria 28
PLAZAOLA Argazkiak, Kale Barria 2



**BITXITEGIAK ETA OPARI
DENDAK**

ILLARRAMENDI Bitxitegia, Kale Zaharra 4
MUGARZA Bitxitegia, Kale Zaharra 6
SUA, Kale Zaharra 7



**ESTANKOAK, PAPERDENDAK
ETA INFORMATIKA**

ALTUNA, Kale Barria 19
IRIZAR, Foruen enparantza 6
URZELAI, Kale Zaharra 4
HIRUKAR, San Lorenzo 1
O.R.I. Informatika, Atzeko kalea 1
URZAI, Portu kalea 4



JANARI DENDAK

ANDRES Arraindegia, Merkatu plaza z/g
ANTONIO FERNANDEZ
Arraindegia, San Lorenzo 5
ANTXON Harategia, San Lorenzo 5
BIXAIN Harategia, Arantzazuko Ama 4
GARAI Harategia,
Maiatzaren 1a plaza 2
JESUS ODRIOZOLA Harategia,
Arantzazuko Ama 2
TARSICIO Harategia, Portu kalea 2
EGANA Okindegia, Kale Barria 35
GOIZTIRI DIETETIKA, Ramon Irizar 2
SAN MIGUEL KOOP., Kale Barria 8
KAMANUÑO, Zubibarrri 2



**MERTZERIAK
ETA LENTZERIAK**

ANE, Kale Barria 54
ARANTZA, San Lorenzo 5
BEGOÑA, Atzeko kalea 4
KUTTUN, Bidebarrieta 19
URTAZA, Kale Barria 14
URZELAI, Kale Barria 26
XARMANTA, Kale Zaharra 18



ZERBITZUAK ETA BESTE

ALTUBE Zerbitzuak, Portu kalea 5
ARABA BIDAIAK, Lazarraga 3
URISU, Foruen enparantza 6
KOMA Akademia, Olakua 7
OÑATI GARAJEA, Goribar auzoa 9



**OINETAKOAK
ETA POLTSAK**

OLALDE, Kale Barria 38
PATXI, San Lorenzo 9B
KONTXI, Foruen enparantza 11
VIKY, Kale Barria 30

**KALITATEZKO
PRODUKTUAK
ETA ZERBITZUAK
GERTU-GERTUAN**

TXANDA



OÑATI,

ZURE

ZENTRO

KOMERTZIALA

**BURDINDEGIA, LOREAK ETA
PENTSUAK**

ELORZA, Kale Barria 17
JUANITOSA, Kale Barria 24
KIMU loradenda, Kale Barria 17
URTIXIN loradenda, Portu kalea 5
BELLOTZA-UGARTE PENTSUAK,
Bidebarrieta 19



**DEKORAZIOA,
ALTZARIAK ETA
ETXEKO EHUNGINTZA**

BARUE, Santa Marina plaza 4
HEGOIA, Ramon Irizar 2
ARANBURU, Kale Zaharra 21
PAKITA, Santa Marina plaza 6
MAIBI, Mendiko kalea 2
LANTZEN, Kale Barria 57



TATOO & PIERCING

ZORBA'S, Motxon kalea 1



JANTZIAK

AMALUR, Kale Barria 20
LETAMENDI, Foruen enparantza 8
MARKU, Kale Barria 6
N.I., Ramon Irizar 2
URRUTIA Gizonak, Kale Barria 54
ELORZA AHIZPAK, Euskadi etorbidea 5
IGARZABAL Ume jantziak, Moiuia 10



**LURRINDEGIAK,
DROGERIAK,
MARGOAK**

JASONE, San Lorenzo 10
LAKET, Lazarraga 3
ARANBURU, Kale Barria 47
PICO Errotulo eta Margoak, Berezaio 8



KIROLDENDAK

ALZU S.L., Arantzazuko Ama 2
LIZARRALDE Kirolak, Olakua 16
MENDIZABAL Kirolak, Kale Barria 39
OSI Mendi-Kirolak, Mendiko Kalea 10




OSASUNA ETA EDERGINTZA

AMAIA DIAZ DE MONASTIOGUREN,
Kale Zaharra 5
Mª CARMEN, San Lorenzo 4
LAMIAK, Euskadi etorbidea 15
NIKOLAS ETA IGONE, Kale Zaharra 2
Mª JOSE JAUREGIALTZO, Motxon 5
D'OR ESTETIKA, Errementari 5



**OSTALARITZA, KAFE DENDAK
ETA GOZOTEGIAK**

ARKUPE, Foruen enparantza 9
HARRIPE, Kale Zaharra 34
OSTATUA-HOSPEDERIA ARANTZAZU,
Arantzazu auzoa z/g
KOROSTI Kafeak, Bidebarrieta 13
GORROTXATEGI, Kale Zaharra 24
KIKU Gozoki denda, Kele Barria 7
MIZKE Gozoki denda, Kele Zaharra 3



TXANDAREN UDAZKENEKO ZOZKETA

Sari nagusia: 1.200 euro erosketa-txarteletan
Zenbaki saritua: 32.005
Azken lau zenbakiak berdinak edukiz gero:
150 euro erosketa-txarteletan (9 sari)
Aurkeztu zure txartela urtarrilaren 3a baino lehen!

Txantxiku Dendarixen
Alkartian partez,

Zorionak eta urte berri on!!!

OSPAKIZUNAK/ Ikastetxeetako ekintzak

Ekitaldiz josita hasi dituzte Gabonak herriko ikastetxeek

USOA AGIRRE

Azoka solidarioa, umeendako pailazoen emanaldia, ikasle-entzezlanak, kalejirak, Olentzeroren etorrera... ospakizun horiek guztiak izan dituzte aste honetan herriko ikastetxe ezberdinetako ikasleek antolatuta.

Gabonetako oporrak hasi baino lehen, ederki ospatu dituzte herriko ikastetxe ezberdinetako ikasle, irakasle eta gurasoek Eguberriak. Ospakizunetan hasi ziren lehenengoak Elkar Hezi ikastetxeok izan ziren; urteroko Elkartasun Azoka egin zuten hilaren 17an. 15 bat Gobernu Kanpoko Erakundek parte hartu zuten azokan eta, horien materialaz gain, ikasle batzuen gurasoek egindako produktuak saldu zituzten. Ateratako dirua Intermon Oxfamek duen proiektu batera bideratuko dute. Urtero arrakasta handia izaten du azokak eta aurten ere ez zuten kale egin plazara hurbildutako oñatiarrek.

Hilaren 17an, zapatuan, izan zen Poxpolo, Mokolo eta Kon-

pañia pailazoen ikuskizuna Zuzola institutuan. Herriko ume guztiek izan zuten pailazo xelebreen abenturekin gozatzeko aukera. Gabonak berotzeko asmoz antolatu zuten emanaldia Errekalde Herri Eskolako gurasoek.

OLENTZEROREN BISITA

Olentzero izaten da Gabonetako izarra eta herriko ikastetxeetan ere ez da gutxiagorako izan. Ikazkinari gutuna idatzi eta berari emateko aukera izan dute gaztetxoek, herriko ikastetxe guztietara egin baitu bisita. Atzo, hilak 22, izan zen Errekalde Herri Eskolan eta gaur goizean egin die bisita Elkar Hezi ikastetxeko eta Txantxiku ikastolako ikasleei. Olentzerok jaso ditu ume guztien eskariak eta orain domekara arte itxoin beharko dute zer opari ekarri dieten ikusteko, Gabon gauean egingo baitu etxeetara bisita Olentzerok.

Baina, ez ditu opariak Olentzerok bakarrik egiten; Oñatiko umeek ere badakite hurbilekoei opariak egiten eta horixe erakutsi dute ikastetxe ezberdinetan egin dituzten jaialdietan.



ELKAR HEZI IKASTETXEA

Gabon inguruan ekintza mordoxka antolatzen dute Elkar Hezi ikastetxeok. Abenduaren 17an, zapatua, antolatu zuten urteroko Elkartasun Azoka. Goizean zehar 15 bat Gobernu Kanpoko Erakunde egon ziren plazan beraien materiala saltzen eta 5. eta 6. mailako gurasoek egindako produktuak ere salgai jarri zituzten.

Santo Tomas egunean, berriz, jaiotza bizia egin zuten plazan. Ikastetxeko irakasle, ikasle eta gurasoak eta Oñatiko herritarrak aritu ziren kalez kale Gabon kantak abesten. Kalejiraren ondoren plazan elkartu ziren festa giroan txistorra, txokolatea, gaztainak eta bestelako jaki gozoak dastatzeko.

Gaur, egubakoitza, Olentzeroren etorrera ospatu dute. Abesti, antzerki eta abarrez egin diote ikasleek ongi etorria ikazkinari.

BITAONI S.L.

Zorionak eta urte berri on!

Mekanizatua

C.N.

CAD-CAM

Zubillaga industrialdea 20
Tel.: 943 71 60 44 • Faxa: 943 78 29 39 • Mobilak: 639 659 446
bitaoni@telefonica.net

Murrats

Podologia Zentroa

943533637



- Kiropodiak
- Azazkal inkarnatuak
- Oin diabetikoen ultzerak
- Garatxoak
- Miaketa biomekanikoak
- Neurri egindako plantillak
- Oinetako onddoen aurkako tratamenduak
- Silikonazko protesiak

Bidebarrieta 20 • Oñati

Ordutegia: 09.30etik 13.30era / 15.30etik 20.00etara.



ERREKALDE HERRI ESKOLA

Atzo, hilak 22, egin zuten Gabonetako ekitaldi nagusia Errekalde Herri Eskolakoek. Goizeko 9:00etan Olentzeroren bisita izan zuten eskolan eta gelaz gela aritu zen opariak banatzen. Ondoren, guraso, irakasle eta ikasleek plazatik Zuazola instituturako ibilbidea egin zuten kalejiran. Han egin zuten jaialdi nagusia.

Bi urteko umeetatik hasi eta DBH-raino, maila ezberdinetako ikasleek parte hartu zuten jaialdian: dantzak, antzerkia, abestiak... denetik egin zuten eskolako gaztetxoek. Bestetik, joan den zapatuan pailazoaren emanaldia izan zuten ume eta guraso guztiek. Giro ederrean hasi zituzten Gabonak Herri Eskolakoek.



TXANTXIKU IKASTOLA

Hainbat ekintza antolatu dituzte Txantxiku ikastolan Gabonak ospatzeko. Atzo, hilak 22, *Olentzero* izeneko antzezlanana egin zuten ikastolan DBHko 2. mailako ikasleek. Gaur goizean, aldiz, Olentzerorekin kalejira eta Santo Tomas azoka egin dituzte. Haur hezkuntzako ikasleek Olentzerorekin hitz egiteko aukera izan dute eta ondoren

kalejiran irten dira ikazkinarekin batera. DBHko 2. mailako ikasleek Santo Tomas azoka egin dute herriko merkatuan. Bertan, baratzean jasotako eta etxean egindako produktuak izan dituzte salgai.

Bihar, hilak 24, kalez kale Gabon kantak abestera irtengo dira ikastolako irakasle, ikasle eta gurasoak.

ZURICH AUTOK eskaintzen dizu:

- Aseguruaren titulartasuna 25 urtetik aurrera
- Lehenengo bi urteetan erabateko hondamena gertatuz gero, auto berriaren balioa
- 25 eta 35 urte arteko emakumea izatearren, %10eko deskontua
- "Soluzioak bidean" zerbitzu gida: zure aseguruak eskaintzen dizun abantaila eta zerbitzu gama zabala
 - Laguntza juridiko eta legala bidaietan
 - Deskontuak tailerretan
 - Deskontuak jatetxeetan, hoteletan (NH, Sol Melia...) eta paradoretan
 - Deskontuak bidaietan (opor-paketeak, auto alokatuak, tren txartelak, tarifa bereziak charter hegaldietan, hegaldi erregularretan...)

...eta zure aseguruak?



ZURICH

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon kalea 5 behea
20560 OÑATI

Tel./Faxa: 943 78 30 09

Polts: 620 77 66 20

GABONETAKO POSTALAK/ Laixan elkartearen zorion agurren lehiaketa

Gabon agurrik bizi eta koloretsuenak Oñatiko artista gazteenen eskutik

JON BEREZIBAR

Aurten ere Olentzero izan da protagonista Oñatiko neska-mutikoen postaletan. Artista gazte horien lanak domekan egon ziren ikusgai Gaztelekuan, baina ondoko orrietan jaso ditugu saritutakoen eta beste hainbaten zorion agurrak.

Oñatiko artista txikiak aurten ere euren sormen eta irudimena ipini dute agerian Gabonetako postal lehiaketan. Laixan elkarteak antolatuta, urtero herriko ehunka haurrek margoak hartu eta Gabonak gai hartuta postal lehiaketan hartzen dute parte. Aurten ia 700 izan dira, 7 eta 14 urte bitartekoak. Dagoeneko eman dute aditzera zeintzuk izan diren sarituak, eta ondoko orrietan aurkeztuko dizkizuegu, beste postal batzuekin batera.

Txartelek euskaraz idatziak eta euskal ohiturak islatzen dituztenak izan behar dute, eta ardatza beti Gabonak dira. Horrela, Olentzero bizardun eta tripandia

izan da protagonista lan ia gehienetan, baina askok Oñatiko kale eta etxeak ere marraztu dituzte, Gabonetako arbola, argi distiratsu eta elurrezko paisaiekin. Jaiotzaren irudiak eta opariak ere postal bat baino gehiagoren gai izan dira. Aitzakia, edozein modutan, gutxienezkoa da, oñatiar gazte horiek lan txukunak egin dituzte eta aurten, artisten modura.

BAZKIDEENDAKO POSTALAK

Irabazleak aukeratuta, modu berezian erabiliko dituzte marrazkiak. Izan ere, Laixan elkarteko bazkideei helaraziko dizkiete lanak, zorion agur moduan.

Bai saritutakoak, bai gaintzekoak ere joandako domekan eskegi zituzten Gaztelekuan, Bizar-zuriri egindako harreran. Aurten ere hiru taldetan banatu dituzte neska-mutikoak: A saila (2. eta 3. mailakoak), B (4.etik 6.eraoak) eta C (DBHko lehenetik hirugarren mailara arte). Talde bakoitzeko bi sari egon dira, eta sei banatu dira guztira. Bakoitzari 30 euro eman dizkio te eskolarako materialean.



Maidar Atxak —8 urte— Olentzero eta astoa irudikatu ditu postalean. Bere lana saritu egin dute.

MEKANIZATUETARAKO ZERBITZU OSOA

MEKALKI

Koop. Elk.

*Zorionak eta
urte berri on!*

Zubillaga industrialdea 13
Tel.: 943 78 19 11
Faxa: 943 78 29 90
e.maila: mekalki@mekalki.es
<http://www.mekalki.es>
OÑATI



Aimar Santos
C SAILEKO SARIDUNA / 13 URTE



Iñigo Igartua
9 URTE



Yasmin Chohan
A SAILEKO SARIDUNA / 11 URTE



Maitane Lopez
B SAILEKO SARIDUNA / 9 URTE



Irati Fernandez
C SAILEKO SARIDUNA / 12 URTE



Zulai Apaolatza
13 URTE



Mikel Bengoa
C SAILEKO SARIDUNA / 13 URTE



Mireia Markuleta
B SAILEKO SARIDUNA / 11 URTE

HOM

Gabon zoriontsuak izan!

Bidebarrieta 19 • Tel.: 943 78 34 44

simone PÉRELE

PASSIONATA

KIROLAK/ Saskibaloia txapelketa

Saskibaloian neurtuko dituzte indarrak herriko koadrilek

USOA AGIRRE

Duela 15 bat urte hasi ziren koadrilen arteko saskibaloia txapelketa antolatzen. Kirol horri bultzada emateko antolatu zuten lehen aldiz, eta parte-hartzaile asko izaten ditu urtero. Aurten, 16 bat koadrilak hartuko dute parte txapelketan.

Oñatiko saskibaloia zaleek urteroko hitzordua dute abenduaren 30ean eta 31n Zubikoa kiroldegian. Saskibaloia indartzeko asmoz antolatu zuten lehen aldiz txapelketa Aloña Mendiko saskibaloia sailekoek, eta urtero koadrila askok hartzen dute parte. Bi baldintza bakarrik bete behar dira: 16 urtetik gora izatea eta saskibaloia gustuko izatea. Berdin dio federatuta egon edo ez; kirolaria edo zalea izan, berdin-berdin har daiteke parte.

LIGAXKA


Lehenengo egunean, abenduaren 30ean, egun osoz arituko dira 16 taldeak saskibaloian jokatzen. Goizeko 9etatik 21:00etara arte ligaxka egingo dute izena ematen duten talde

guztiek; guztira 16 bat arituko dira. Horien guztien artean lau talde egingo dituzte eta talde bakoitzeko bi onenek jokatuko dituzte ondoren final-laurdenak. Finalerdiak eta finala urteko azken egunean, abenduaren 31n, jokatuko dira; 09:30ean hasiko dira finalerdiak eta ondoren, 12:00ak aldera jokatuko dute finala. Txapelketa irabazten duen koadrilak Oñatiko jate-txe batean afaltzeko aukera izango du.

Baina txapelketan ez da dena lehia izango. Lagunen arteko partiduak izango dira gehienak eta giro onean jokatuko dira. Partiduen tartean, urduritasunak alde batera uzteko, jaurtiketa hirukoitzen txapelketa egingo dute.

ZALETASUN HANDIA

Saskibaloirako zaletasun handia dago Oñatin; jende asko joaten da Gabonetako txapelketa ikustera, eta Aloña Mendiko saskibaloia sailean ere neska-mutil asko ari dira jokatzen. Bost taldek hasi dute aurtengo denboraldia: senior mailako neska eta mutilek; gazte mailako neska eta mutilek; eta kadete mailako mutilek.



Saskibaloian federatuta daudenek edo federatu gabeek hartzen dute parte urtero koadrilen arteko txapelketan.

Ainhoa Lazkanore omenezko hirunakoa

Urtarrilaren 7an egingo da Ainhoa Lazkanoren omenezko urteroko hirunakoa (triangularra) Zubikoan. Aurten, hirunakoa bera gizonetzkoena bakarrik izango da, baina emakumezkoek ere parte hartuko dute, eurek jokatuko dute eta lehenengo partidua: 16:00etan hasita, Aloña Mendiko neskek Legazpikoaren aurka jokatuko dute.

Ondoren, gizonetzkoen txanda izango da: Aloña Mendiko mutilekin batera jokatuko dute hirunakoa Legazpiko eta Bergarako saskibaloia taldekoek.

Gazteentzako areto-futbol txapelketa

Aurtengo Gabon jaietarako ere txapelketa antolatu dute Aloña Mendiko areto-futbol saileko kideek. Urtarrilaren 3an eta 4an jokatuko da eta 24 orduz gazteak areto-futboleko jokatzen ikusteko aukera egingo da Zubikoa kiroldegian.

Bi talde egingo dituzte: 12 eta 14 urte arteko gazteena bata; eta, 15 eta 17 urte artekoena bestea. Izenematea Zubikoa kiroldegian bertan egin beharko da abenduaren 30a baino lehen. Talde bakoitzak 15 euro ordaindu beharko digu parte hartzeko.



Zorionak eta urte berri on!

LANA, S. Coop.

Santxolopetegi auzoa 24
25 Posta Kutxa
20560 OÑATI (Gipuzkoa)

Tel.: 943 78 07 00
Faxa: 943 78 07 90

http://www.lana.coop
Posta-E: info@lana.coop



KIROLAK / '2005 ixa 2006' herri lasterketa

Urtea osasuntsu amaitzeko, San Silvestre eguneko herri lasterketa jokatuko dute

OSDA AGIRRE

San Silvestre eguneko lasterketa tradizio sendo bihurtu da Oñatin. Aurten ere, urtea ondo amaitzeko, oinezko lasterketa herri jokatuko dute; aurten, XIV. Codorniu saria izango da. Oñatiko korrikalariak izango dira gehienak, baina kanpotik ere etorriko dira.

Urteko azken egunean, abenduaren 31n, jokatu da, urtero legez, San Silvestre herri lasterketa. 16 urtera arteko korrikalariak 16:30ean irtengo dira eta plazako zirkuituari hiru buelta eman beharko dizkiote. Helduen lasterketa, berriz, 17:00etan hasiko da, eta ohiko zirkuituari buelta bi emango dizkiote (8.350 m). Plazatik irten eta bi buelta eman beharko dizkiote Oñatiko kaleetan zehar jarritako ibilbideari: plazan hasi eta Atzeko kaletik Bidaurretaraino joango dira; Olako bukaeraraino joan eta bueltan Errekaldetik etorriko dira; Oñat taberna paretik pasa eta gero, Umbertsitateraino joango dira, atzera bueltan plazan amaitzeko.

Lasterketako irabazleak kopa eta Codorniuren cava botila bat jasoko ditu sari modura. Eta zentzuzko bueltatzen duten korrikalari guztien artean Gabonetako bi otarre zozketatuko dituzte. Iazko lasterketako irabazlea Ritxar Fernandez izan zen.



GOIENKARIA

Ritxar Fernandez izan zen iazko lasterketako irabazlea.

HERRIKO KORRIKALARIAK

Oñatin beti egon izan da korrika egiteko zaletasuna, eta zaletasun horri erantzuteko antolatzen dute urtero lasterketa. 150 korrikala-

ri inguruk parte hartzen dute urtero; Oñatikoak izaten dira gehienak, baina Azpeitia, Arrasate eta Bergarako korrikalariak ere parte hartzen dute.

JESUS ZABALETA/ ANTOLATZAILEA

"Lasterketa egunean laguntzeko jendea behar izaten dugu"

Jesus Zabaletak urte asko daramatza San Silvestre eguneko lasterketa antolatzen. Urte hauetan guztietan ez dela gauza askorik aldatu dio, baina antolaketa lanean jarraitzeko jende berria behar dutela adierazi digu.



Zer dela-eta hasi zineten lasterketa antolatzen?

Behobia eta Donostia arteko lasterketa egin genuen 1992an lagun koadrila batek. Gure artean berbetan hasi eta Oñatin ere horrelako herri lasterketa bat antolatzeko gogoia piztu zitzaigun. Hala, animatu eta San Silvestre egunean egin genuen lehenengo aldiz.

Beti berberak aritzen zarete antolatzen?

Hasierako talde hartatik ni bakarrik nago; 8-10 laguneko taldeak antolatzen du lasterketa. Baina antolaketa lanak ez dira hain zailak, urtero berdina baita lasterketa. Antolatzeko baino gehiago, egunean bertan bidegurutzetan egoteko jendea behar dugu.

Herri lasterketa da, baina korrikalari onak etorri ohi dira.

Iaz, adibidez, oso maila ona egon zen. Urtetik urtera sona hartzen joan da lasterketa eta Ritxar Fernandez eta Zuhaitz Ezpeleta bezalako korrikalariak etortzen dira.

Lasterketako kartelak ere badu bere esanahia.

1993an egin zuen Pistol-ek eta harrezkero berdina atera dugu. Lasterketaren ibilbidea aldatu bada ere omenalditxoak egin nahi diogu kartelarekin.

LIZARRALDE

KIROLAK



ARRASATE
Foruen Enparantza • San Andres auzoa
Tel.: 943 79 91 47

Oñati
Olakua 16
Tel.: 943 78 29 86



Ondo pasatu
gabon jaiak!



Lazarraga 3 • OÑATI
Tel.: 943 71 62 16 • Faxe: 943 71 63 58

JIMMY IRIZAR / LOTERIA SALTZAILEA

“Telebistako pitonisek esandakoaren bila datoz asko, baina inoiz ez dute asmatzen”

JON BEREZIBAR

Loteria saltzen ibili arren, ez da oso jokozalea Jimmy; jokatzeko duena lagun artean egin ohi du, baina oso gutxi. Gabonetan lanpetuta ibiltzen dela aitortu digu. Azaldu digunez, jendea zozketa baino lau hilabete lehenago hasten da erosten.

Lanpetuta ibiliko zarete batez ere Gabon inguruan loteria saltzaileak, ezta?

Lan handien egoten den sasoa da hau. Egia da Gabonetan polito saltzen dugula, eta susmoa daukat aurten aurreko

urteetan baino gehiago salduko dugula; orain dela gutxi sari potolo bat tokatu da Oñatin, eta horrek ere eragin handia izaten du.

Superstizio asko sortzen da loteriaren inguruan?

Askok zenbaki zehatz bat eskatzeko deitzen digute, orain zein administraziotan zer zenbaki dagoen Internet bitartez ikus daiteke-eta. Beti egoten da urteko zenbaki eskatuenean bat, eta aurten, 5a da hori. Antza, telebistako pitonisaren batek esaten ditu zenbakiak eta barra-barra saltzen da hori. Nik ziurta dezaket ez dutela asmatzen. Ez dut telebistan holakorik entzuten, baina urtero egoten da zenbaki bat neurritz kanpo eska-

tzen dutena; *reality*-etan eta halakoetan esaten ei dituzte horrelakoak.

Zenbaki batzuk besteak baino politagoak ez dira izaten?

Askotan, begira hobeen jotzen duten zenbakiak aukeratzeko dira. Ez dakit zergatik, baina jendeak sekulako ezinikusia dio 0 zenbakiari. Errepi-katutako zenbakiak ez dira gustukoak izaten eta baztertu egiten ditu jendeak.

Zer nahiago izaten du jendeak, Gabonetako Loteria ala Erregetakoa (El Niño delakoa)?

Erregetakoak askoz ere onarpen handiagoa dauka, nahiz eta erosteko egun gutxiago egoten den eta ondorioz txartel gutxiago saldu.

Zein da sekula eman duzuen saririk potoloena?

Orain dela 4 urte, loteria nazionalen emandako 480 mila euroak. Aurten ere sari on bat eman dugu maiatzean, 60 mila eurokoa bonolotoan.

Orain dela gutxi banatu da sari handi bat Oñatin. Amorrua ematen du beste batek banatzea?

Ez, inbidia sanoa da horrelako kasuetakoa. Guri ere mesede egiten digu, jendeak ikusten du-eta sariak beti ez direla Cadiz, Murtzia edo Malagan bakarrik ematen. Horrela bezeroak, gehiago erostera animatzen dira, ea euren ere zer edo zer jausten zaien esperoan.



Inork gura izaten ez duen zenbaki horietako bat du eskuetan Jimmyk.

Infantaren zenbakia nahi

Aurten Estatuan gehien saldu den zenbakia 31.105 izan da, bi orduan saldu zena. Zergatik? Urriaren 31n Espainiako Printzeen alaba jaio zelako. Oñatiko administrazio gunean 31.104 zenbakia zeukaten salgai, eta hura ere berehala saldu dute. Telefonoz eta guzti erreserbatu dute zenbakia, gainera. “Nostalgikoen edo bildumagileek

erostea uler dezaket, baina zorte ona ematen duelako ez”, dio Jimmyk.

Bestela, ezkontza edo jaiotzen zenbakiak eskatzen dituzte erosleek. Urtean 20 edo 30 bat dei izaten dituzte zenbaki zehatz bat eskatzeko, askok faborito finkoak izaten dituzte-eta. Hala, Jimmyk dio oñatiarrak ez direla superstiziosoak zenbakiekin.




BATUAK S. A.

- MEKANIZAZIOAK ETA KONPONKETAK ORO HAR
- TORNUAK ETA FRESATZEKO MAKINAK - CNC
- ARTEZTEKO MAKINAK

Zubillaga industrialdea 12
Tel.: 943 78 11 15
Faxa: 943 71 82 50
e-maila: batuak@batuak.com
www.batuak.com
OÑATI

"Itzalpean bizi zirenei
argiak egin die distira"

(Isaias9-1)



arturo alvarez

www.arturo-alvarez.com

Ehune
Apainketa

Garibai, 8 • Tel: 943 77 11 48 • 20500 ARRASATE

GALDEKETA/ Formalak izan zarete aurten opariak jasotzeko?

Idatzi duzue dagoeneko Olentzerori edo Errege Magoei opariak eskatzeko gutuna?



JON ODRIOZOLA / TXIRRINDULARI OHIA

“Ume txikiekin gehiago bizi izaten ditugu Gabonak. Ez dakit Olentzerori gutuna idazteak umeei edo gurasoei egiten digun ilusio handien. Erregeak ere ospatzen ditugu, amandreak-eta hori ospatzen dute-eta”.



IÑIGO BIAIN / GAZTELEKUKO INFORMATIKA GELAKOA

“Ez naiz Gabonen oso zalea. Norbait aukeratzekotan, Olentzero gürago. Oparien kontua ere ez dut askorik atsegin; urterik urtera, gainera, gero eta gutxiago gastatzen dut. Asmaketa komertziala bihurtu dira Gabonak”.



PELLO ZABALA / FRANTZISKOTAR FRAIDEA

“Gutuna barik, frantziskotarrok beste ohitura bat dugu: auzoan Gabon-kantak abestea. Meza ere egiten dugu, baina aurten gauerdiko oilar-meza arratsaldean egingo dugu, dagoeneko fraideak ere zahartzen hasiak gaude-eta”.



OIHANA DIAZ / GANBARA ABESBATZA

“Benetan Gabonzalea naiz eta irrikatan nago aurtengokak ere iristeko. Aste batzuk lehenago dagoeneko hasten naiz dendetan begiratzen; asko gustatzen zait opariak egitea, baina ez diot ezer berezirik eskatu Olentzerori”.




ARANTZAZU IBARRONDO / LIBURUZAINA

“Azkeneko momentura arte itxoiten dut erosketak egiteko, baina asko gustatzen zait, baita urtean zehar ere opariak egitea. Etxera Olentzero etortzen da, baina Errege egunean lagun ezkutuarena egiten dugu”.



TXARO JUNCO / KIROLDEGIKO HARRERAGILEA

“Goiztiarra naiz opariak erosten hasten, ilusio handiarekin egiten ditut. Urtero, hasieran, zin egiten diot nire buruari aurten ez dudala neurrigabekeriarik egingo, baina azkenean beti gastatzen dut behar baino gehiago”.



Diseinuak eta dotoretasunak euriarekin bat egiten dutenean, osagarri berria sortzen da...

Eskaketa

GABONETAKO MENUAK / Zer jaten da Gabonetan?

Betiko produktuak eta menu tradizionalak dira nagusi aurten oñatiarren mahaietan

ON BEREZIBAR

Gabonetako giroa bizitzeko ez dago zertan beti kalera edo oparietara jo. Harakin eta arrain-saltzaileek ere zeregin handia dute jaietan. Hainek esanda, betiko menuen eta, oro har, okela eta arrain klasikoek zale dira oñatiarrek.

Azkeneko momentura arte itxoin ohi dugu Gabonetako ospakizunetako oturuntzetarako jakiak erosten. Kontsumitzaileen elkartetatik -prezioen gorakada ekiditeko- goiz erosi eta izozkailuan gordetzeko aholkatzen dituen arren, inor gutxi egoten omen da horren erne.

Berantiarrak eta baita klasikoa ere dira Gabonetako erosketak: arrainetan legatza eta okelaz bildotsa, batez ere. Fernandez arrandegiko arduradunek diotenez, labeko arrainak dira nagusi oñatiarren plateretan Gabon gauean eta gehien saltzen dituenak legatza eta ganbak ei dira. Bisigu eta muxarren bila ere gutxi batzuk gerturatzen dira arrandegira, asko garestitzen dira eta sasoi honetan. Okelari dagokionez, bezeroek betidanik jan dena eskatzen dutela diote Bixain harategian. Hain ere azken egunera arte lasai egoten dira eta jaiegunak gerturatzen doazen heinean aginduak bilderkatu egin ohi dira. Batez ere, bildotsa eta untxia, horiek dira



Untxia Gabon egunerako plater ona izan daiteke.

betidanik Gabonetan saltzen direnak. Solomilloa ere ohitura handikoa ei da, San Migel Kooperatibako Olatzen arabera. Enkarguei dagokienez, astebete edo, asko jota, bi lehenago egin ohi dituzte normalean bertako bezeroek. Txerrikiak dira azken momentura arte erosten ez direnak.

GOZOZALEAK ERE

Gozoetan erregea turroia izan da beti, eta gaur egun ere hala da. Goxo asko saltzen da sasoi honetan, turroiaz gain mazapanak eta bonboiak.

Mota guztietako gozokiak saltzen dira, edozelan ere, Gabonetan.

Gabon gaua BAKAILAOA GAZTAINA-ZOPA ETA AZAREKIN

OSAGIAK

- 2 bakailao-solomo
- Perretxikoak
- 50 gramo aza
- 200 gramo gaztaina
- 200 cl olio
- 1/4 kilo onddo
- 3 dl salda
- 50 gramo gurin
- Esne-gaina

PRESTAKETA

1. Frijitu gaztainak oliotan, ondoren xukatu eta xehe-makinatik pasatu.
2. Oreari salda beroa gehitu gurin eta esne-gainarekin. Berriz ere xehatu eta iragazi.
3. Perretxikoak zartagin baten salteatu eta ondoren gatza bota. Azarekin ere berdín.
4. Bakailaoa olio eta berakatzetan konfitatu 50 gradutan 3 minutuz.
5. Modu honetara aurkez dezakezu platera: oinarrian aza ipini eta gainean bakailaoa. Perretxikoak eta gaztaina-zopa oso bero zerbitzatu.

Gabon eguna UNTXIA SAGARDOTAN

OSAGIAK

- Untxia
- 150 gramo urdai
- 100 gramo gurin
- 25 gramo pinazi (piñoi)
- 4 olio koilarakada
- 3 azenario
- 3 patata
- 3 arbi
- 2 kipula
- Baso eta erdi sagardo
- Koilaratxokada bat arto-irin
- Usain-belar batzuk
- Gatza

PRESTAKETA

1. Suezitu gurinetan patatak, azenarioak eta zatitutako arbiak.
2. Txikitu pinaziak untxiaren gibel gordinarekin eta nahastu sagardotan apur baten urtutako arto-irinarekin. Alde batean utzi.
3. Berotu gurina, gorritu urdai zatitxoak eta sutik kendu eta gehitu gainontzeko gurina eta olio.
4. Bertan gorritu untxia laurdenetan zatitutako kipularekin eta gozatu gatz eta piperbeltzarekin. Ostean bota usain-belarrak, berakatz, sagardoa eta frijitutako urdaia eta ordubetez utzi egosten estalkiarekin.
5. Gehitu barazkiak eta gibela pinaziekin eta 20 minutu egosi.

2006

Bakea eta Oparotasuna denontzat Urte Berrirako



ULMA

ZELAIA

ONATI

1970ean sortua



Sukalde eta bainuak

Santa Marina 3 • 943 71 62 81




Altzariak

Euskadi Etorbidea 3 • 943 78 36 99



Ateak, leihoak eta zoruak

Patrua kalea 5 • 943 78 04 04



Etxetresnak

Patrua kalea 10 • 943 78 04 04



Berezao industrialdea • 943 78 20 08

Erreforma integralak
gure enpresako langileek eginak, obrak ahalik eta azkarren bukatzeko